



# 2030 Nafarroako Estrategia Jasangarria

Foru Komunitatearen Garapen  
Jasangarrirako Estrategia egiteko  
eta 2030 Agendako Garapen  
Jasangarrirako Helburuak (GJH)  
Betetzeko Estrategia



# Nafarroako Estrategia Jasangarria ENS·2030·NEJ

Foru Komunitatearen Garapen  
Jasangarrirako Estrategia egiteko  
eta 2030 Agendako Garapen  
Jasangarrirako Helburuak (GJH)  
Betetzeko Estrategia

## Nafarroako Gobernua 2023

### Laguntza teknikoa

LURSAREA, Agencia Navarra  
del Territorio y la Sostenibilidad

### Diseinua eta maketazioa

Heda Comunicación

**EDUKIEN TAULA**

<b>1. SARRERA</b>	<b>4</b>	<b>4. ENS-2030·NEJ-REN GOBERNANTZA-SISTEMA</b>	<b>61</b>
1.1. Nafarroako Estrategia Jasangarria - ENS 2030 NEJ	5	4.1. Administrazioako gobernantzari buruzko orientabide orokor batzuk	62
1.2. Jasangarritasun kontzeptuaren historia laburra	7	4.2. Gobernantza-organoak	63
1.3. 2030 Agendak	8		
1.4. Jasangarritasun alorreko jardunbide egokiak	10	<b>5. EBALUAZIO ETA JARRAIPEN PROZESUAK</b>	<b>70</b>
1.5. Eskala anitzeko gobernantza	11	5.1. Jasangarritasunean dituen ondorioak ebaluatzeko prozesu orokorra	71
1.6. Arau esparrua	12	5.2. <i>Ex ante</i> prozesua: ekimen publikoen diseinuaren ebaluazioa	77
1.7. Parte-hartze prozesua	14	5.3. <i>Ex-post</i> prozesua: ekimen publikoen emaitzak ebaluatzea	79
		5.4. Adierazle-sistema	81
<b>2. HELBURUA, PRINTZIPIOAK ETA EKINTZAK</b>	<b>17</b>		
2.1 Xedea eta helburuak	18	<b>I. ERANSKINA: JARDUNBIDE EGOKIEN ANALISIAK</b>	<b>87</b>
2.2 Printzipioak	19		
2.3 Las acciones de la ENS·2030·NEJ	20		
<b>3. ARLO ESTRATEGIKOAK</b>	<b>21</b>		
3.1. Klima-aldaketa	25		
3.2. Trantsizio energetikoa	30		
3.3. Kultura eta ondarea	35		
3.4. Ekonomia berdea	41		
3.5. Kohesio soziala	48		
3.6. Konpromiso partekatua	55		



# 1 Sarrera





# 1. SARRERA

## 1.1. NAFARROAKO ESTRATEGIA JASANGARRIA - ENS 2030 NEJ

ENS 2030 NEJren helburua da **tresna erabilgarri bat taxutzea Nafarroaren garapen jasangarriari laguntzen dioten ekimen publikoak ebaluatze**ko.

ENS 2030 NEJ, horrenbestez, **esparru-dokumentu** bat da, eskualde- eta toki-eremura ekartzen dituen garapen jasangarriari buruzko nazioarteko ebazpenak, eta, bereziki, Nazio Batuen 2030 Agenda.

Nafarroan 2030 Agendan zehazturiko Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) bidea egiteko, koordinazioa, partaidetza eta erabakimena lantzeko espazioak behar dira hainbat maila eta eremutan, eta barnean hartu behar dira Foru Administrazioa bera eta inplikaturako eragile erabakigarriak. Beraz, **governantza-sistema egoki bat behar da ordezkarritza-maila guztietan eta diseinu- eta gauzatze-fase guztietarako** (proiektu-zikloa). Sistema horrek, organoetatik abiatuta, Nazio Batuen 2030 Agendan sustatutako garapen-ereduarekiko benetako konpromisoa egituratu behar du.

Governantza-sistema hori babesteko, ENS 2030 NEJek (Estrategia Navarra Sostenible 2030 Nafarroako Estrategia Jasangarria) **prozedura egokiak ezartzen ditu ekimen publikoek garapen jasangarrian duten eragina aztertze**ko. Prozedura horiek diseinatze

ko, gobernantza-printzipioak uztaurik ageri dira, batetik, jasangarritasunaren hiru dimentsioekin, eta, bestetik, 2030 Agendaren bost esparru nagusiekin: pertsonak, planeta, oparotasuna, bakea eta aliantzak (People, Planet, Prosperity, Peace and Partnership, ingelesez, hau da, 5 P-ak). Agendaren bost esfera horiek garrantzi kritikoa dute gizateriarako eta planetarako, Nazio Batuen Erakundeak 2015eko azaroaren 25eko A/RES/70/1 Ebazpenean (1. orrialdea) finkatu zuenaren arabera.

Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030ek **bere gain hartzen ditu jasangarritasunaren gobernantzaren lau printzipio gidariak**; hau da, onargarria, bideragarria, bidezkoa eta justua izatea. Horretaz gainera, printzipio horiek eta **estrategiaren helburu orokorrek politika eraldatzaileak bilzen dituzten arlo estrategikoak eratzeko aukera ematen dute**, zeinak ekimen eragileetan banakatzen baitira (planak, proiektuak, estrategiak,

eta abar). Gainera, **bost esferekin (5 P) lerrokatutako** arlo estrategiko bakoitzerako, ENS 2030 NEJ arautzen duten jasangarritasun-ezaugarriak definitzen dira. Nolaketasun edo balio horiek **ebaluazio integraleko irizpide gisa balio dute**, hau da, **jasangarritasuna lortzeko orientabide gisa**, ekimen publiko berrien diseinua eta aplikazioa ebaluatze

ko, haien ondorioen bilakaeraren aurreikuspen prospektibo gisa. Horretaz gainera, baliagarriak dira ekimene

n aplikazioak jasangarritasunean izan dituen inpaktuak edo ondorioak ebaluatze

ko irizpide gisa, eta, hala, prozesuaren ebaluazio integrala bermatzen da. ENS 2030 NEJko balio horiek definitzerakoan, 2030 Agendako bost esparruen eta Nafarroako diagnostiko sozioekonomikoaren eta lurralde-diagnostikoan jasotako

en ildo beretik jo da.

Finean, tresna-multzo horrekin, Nafarroako Gobernuak politika publiko jasangarrien diseinuan eta ebaluazioan eta eskualdearen garapen adimentsuan laguntzen du. Gainera, jasangarritasunean dituen ondorioak ebaluatze

ko prozedura espezifiko bat instituzionalizatzen du, politika publikoak ebaluatze


ko prozedura orokorrekin batera (politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatze

ko 21/05 Foru Legetik eratorritako prozedurak).





## JADANGARRITASUN KONTZEPTUAREN DENBORA-LERROA



**1. irudia:** Jasangarritasun kontzeptuak eta garapen jasangarriak Nafarroako Foru Komunitatean izan duen bilakaera eta denbora-lerroa. Iturria: guk geuk egin.




## 1.2. JASANGARRITASUN KONTZEPTUAREN HISTORIA LABURRA

Garapen jasangarriaren kontzeptua pixkanaka eboluzionatuz eta sendotuz joan da 1987an egin ziren lehen formulazio teorikoetatik (Brundtlanden *Our Common Future* txostena, NBE), harik eta XXI. mendeko hirugarren hamarkada honetara iritsi arte.

1992an, 21 Programa ezarri zen, garapen jasangarriaren arloan toki-maillako akordioak formalizatzeko ekintza-plan gisa, eta Ingurumenari eta Garapenari buruzko Rioko Adierazpenarekin finkatu zen terminoaren irismena. Izan ere, haren printzipioen artean ageri denez, *“gizakiak dira garapen jasangarriarekin lotutako kezken erdigunea”*, Ildo horretan, *“ingurumenaren babesak garapen-prozesuaren parte izan beharko du, eta ez da hartzen ahalko modu isolatuan”*, eta, horretarako, ezinbesteko baldintza izanen da *“bizi-mailetan desberdintasunak murriztea eta munduko herri gehienek beharrei hobeki erantzutea”*.

Foru Komunitatean ez zen sartu jasangarritasunaren kontzeptu integrala 1999. urtera arte, orduan egin baitziren lehenbiziko Tokiko Agenda 21ak. Eta ordukoa da, orobat, Iruñerriko Eskualdeko Hirigintza Arauak onesten dituen Foru Dekretua, zeinean hiri-garapen jasangarria eta kohesio eko-



**2. irudia:** Garapen jasangarriaren eredia eta Europar Batasunaren lehen txostenetik hartua. **Jatorrizkoa** Johann Dréo egilearena da (Creative Commons lizentziarekin hartua).

1\_NAZIO BATUAK (1987): “Our Common Future”.

nomikoa eta soziala aipatzen baitira. Aldez aurretik, kontzeptua partzialki erabili zen, eta finantza-jasangarritasunaz hitz egiten zen Toki Administrazioari buruzko Foru Legean (1990ekoa, gaur egun indargabetua). Edo Naturaguneei buruzko Foru Legean *aprobetxamendu iraunkorra* adierazten da. Bestalde, Urbasa eta Andiako Parke Naturalari buruzko Foru Legearen kasuan (1997), aipatzen da basoaren aprobetxamendu ordenatu eta arrazoizkoaren arrazoia gaur egun pil-pilean dagoen garapen jasangarriaren teoria ospetsua dela, eta Nafarroako Errege Bardea natur parke deklaratzeko duen Foru Legean, berriz, ingurumen-balioak *egungo eskaerekin eta etorkizunean garapen jasangarriaren ikuspegitik sortzen ahal direnekin harmonizatzeko*.

2000. urtean, Nazio Batuen Erakundeak Milurteko Garapen Helburuak onetsi zituen. Nazio Batuetako herrialde kideek lehenbiziko helburu batzuk proposatu zituzten, 2015era bitartean lortu beharrekoak, pobrezia eta desberdintasunei, hiesari, garapen jasangarriari, garapenerako lankidetzari eta halako erronka globalei erantzuteko. Nazioarteko beste dokumentazio eta konpromiso batzuek beste erronka global batzuk gehitu zituzten, hala nola klima-aldaketa, erregai fosilekiko mendekotasuna, globalizazioa, erronka demografikoa, finantza-krisien ziklikotasuna, aztarna ekologikoa, baso-soiltze globala, eta abar.

Azken berrogei urteotan, inguruabar sozioekonomikoan izan diren aldaketa ugari eta etengabeek mahai gainean paratu dute jasangarritasun kontzeptuaren hiru dimentsioak –hau da, garapen eredu berrien ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-dimentsioak– integratzearen garrantzi gero eta handiagoa. Ingurumen-dimentsioa oparotasunean eta efizientzia ekonomikoan integratzeko premiari erantzuten dio, ezinbestean gizarte-kohesioarekin eta elkartasunarekin batera.

2030 Agendarako Nazio Batuen Adierazpenak berak dioenez, *“konpromisoa hartzen dugu modu orekatu eta integratuan lortzeko garapen jasangarria hiru dimentsioetan –ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa–”*. Konpromisoa, oreka eta integritasuna bihurtzen dira, horrenbestez, garapen jasangarriaren printzipio, balio edo ezaugarri (ikus 2. kapitulua). Hori horrela, **jasangarritasunaren ikuspegia** ezartzen da eskualde-garapeneko proiektu, plan edo estrategia batek **hiru dimentsioetan** jarduten duenean eta ekintza **onargarria, bideragarria, bidezkoa** eta **justua** denean.



- **Onargarritasuna** nolakotasun bat da, eta lurralde batean ageri diren baliabideen aprobetxamenduak eta lurraldean bizi den gizartearen eza-gutzak, trebetasunak eta gaitasunak bat egiten dutenean eskuratzen da.
- **Bideragarritasuna**, berriz, aurreikusitako jarduketak finantzen eta aurrekontuen ikuspegitik gauzatzen ahal denean eskuratzen da, betiere ez badira arriskuan jartzen jarduketa horiek ezartzen diren lurraldearen baliabideen eta ingurumen-kalitatea.
- **Ekitateari** dagokionez, aurreikusitako jarduketak dimentsio sozialari eta ekonomikoari lotuta daudenean lortzen da: eragileek ongizate-estaturako sarbide orokorra eta bizi-kalitatearen baldintzak bermatzea dakar berekin.
- **Justizia**, azkenik, garapen jasangarrirako belaunaldien arteko konpromisoa bermatzen duen nolakotasuna da; hau da, "inor atzean utzi gabe" eta, gainera, jarduten duen gizartearentzat ondare bihurtzen da lurralde hori (lurralde-kapitala).

Lurralde- eta eskualde-garapenaren jasangarritasuna lortzen da ebaluatutako ekintza aldi berean **onargarria, bideragarria, ekitatiboa** eta **bidezkoa** denean. Lurralde-eragina bidezkoa izanen da garapen jasangarriaren belaunaldi arteko konpromisoa bermatzen duenean: *"Egungo belaunaldiaren beharrak asetzea etorkizuneko belaunaldien gaitasuna arriskuan jarri gabe"* (Brundtland txostena). Hau da, eremu geografiko horretan jarduten duen gizartearentzako ondare bihurtzen da.

### 1.3. 2030 AGENDAK

Nazio Batuen Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako Agenda 2030 onetsi zuen 2015ean; bide orri unibertuala da, pobrezia amaiara emateko, desberdinkeria eta injustiziaren aurka borroka egiteko eta klima aldaketari aurre egiteko.

Agenda 2030ek garrantzi kritikoko bost eremu ezartzen ditu gizateriarantz eta planetarako: pertsonak, planeta, oparotasuna, bakea eta aliantza. Horiei dagokienez, 17 helburuak eta haien 169 jomugak garatzen dira 2030era arte.



3. irudia: 2030 Agendarako bost esferak eta Garapen Jasangarrirako Helburuak. Iturria: Nafarroako Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda.



Helburuak unibertsalak dira eta herrialde guztiei eragiten diete, haien garapen maila edozein dela ere, eta garapen jasangarriaren hiru dimentsioak uztartzen dituzte: ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa. Bost esfera horiek garapen jasangarrirako hiru dimentsioetan uztartzen dira, zeinak ere elkarri loturik baitaude. 2030 Agendarekin bat egitea GJHen jarraipenarekin eta irismenarekin konpromisoa hartzea da.

2017ko martxoaren 15ean, Nafarroako Gobernuak akordio bat egin zuen Departamentuarteko Batzorde bat sortzeko. Batzorde horren helburua zen Nafarroako Gobernuaren politiken, programen eta jarduketan inguruko txosten bat egitea, Garapen Jasangarrirako Agenda 2030ek dakartzan erronkei aurre egin ahal izateko.

2019ko apirilean, Nafarroako Gobernuaren erabakiaren bidez, Agenda 2030ekin bat egin zuen eta 2030 Agenda Nafarroaren Garapen Jasangarrirako txostena argitaratu zen. Txosten horretan, foru-eskumeneko politika publikoen lerrokatzea laburbiltzen zen. Dokumentu horietan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren plan eta politiken eta garapen jasangarrirako helburuen arteko harremanak eta loturak ezartzen ziren, bai eta 2030 Agenda Nafarroaren Garapen Jasangarrirako txostenean deskribatutako xedeak ere, departamentuarteko batzordeak egindako azterketetan oinarrituta.

Departamentuarteko Batzorde hori eratu ondotik (Nafarroako Gobernuko departamentu guztietako ordezkariak parte hartzen dute batzorde horretan, Zuzendaritza Nagusien bidez, eta, gaur egun, Nafarroako Gobernuko lehendakaria da buru), txostena egiteko beharrezko lanei heldu zioten. Txosten horretan jasotzen zen zer egoeratan dauden Garapen Jasangarrirako Helburuak Nafarroan, eta horietako bakoitzerako Nafarroako barne-politikarako eta garapenerako lankidetzarako orientabideak berrikusi ziren. Txostenak Garapen Jasangarrirako Helburu guztiak aztertu zituen, baita haien xedeak ere. Horrela, bi orientazio jasotzen ditu: barnekoa (Nafarroan aplikatu beharreko planak, proiektuak eta estrategiak) eta kanpokoa (nazioarteko garapenerako lankidetzarako politika). Era berean, bi orientabideei buruzko mugarrak ere aipatzen dira. Gainera, helburu horiek lortzeko prozesua egiaztatzeko adierazle garrantzitsuak jorratu ziren, Europar Batasunak Nafarroako errealiterara egokitutako

adierazleen multzoa erreferentziatzen hartuta. Ondoren, Nafarroan 2030 Agenda ezartzeko ekintza-plan bat egin zen, ekintza hauen inguruan egituratuta:

1. Adierazle-sistema
2. Jarraipen-sistema
3. Genero-transbertsalitatea
4. Lurraltera egokitzea
5. Jabetzea
6. Zabalkundea
7. Hasierako txostena eta aurrerapen-txostenak bidaltzea
8. Hizkuntza ofizialak (gaztelania eta euskara)

Informazio hori guztia <https://gih-2030agenda.navarra.es/> atarian txertatu zen.

Ondoren, Batzorde Betearazlea eratu zen, Nafarroan 2030 Agenda maila politiko administratibo gorenean ezartzen laguntzeko. Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusiak koordinatzen du Batzorde Betearazlea, eta zuzendari hauek osatzen dute: Lurralde Antolamendukoak; Aurrekontu, Ondare eta Politika Ekonomikokoak; Enpresa Politika, Nazioarteko Proiektzioa eta Lanekoak; Ingurumenekoak; eta Kultura eta Vianako Printzea Erakundeak.





#### 1.4. JASANGARRITASUN ALORREKO JARDUNBIDE EGOKIAK

Estrategia ahalik eta osatuena egiteko, aldez aurretik azterlan bat egin da, nazioko zein nazioarteko herrialde edo eskualdeen garapen jasangarriko estrategietan sakontzera zuzendurik (ikusi I. eranskina).

Aldez aurreko azterketa horren bidez, beste espazio batzuetako esperientziatik ikasi nahi da; horretarako, jardunbide egokiak ateratzen dira, Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030 egiteko erreferentzia-puntu izan daitezzen.

ENS 2030 NEJ idazteko funtsezko alderdietako bat da haren gobernantza-sistema diseinatzea: oso-osokoa izan behar du, eta proiektu-zikloaren fase bakoitzarekin lotutako jarduerak bildu behar ditu. Hasi sortzen denetik, harik eta jarraipen- eta ebaluazio-faseraino. Egindako azterketatik, estrategia honetan aplikatu beharreko funtsezko zenbait alderdi ateratzen dira.

- **Arlo estrategikoetako** planak, proiektuak eta estrategiak eta **politika eragileak antolatzea**, Nafarroan garapen jasangarriko helburuak eta jasangarritasunaren izaera **lerrokatzeko, kokatzeko eta barneratzeko**.
- Jomugan adierazleekin koherentea den lerrokatze-sistema bat zehaztea, eta bereziki indartzea Foru Komunitateko eskualde-garapeneko estrategiek jasangarritasunean dituzten ondorioen **jarraipenerako agintetaula** ezartzea ahalbidetzen duten adierazleak.
- 2030 Agendarekin bat egiteko administrazio-prozeduren jarraipena egitea, departamentuen planak eta ekintzak diseinatzea, ENS 2030 NEJ-rekin konpromisoak hartzea, eta Foru Komunitatearen **garapen jasangarriaren irismena eta ondorioak**.
- Jarraipen-organoak, inplikaturako eragile guztiek ezagutu ahal izan dituzaten ondorio horiek, gobernu-ekintzen eta -planen eraginkortasuna, eta arlo estrategikoen eta politika eragileen arteko lotura.
- Estrategia hau egiteko izanen da beste erreferentzia-puntu bat, jardunbide egoki gisa; hain zuzen ere, 2030eko Garapen Jasangarriko Kanarietako Agendatik hartua. Finean, **taula sintetiko** bat egitea da, **gai nagusien bost esparruetako bakoitzerako 2030 Agenda arautu behar duten balioak azaltzeko**. Ideia hori Nafarroara egokituta eta bost esparru nagusi horiei dagokienez, jasangarritasunaren dimentsioei eragiten dieten fenomeno global batzuk antolatuko dira (dimentsio strategi-



koak), gobernanzarako printzipioak eta balioak ordenatzeko eta sailkatzeko aukera ematen dutenak, bai eta politika eragileak eta loturiko politika publikoak ere. Gainera, emaitzaren arabera, adierazleak ordenatzen eta lehenesten ahalko dira, adibidez, Garapen Jasangarrirako Helburuekiko, balioekiko eta politikekiko duten erlazio-kopuruari dagokionez (ikus 5.1 apartatua, 2. taula).

- Lurralde Politikako Ministerioak garatutako politika publikoak ebaluatzeko gidaliburu metodologikoetan eta eskuliburuetan erabilitako **ebaluazio integralerako metodologia**.

Gainera, gobernantza-sistema horrek palanka bidezko politiken jarraipenera bideratuta egon beharko luke. Garapen Jasangarrirako Helburuen jomuga kopuru aldakor batean eragiteko gai izanen baitira. Politika horiek bizkortuko dute, hain justu, Garapen Jasangarrirako Helburuen ezarpena, bai dimentsio kuantitatiboan (jomugen adierazleak), bai jasangarritasunaren printzipioen eta balioen jarraipen kualitatiboari dagokionez. Horixe izan da abiapuntua, Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030 garatzeari ekiteko orduan.

### 1.5. ESKALA ANITZEKO GOBERNANTZA

Eskala anitzeko gobernantza da ENS 2030 NEJen erronka. Jasangarritasunaren kontzeptuaren sorreratik ageri da "globaltasunean pentsatzeko eta tokian tokikoan jarduteko" ikuspegia. Aurretik azaldu bezala, garapen jasangarria sustatzeko modurik onena da parte-hartzea eta subsidiarioritasuna bermatuko dituen gobernantza-sistema bat ezartzea, eskumen- eta aplikazio-eskalara egokituriko politikek erantzukizunez erantzun diezaizaten ukituriko gizartearen interesei, guztia ere gardentasunez, koherentziaz, proportzionaltasunez eta eraginkortasunez.

ENS 2030 NEJek eskualdeko ikuspegi estrategikoa ezartzen laguntzen du, jasangarritasunak politika publikoen diseinuan gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-dimentsioetan izan behar duen esanahiari eta irismenari buruz. Ikuspegi estrategiko horrek ere laguntzen du eskala anitzeko izaera horretan. 2030 Agenda eskualdeko plangintza estrategikoari aplikatu dakiokeen tresna bat da, eta, ildo horretan bertan, erakunde pribatuen erantzukizun sozial korporatiboari ere ezartzen ahal zaio. Hori horrela, ENS 2030 NEJek eskualdeko garapen jasangarria bideratu nahi du, baina, horrekin batera, tresna erabilgarria izan nahi du Foru Komunitateko administrazio eta erakunde guztientzat.

Horretarako, ENS 2030 NEJ egiteko prozesuan, 2030 Agendarekin lotutako eragile motak aztertu dira. Horri esker, estrategia hau ezartzeko ekarpenak jaso ahal izan dira.

Orotara 572 erakunde aztertu dira, zeinei Nafarroako Gobernuak hainbat laguntza-mota eman baitizkie jardura kulturaletarako, integrazioarako, esparru soziosanitariorako, laneratzeko eta abarretarako. Laburpen honetan daude jasorik:

Ingurumen jarduerak	0,5
Kultura jarduerak	6,5
Kirol jarduerak	14,0
Jardura soziosanitarioak	7,5
Talde profesionalak	10,0
Gizarte elkarteak	18,0
Gizarte-ekonomia / Tokian tokiko ekintza	4,5
Hezkuntza / I+C	4,5
Enpresa	23,5
GKEak / Gizarte-elkarteak	10,0
Prentsa / komunikazioa	1,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>
	<b>572 entitate</b>

2030 Agendarekin lotutako eragile moten azterketak erraztu egin du ENS 2030 NEJ egin bitartean inplementatutako parte-hartze prozesua diseinatzea eta lantzea, hurrengo epigrafean zehazten den bezala.



## 1.6. ARAU ESPARRUA

Nafarroak berezko eskubide historikoak ditu, foruak; ongi definituriko nor-tasuna duen gizartea du, iragan kolektibo bat duena, guztia ere gure on-dare historiko eta kulturalaren espezifikotasunean oinarritua, sistema ekonomiko berezi eta propioarekin. NFEBHLOn bertan lotzen dira Nafarroaren gaitasunak jasangarritasunaren dimentsioekin, Nafarroak bere baliabideak eta eskumenak kudeatzeko duen gaitasuna aitortzen baitu, gizarte-premiei dagokienez.

Eskualde-eskalatik eta eskumenak egikaritzearen bidez, esku-hartze publikoa eta instituzionalizazioa aldi-aldi gauzatu dira Foru Komunitatean. 2005. urtean, Nafarroa aitzindaria izan zen estatu osoan, lehen aipaturako 21/2005 Legea onetsi ondotik. Lege horrek, garapenaren lehen fasean, hedapen zabala izan zuen, bai arauen eta antolamenduaren esparruan –konparazio baterako, Ebaluaziorako Foru Batzordea (2006), Kalitate Zerbitzua (2005-2011), Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoen Kalitatea Ebaluatzeko Erregistroa (2007) eta beste zenbait-, bai metodologiaren esparruan ere, askotariko baliabideak eta tresnak garatzeari esker. Hartara, Nafarroak gaur egun baditu, adibidez, politika publikoen jarraipenarekin eta ebaluazioarekin lotutako terminoen glosario bat, politika publikoetarako baldintza teknikoaren agiriaren edo ebaluazioak egiteko lan-planaren eredu bat, ebaluagarritasun-protokolo bat, Nafarroako ebaluazio-sistema publikoari buruzko liburu bat, edo esku-hartze publikoen ebaluazioa kudeatzeko koaderno bat.

Estatuan ebaluazioaren kultura sortzen ari zen garai hartan –kontuan izanik artean eratu gabe zegoela Politika Publikoak eta Zerbitzuen Kalitatea Ebaluatzeko Estatuko Agentzia, AEVAL, 2008an sortua-, ebaluaziorako haien egokia ez zen inguruabar hartan, ez zen erabat finkatu hedapen-fase hura Nafarroako Foru Komunitatean. Hori horrela, konstriktzio-fase bat gertatu zen, zeinean Batzordeak elkartzeari utzi baitzion eta Kalitateko Zerbitzua desagertu egin baitzen. Gertaera hori krisi ekonomiko handi batekin eta Foru Gobernuetan izandako aldaketekin batera etorri da. Hala eta guztiz ere, esparru metodologiko sendoa utzi zuen Nafarroan, baita arlo horretan aurrera egiteko behar adina tresna eta baliabide ere. Horrekin guztiarekin, ebaluazio-sistema integral bat eratu zen.


Gaur egun, konstriktzio-fase haren ondotik, Nafarroako Gizarte Errealitatearen Behatokiak hartu du Nafarroan politika publikoen ebaluazioaren eginkizuna berreskuratzeko eta instituzionalizatzeko ahalegina, guztia ere sektorekako ikuspegiarekin (gizarte-politikak) eta Lursarea-Nafarroako Lurralde eta Jasangarritasun Agentziaren eskutik. Hala, begirada transbertsalagoz erreparatzen die lurralde-inpaktua duten Gobernuaren politika publikoen ebaluazioari eta jasangarritasunari.

Estrategia hori sortzen den errealtatean, gero eta itxaropen handiagoak ditugu politika publikoetan, eta nahi dugu politikok eginkizun gehiago hartzea beren gain, erabateko jasangarritasunerako trantsizio horretan sortzen ari diren premiei eman beharreko erantzunak aurreratu eta bideratzeko. Inguruabar sortu berrietan, tresna berritzaileak, errazak, erabilgarriak eta eraginkorak izanen dira bai ENS 2030 NEJ bera, bai hari dagokion aplikazio-gida, erantzun integralak jartzeko ekimen publikoen arduradunen eskura. Berrikuntza horrek, estrategiaren garapenean aurrerago ikusiko den bezala, esku-hartze horrek jasangarritasunean izanen dituen ondorioak aurreratzeko aukera ematen du besteak beste, parte-hartze aktiboaren bidez edo politikaren plangintzatik eta diseinutik abiatuta. Hori urrats bat harago doa, eta aukera ematen du jasangarritasunari transbertsaltasunez begiratzeko eskualde-politika guztietan (1. irudia). Politika horiek, beste ekimen estrategiko batzuekin orpoz orpo, Agenda 2030eko Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzeko bidean aurrera egitea ekarriko dute.





# ESKU-HARTZE PUBLIKOAREN BILAKAERA ETA JARRAIPENA



4. irudia: Esku-hartze publikoaren ebaluazio integralaren zikloari buruzko diagrama. Iturria: guk geuk egina.



## 1.7. PARTE-HARTZE PROZESUA

Nafarroako egungo esparru juridikoaren arabera, herritarren parte-hartzea funtsezko faktorea da ekimen publikoak ezartzeko eta ebaluatzeko. Parte-hartzeak gizartearen (biztanleria eta erakundeak) iritzia formulazio-etapa batzuetan eta besteetan txertatzea ahalbidetzen du, eta, horri esker, ekintza eraginkorragoak sortzen dira, gertuago daudenak biztanleriaren benetako beharretatik. Hau da, beste gobernantza-printzipio batzuekin lotzen da parte-hartzea, hala nola irekitasunarekin, eraginkortasunarekin, subsidiarioritasunarekin eta abarrekin.

Herritarren parte-hartzearen bidez, herritarrek politika edo erabaki publikoei buruz proposatutako iruzkinak txertatu nahi dira. Kasu honetan, parte-hartzeko prozesuak herritarren orientabideak txertatu nahi izan ditu Gobernuaren erabakietan. ENS 2030 NEJ Nafarroak eta Nafarroarentzat egindako tresnatzat hartzeko, partaidetzan oinarrituriko zenbait prozesu diseinatu dira, eta gizarteko, lurraldeko eta erakundeetako pertsonak ez ezik partikularrak ere inplikatu dira haietan.

Era berean, aintzat hartu behar da ENS 2030 NEJ Nafarroako Gobernuko departamentuek eginiko plan, proiektu eta estrategien bilduma bat dela, eta, hura egiteko, departamentuek ezinbestean txertatu dituztela aurrez beren parte-hartze prozesuak. Hots, strategiak eta planak koordinatzeko estrategia bat da. Izan ere, jarraipen-sistema kontuan hartzen da horiek guztiak oro har ebaluatzeko, eta orientabideak ematen ditu haiek ezartzekoan desiragarriak diren balioen arabera.

ENS 2030 NEJ diseinatzeko partaidetza-prozesuaren helburu nagusia izan da adostasuna sortzea garapen jasangarriari edo jasangarritasunari laguntzen dioten gobernu-ekintzako politiken jarraipen-sistemaren irismenaren alorrean (2030 Agendarekin lerrotzea).

Agenda 2030ekin bat etortzea bi ikuspegitatik hartzen da kontuan: batetik, gobernu-planen eta -politiken ekintzen eta Garapen Jasangarriko Helburuen adierazleen arteko lotura, eta, bestetik, jasangarritasunean izandako ondorioak (izaera, printzipioak eta balioak).

Dokumentu hau Nafarroak eta Nafarroarentzat egindako agiri bat izan dadin, parte hartzeko prozesu hau gauzatu da (5. irudia).

### Parte hartzeko prozesuan jasotako ekarpenak

Aurreko diagraman zehazten den bezala (5. irudia), prozesu horretan egindako ekintzen artean ageri dira, hain justu, herritar guztiei irekitako bi inkesta, eta haietan oinarriturik prestatu ziren partaidetzan oinarrituriko hurrengo bi tailerrak. Bi tailerrak Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030 lantzeko parte-hartze prozesuaren **deliberazio-fasean** txertatzen dira.


Lehenbizikoan (herritarren parte-hartzea), jasangarritasun-eragileek, administrazio publikoetako teknikariek, GKEek, aholkularitzek eta herritarrek parte hartu zuten, alde zuzenetik izena emanda. Nafarroan jasangarritasunaren izaera, printzipioak eta balioak zabaltzera bideratuta zegoen, eta jakinarazi zuen Agenda 2030 txertatu zela Nafarroako politika instituzionaletan eta haren ebaluazio-mekanismoetan. Era berean, politika publikoek jasangarritasunean duten eragina ulertzen laguntzea izan zuen helburu, eta, azkenik, tailerrean parte hartu zuten eragileen iritzia txertatzea ENS 2030 NEJen diseinuan.

Bigarren topaketa (inplikaturako eragileak jabetzeari buruzkoa) Foru Administrazioeko teknikariei zuzendua izan zen, prestakuntza eta orientazioa izan zitzaizkien jasangarritasun-ikuspegiaren nolakotasunak eta osagaiak aztertzeko prozeduretan. Haren xedea izan zen ENS 2030 NEJen proposamenaren eta mahai gainean paratzen dituen azterketa- eta ebaluazio-prozeduren ezagutza orokorra sustatzea, eta dokumentuan arlo estrategiko bakoitzerako jasotako politika eraldatzaileekiko ekimen eragileen kokapena berrikustea. Eta, azkenik, proposatzen diren ebaluazio-prozesuak taldean probatzea (hau da, ENS 2030 NEJ nork bere egitea).



## PARTE-HARTZE PROZESUA

5. irudia: ENS 2030 NEJ egiteko gauzatu den parte hartzeko prozesuaren diagrama. Iturria: guk geuk egina.





Tailer bakoitzean partaidetza-maila desberdina nahi zen, bai pertsona eta erakunde hartzaileei zegokienez, bai lortu nahi ziren helburuei zegokienez.

Oro har, hogeita hamabost pertsonak parte hartu zuten tailerretan (hamahiru lagunek herritarren tailerrean eta beste hogeita hiruk Nafarroako Gobernuako erakundeei zuzendutakoan). Handiagoa izan zen emakumeen proportzioa (% 58). Bi saioretako profilak Garapen Jasangarriko Helburuekin lotutako arloetako teknikariak izan ziren, eta, kasu batzuetan, 2030 Agendaren ikuspegi integratua zutenak, bai Nafarroako Gobernuo langileen artean, bai erakunde pribatuetan (kolektiboak, elkarteak, unibertsitatea...). Ordezkatutako organoen aniztasunari eta lan-dinamikei esker, ekarpen interesgarriak jaso ahal izan dira (parte-hartzaile kopuru handia ez izan arren), eta ekarpen horiek lagungarriak izan dira ENS 2030 NEJ taxutzeko. Oro har, askotariko edukiak dituzten hirurogeita bost **ekarpen** egin ziren, eta ENS 2030 NEJ hobetzen lagundu dute.

### Tailerretako emaitzei buruz

Bi tailerretan lortutako emaitzek balioespen positiboa dute, oro har. Bildu ziren ekarpenak ENS 2030 NEJ gauzatzeko egindako lanaren ildo berekoak ziren; hori horrela, dokumentuaren azken bertsioan jaso diren ñabardurak eta proposamenak eman zituzten. Jarraian, bakoitzaren ekarpen nagusiak laburbilduko ditugu.

- Lehenbiziko tailerraren emaitzak bi eremu orokorreko buruzkoak dira:
  - lan-arloak, erronkak eta funtsezko jarduerak. Aipatu gabe, bat etorri nahi zuten ENS 2030 NEJren arlo estrategikoekin eta ekimen eragileekin. Tailerreko eztabaida-dinamikan hainbat gai sortu ziren, zeinak bat etorri baitziren estrategian jasotakoekin; era berean, hura aberas-teko aukera eman duten proposamenak ere bildu ziren, besteak beste.
  - Jasangarritasunaren irismenari buruzko bigarren multzoan, aztertu nahi izan zen zer behar azaleratzen ziren jarraipen-tresnen premiekin loturik. Kasu horretan, planteamendua pixka bat urrunago egon zen ENS 2030 NEJen mahai gainean paratutakoetatik, eta Garapen Jasangarriko Helburuen hedapenean eta adierazlearen premian (lerrokatzea eta kokapena) zentratu ziren beharrak, eta ez hainbeste estrategian bertan planteatutako balioetan edo ezaugarrietan (jabetzea).

- Bigarren tailerraren emaitzak, dokumentu osoago batetik abiatuta, alderdi zehatzagoetan oinarritu ziren:

- Arlo estrategikoak, politika eraldatzaileak eta ekimen eragileak baliozkotzean, bat-etortze ugari izan ziren informazio-dokumentuan aurkeztutako proposamenekin. Hala, zenbait ekimen berri eta politika eraldatzaileen kokapenari buruzko ñabardurak proposatu ziren, zeinak dokumentuaren azken bertsioan jaso baitziren. Alorretako politiken eredua eta banaketa baliozkotu ziren.
- Ezaugarrien taula zailtasun handirik gabe aztertu zen, alde aurretik baliozkotu ondotik. Alabaina, balorazio orokorra egiteko, beharrezkoa da *Politika publikoen arduradunentzako Aplikazio Gida* zabaltzea eta baldintza errealetan aplikatzea. Oso garrantzitsutzat jotzen da ENS 2030 NEJ aplikatzeko aurreikusitako prestakuntza, onetsi ondotik gauzatu beharrezkoa (ENS 2030 NEJren 2. eta 3. ekintzak, 2. kapitulua).

Parte hartzeko prozesuei esker, modu positiboan baloratu dira bi tailerretan lortutako emaitzak. Jarraian, estrategia idaztean kontuan hartu diren ekarpen nagusiak laburbiltzen dira:

- Pertsonak eta erakundeak, oro har, partzialki lerrokaturik dihardute 2030 Agendarekin. Hau da, Garapen Jasangarriko Helburuak eta dagozkien diziplinen ondorioak sustatzeko joera dute. Garapen jasangarriaren ereduaren emaitzak ondorioak izaten ahal ditu proposatzen den jasangarritasunaren ikuspegian, kontuan izanik integrala eta orekatua dela.
- Parte-hartzaileek egokitzen jo dute jasangarritasunaren ikuspegia ezaugarritzea, haren osagaiak, ezaugarriak eta 2030 Agendaren helburuekiko eta Garapen Jasangarriko Helburuekiko harremanak kontuan hartuta. Balioetsi dute kalitateak balioesten direla, eta ez kantitateak (hots, *kantitateak*).
- Parte-hartzaileek egokitzen jo dute zer-nola hartu diren kontuan 2030 Agendaren barruan bilduriko lerrokatze, lokalizazio eta jabetze kontzeptuak, Nafarroako Foru Komunitatearen errealitateara egokituta. Era berean, irizten diote esplizituki jaso behar dela ENS 2030 NEJren aplikazio-gidan.








# 2

## Helburua, printzipioak eta ekintzak



## 2. ENS 2030 NEJ-REN HELBURUA, PRINTZIOAK ETA EKINTZAK

### 2.1. XEDEA ETA HELBURUAK

Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030 edo ENS 2030 NEJren xede nagusia da Nafarroako politika publikoen jasangarritasuna aztertzeke eredu bat ezartzea, 2030 Agendak garapen jasangarrirako: **planetarako** , **oparotasunerako** , **pertsonetarako** , **bakerako**  eta **aliantzetarako** , jasotako bost esferen integrazioan oinarrituta; horrela, **2030erako Agenda** ezarriko dela eta garapen jasangarriko eredu bate-rantz aurrera eginen dela bermatuko da, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen dimentsioen integrazioan oinarrituta, hau da, ekonomia berderako trantsizioan, kohesio sozialean eta elkartasunean.

**Helburua da Nafarroako Foru Komunitateko politika publikoek jasangarritasunean duten eraginaren ebaluazio integralerako prozedurak ezartzea, bai diseinuan, bai emaitzetan.**

Helburu hori lortzeko, premisa hau hartu da abiapuntutzat: esku-hartze publikoaren zikloa eta proiektuarena ez dira oso desberdinak, eta fase guztien ebaluazioa hartu behar du kontuan, diseinuan zein jarraipenean edo emaitzetan, hala bakarrik lortuko baita ebaluazio integral bat izatea, erdietsi nahi diren helburu eta ondorioekin koherentea izanen dena. Esku-hartze edo proiektu baten zikloaren logika hori **ikuspegi sistemiko** batetik aztertu behar da, hau da, **eskala, maila eta diziplina anitzeko** molde batetik, gobernuaren jardunerako gida gisa.

Hartara, arazo edo behar berak askotariko hurbilketak izaten ahal ditu, eta hurbilketaren ikuspegiaren arabera aldatuko da haren tamaina; horregatik, askotariko ikusmoldeak baliatzeak diagnostiko zuzena bermatzen du eta arazoari irtenbide holistikoa ematea ahalbidetzen du. Horixe da, hain zuzen ere, ENS 2030 NEJek diseinuari dagokionez aurrez aurre duen erronka handienetako bat: kudeaketa politikoko osagai guztien arteko oreka bat da, maila gorenekoa.

**Eskala anitzeko** terminoak, lurralde- eta eskualde-garapenari loturik, ikuspegi zabalago bat bilatzea eskatzen du, problematika, konplexutasuna

eta eskala geografiko desberdinak eta horien arteko erlazioak batera kontuan hartzeko beharra aitortuko duena.

Era berean, aurreko epigrafean ikusi den bezala, **maila anitzeko gobernantzaren** ikuspegiari heltzen zaio; izan ere, arreta eskualdeko politiken arduradunengan jartzen duen tresna bat diseinatzen da, baina jakinik tresna horren aplikagarritasuna alderdi interesdun eta eragile guztientzat pentsatuta dagoela -tokiko eta eskualdeko agintarientzat, herritarrentzat, enpresentzat, unibertsitateentzat eta abarrentzat-. Agintarien eta alderdi interesdunen artean koordinatutako ekintza bihurtzen saiatzen da, gobernu-maila guztietan erantzukizun partekatua lortzeko bidean.

**Diziplina anitzeko** ikuspegiak, era berean, arazora edo errealitatera modu segurua goan hurbiltzea ahalbidetzen du, eta saihestu egiten ditu arazoa lantzen den arlo tematikoen arabera areagotu, murriztu edo normalizatzen duten hurbilketa-joerak.

Estrategia gauzatzeko baliatu den ikuspegi sistemikoari esker, trantsizio konplexuak ulertzen ahal dira, hala nola jasangarritasunarena, kontuan izanik jarduera, ezagutza-arlo, eragile eta lurralde-eskala ugarik esku hartzen dutela fenomeno horietan. Dimentsio anitzeko ikuspegi bat da, eskala handiko trantsizio sozioteknikoak ulertzeko eta aztertzeke sistemetan oinarritua (Geels, F. W., 2019).

2030 Agenda bera adibide bikaina da: dimentsio ugaritan lan egiteko erreminta bat da, eskala, maila eta diziplina batean baino gehiagotan esku hartzen duena. Ikuspegi hori da jasangarritasunaren kontzeptuaren jatorria: "Globaltasunean pentsatzea eta tokian tokikoan esku hartzea". Garapen jasangarria sustatzeko modurik onena da parte-hartzea eta subsidiaritasuna bermatuko dituen gobernantza-sistema bat ezartzea, politika desberdinek, eskumen- eta aplikazio-eskalara egokiturik, erantzukizunez gardentasunez, koherentziaz, proportzionaltasunez eta eraginkortasunez erantzun diezaieten ukituriko gizartearen interesei (Europako Gobernantzaren Liburu Zuria, 2001).





Horretarako, ENS 2030 NEJek xehe-xehe definitzen ditu gure Foru Komunitatea eraldatzeko eta garapen inklusibo, jasangarri eta iraunkorrerako bide gisa kokatzeko landu behar diren gaiak. Horretarako, jasangarritasunaren hiru dimentsioei (ingurumenekoa, ekonomikoa eta soziala) eta Agenda 2030en gorago adierazitako bost esparruei erantzuten dieten **lau printzipio gidari edo zuzendari** definitzen dira.

## 2.2. PRINTZPIOAK

### Belaunaldien arteko ituna

Lehenengo printzipioa **belaunaldien arteko konpromisoa** da, ingurune naturalarekiko errespetua etorkizuneko herentzia bati begira (lurraldekapitala: ondarea eta gaitasun teknikoak), etorkizuneko belaunaldien beharrak arriskuan ez jartzeko helburua, garapen jasangarriaren kontzeptuaren adiera klasikoaren oinarri gisa. Horixe da jasangarritasunaren muina, eta hark ezaugarritu dezake, orobat, bidezko trantsizioa ere; hots, **inor atzean ez uztea** (2030 Agendaren leloa). Baina, batez ere, eskualdeko espazioaren eta haren baliabideen egungo erabilerak antolatzen ditu (lurralde-dimentsioa). Politika publikoen epe luzerako ikuspegia eskatzen du, aurrekontu-aldietarako berehalako helburuak lortzera bideratutako politika konbentzionalak gaindituz. Gainera, trantsizioei heltzeko, beharrezkoa da **eskala anitzeko gobernantza**. Ez da galdu behar erronka global bati aurre egiteko ikuspegi globala, baina konpromiso indibiduala abiapuntu gisa hartuta, eta, jarraian, gaitasun tekniko, politiko eta administratiboko mailetatik igarota. Era berean, inor atzean ez uzteak eskatzen du hortzak erakustea diskriminazioari eta gero eta desberdintasun handiagoei, baita diskriminazio-modu iraunkorrek atzean uztea ere, genero-diskriminazioa barne.

### Diziplina aniztasuna

Bigarrenik, trantsizioa arazo konplexu bat da, **hainbat diziplinatik jorratu beharrekoa**. Jasangarritasunerantz aurrera egitea, beraz, gizarte osoak, erakunde publikoek, pribatuek, enpresek, gizarte-eragileek eta herritarrek partekatzen duten jarduera bat da. Posible izan dadin, bakoitzak bere parean hartu behar ditu erantzukizunak, 2030 Agendaren trantsizio- eta ezarpen-prozesuetan. Parte-hartze eraginkor eta pluralaren ekarpena ere bada, belaunaldien arteko elkarrizketa justifikatzen duena. Beraz,

pertsonen ongizateari eusteko edo bultzada bat emateko, gobernu-maila askotako (tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa) politika publikotzat hartu behar da erronka kolektibo hori.

### Garapen adimenduna

Hirugarren printzipio gidaria **ekonomia berdean** oinarritutako garapen adimenduna da. Horren parte da ekonomia zirkularra, zeinak aurrez aurre baititu ingurumen-erronkarekin lotutako fenomeno globalak (ikuspegi klimatikoa Foru Komunitatearen inguruan): berotze globalaren kausak **arintzea** eta berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murriztea; ekonomia hipokarbonikoa, klima-aldaketaren ondorioetara **egokitzeko kudeaketa** barnean hartzen duena (egokitzeko estrategiak); antolamendu-, arau-, aurrekontu- eta zerga-aldaketak baliabideen kudeaketari eta plangintzari dagokienez; eta karbono-aztarna kontuan hartzea jarduerak, enplegua eta ekoizpena sortzean. Nazio Batuen Erakundeak honela definitzen du ekonomia berdea: *“Giza ongizatea eta gizarte-ekitatea hobetzen dituen ekonomia, eta aldi berean ingurumen-arriskuak eta estualdi ekologikoak nabarmen gutxitzea dakarrena”*. Finean, naturaren mugak errespetatu garatzea.

### Aniztasuna eta gizarte elkartasuna

Azkenik, jasangarritasunaren dimentsio soziala da laugarren printzipioa. Pertsonak Nafarroako lurralde-garapen jasangarriaren erdigune gisa. Gizarte kohesioa ez da neutroa lurraldeari dagokionez Nafarroan; izan ere, hazkunde ekonomikoa ez da modu uniformean banatzen eremuen artean: batzuk garatu egiten dira, eta beste batzuk, berriz, atzean geratzen dira, biztanleentzako aukera gutxiago sortzen dituzte eta biztanle gazteenak galtzen dituzte, hiriguneetara emigratzen baitute, atzeraelikatzen diren dinamikak sortuz. Jasangarritasunaren gobernantzak, ekintza politikoak eta lurralde-ekintzak pertsonen arteko ekitatea sustatu behar dute, edozein lekutan bizi direla eta jarduten dutela ere.

Gizartea egituratzea eta pertsonen premiak ageri dira garapen jasangarriaren oinarrian, eta jasangarritasunaren beste bi dimentsioak –ekonomikoa eta ingurumenekoa– sustatzeko neurrien eraginkortasunak dimentsio soziala eskatzen du; gaur egungo testuinguruan, enplegua sortzea, erronka demografikoa eta babes soziala behar dituzte.



### 2.3. ENS 2030 NEJREN EKINTZAK

Lau printzipio gidari horiek, planteatutako helburuekin batera, politika eraldatzaileen arlo estrategikoak antolatzen dituzte (3. kapitulua). ENS 2030 NEJek, bere helburua lortzeko, beharrezkoak ditu printzipio gidariak eta, horietaz gainera, horiek ezartzea errazten duten ekintzak.

Horregatik, ENS 2030 NEJk sei ekintza diseinatzen ditu, denbora-muga desberdinekin. Ekintza horiek modu koordinatuan gauzatzeak bermatuko dio Foru Komunitateari jasangarritasunerantz aurrera egitea.

#### 1. taula. ENS 2030 NEJko ekintzak.

EKINTZAK	DESKRIBAPENA	AURREIKUSITAKO HORIZONTEA
<b>1. ekintza</b>	Ekimen publikoek jasangarritasunean duten eraginaren ebaluazio integrala egiteko (ENS 2030 NEJ) eta arduradunentzako aplikazio-gida bat garatzeko prozedura diseinatzea eta inplementatzea. (GIDA).	2023ko urtarrila - apirila (Estrategia hau eta gida onestea)
<b>2. ekintza</b>	Prestakuntza-plan bat garatzea (1-2 hilabeteko iraupena), Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak urtero eskaintzen dituen politika sektorialak garatzeko arduradunak prestatzeko.	2023ko abendua
<b>3. ekintza</b>	Jasangarritasunaren ikuspegiaz jabetzeko eta sentsibilizatzeko tresnak, baita estrategiak eta gidak ezarritako prozedurak ere. (Esaterako, zabalkunde-kanpainak, tailer praktikoak, webinar teknikoak, plan pilotuak, etab.)	2023. eta 2024. urteak
<b>4. ekintza</b>	2030 Tokiko Agendak idazteko gida. (Gaur egun, prestatzen)	2023ko lehen seihilekoa
<b>5. ekintza</b>	Nafarroako Estatistika Institutuaren eta inplikaturako departamentuen koordinazioa, ENS 2030 NEJren estatistika-eragiketak diseinatzeke.	2023ko abendua
<b>6. ekintza</b>	Estrategiaren gobernantza bideratzeko organoen araudia (organoak, prozedura-txostenak, etab.).	2024. urtea

Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030ean aurreikusitako ekintzak Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-ildoetan sartuta garatzen ahalko dira.





# 3

## Arlo Estrategikoak

<b>3.1. KLIMA-ALDAKETA</b>	<b>25</b>
<b>3.2. TRANTSIZIO ENERGETIKOA</b>	<b>31</b>
<b>3.3. KULTURA ETA ONDAREA</b>	<b>37</b>
<b>3.4. EKONOMIA BERDEA</b>	<b>44</b>
<b>3.5. KOHESIO SOZIALA</b>	<b>51</b>
<b>3.6. KONPROMISO PARTEKATUA</b>	<b>59</b>



Eragileena da politika publikoen gaineko erantzukizuna. ENS 2030 NEJren eta haren gobernantza-sistemaren erantzukizuna 2030 Agendako helburuak eta jomugak lortzearekin lotuta dago, nazioarteko konpromisoek ezartzen duten bezala, baina beharrezkoa da Nafarroako errealitatera eta egindako diagnostikoetara egokitzea. Horregatik, Garapen Jasangarrirako Helburu guztiak eta haien jomugak modu homogeen eta integratzen hartzen dira aintzat, nahiz eta, jakina, pisu kualitatibo desberdina izan batzuen eta besteen artean. Era berean, horietako bakoitzak ekarpen desberdina egiten du jasangarritasun-ikuspegiaren helburuak lortzeko.

Garapen jasangarriko eredu berri bati heltzeko, lurralde batean diharduten ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-fenomeno guztien ikuspegi integrala behar da. 2030 Agenda eskualdeko plangintza estrategikorako tresna gisa erabiltzeak erraztu egiten du lana. Era berean, ENS 2030 NEJek tresna erraztaileak, samurrak eta lagungarriak eskaintzen ditu ekimen publikoak diseinatzeko. Nolanahi ere, aurreikusten da gobernantzak eta ebaluazioak prestakuntza egokia beharko dutela 2030 Agenda eta Foru Komunitateko jasangarritasunaren ikuspegia lerrokatzeko, kokatzeko eta bereganatzeko.

Jasangarritasunaren ikuspegia aztertzeak erraztu egiten ditu ekimen publikoak diseinatzeko prozesuak, baita administrazio-prozedurak ere, planak, proiektuak eta estrategiak diseinatzeko unean. Beraz, gobernantza-eta ebaluazio-sistema honek kostuak gutxitzen ditu prozedura guztietan.

Helburu orokorarekin bat etorritik eta garapen jasangarriaren dimentsioak kontuan hartuta, **sei arlo estrategikotan** egituratu da ENS 2030 NEJ. Arlo estrategikoen modu errazean egituratzen dute ENS 2030 NEJ, eta erraztu egiten dute, hala, politika sektorialen arteko koordinazioa. Arlo horietako bakoitzaren analisia lau atal nagusitan antolatu da: diagnostiko bat, egungo egoeraren deskribapenarekin; ahulezia, mehatxu, indar eta aukera nagusiak definitzea (AMIA matrizea); politika eraldatzaileen definizioa; eta gaiarekin lotutako ekimen eragileak (aukerak aktibatzeak eta hauteskundeak arazoak konpontzeko gai direnak). Horren osagarri, bosgarren kapituluak, politikek Foru Komunitatearen jasangarritasunaren dituzten ondorioak neurtzeko adierazle estrategikoen zerrenda zehazten da.

- **Politika eraldatzaileak** hartzen dira Nafarroan eskualde-garapeneko eredu bat marrazteko balio dutenak, 2030 Agendak adierazten duen horizontean, identifikatutako erronka handiei erantzun nahian. Erronka horiek, kasu askotan, denbora-muga desberdinak dituzte, baina trantsizioak eta eskualde-garapen jasangarria zehazteko eredu berri bat finkatzen ahal dituzte. Ez dira politika espezifikoak, baizik eta erronkei oso-osoan erantzuteko ekintza-esparru bat.

- **Ekimen eragile** terminoarekin politika espezifikoak ezartzen dira (plangintza tresnak edo administrazio kudeaketako ekimenak); eragiteko politikak osatzen dituzten ekintzen esparruan jarduteko eremu zehatzagoak dira.

Ekimen publiko batzuk eremu estrategiko batean baino gehiagotan sartzen dira, bai transbertsalak izateagatik (adibidez, genero-ikuspegia), bai trakzio-indarragatik (adibidez, KliNa, klima-aldaketaren ibilbide-orria), bai aplikagarritasunagatik (S4 Espezializazio Adimenduneko Estrategia); izan ere, ekintzak txertatzen dituzte jasangarritasunerantz aurrera egiteko politika eraldatzaileetan. Horri esker, batetik, 2030 Agendarantz aurrera egiteko gakotzat hartu behar diren eta trakzio-lanak egiten dituzten ekimenak identifikatzen ahal dira, eta, bestetik, ikuspegi desberdinetatik ebaluatzen ahal da politika bera, unean-unean egikaritzen ari den ikusmoldearen arabera. Ekimen bera, ebaluazioaz arduratzen den arduradunaren arabera, beste arlo estrategiko batetik lantzen ahal da, edo, are gehiago, bestelako esfera batetik (5 P). Bi ebaluazioak guztiz baliozkoak dira eta elkar aberasten dute.

Bestalde, arlo bakoitzeko zerrendetan jasotako ekimen publiko guztiak eskala estrategikotik egindakoak dira, hau da, ez da sartu tresna bakoitzaren zati operatiboa. Horrela sartzen da, adibidez, Nafarroako Lurralde Estrategia (NLE), baina ez udal-plangintza osoa eta paisaia-dokumentuak. Horrek ez du esan nahi legegintza-tresnak edo behe-mailakoak (operatiboak) ez direnik funtsezko elementuak 2030 Agenda betetzeko bidean, edo ezin dituztenik erabili ebaluazio-metodologia gisa estrategiak proposatutakoak. Alabaina, ENS 2030 NEJen izaera eta foru-mailako tresnen kopurua kontuan hartuta, ez da egokitzat jo horiek txertatzea.




Hori horrela, erronka globalen ondorioz eta jasangarritasunaren hiru dimentsioekin lotuta (laranja, ingurumen alorrekoak; berdea, ekonomikoak; eta urdinak, sozialak), definitutako sei arlo estrategikoak erabilgarriak dira politika eraldatzaileak eta ekimen eragileak antolatzeko. Hauexek dira sei arlo estrategikoak:

- **Klima-aldaketa.** “(...) Gure garaiko erronkarik handienetako bat da, eta haren ondorio kaltegarriek murriztu egiten dute herrialde guztiek garapen jasangarria lortzeko duten gaitasuna”. (2030 Agenda)
- **Trantsizio energetikoa.** “Teknologia aurreratuak eta hainbeste kutsatzen ez dutenak baliatzea [...] energia zerbitzu eskuragarriak, fidagarriak jasangarriak eta modernoak unibertsalki eskura izatea, bai eta kalitate eta erresilientzia fisikoa duten azpiegiturak ere”. (2030 Agenda)
- **Kultura eta ondarea.** Garapen jasangarriaren kultura, kudeaketa adimenduna; izan ere, “aitortzen dugu munduko kultura-aniztasuna, eta ulertzen dugu, orobat, kultura eta zibilizazio guztiak lagungarriak direla garapen jasangarriarako eta funtsezko zeregina dutela hori errazteko”. (2030 Agenda)

- **Ekonomia berdea.** “Erabakimena dugu, halaber, beharrezko baldintzak sortzeko hazkunde ekonomiko jasangarri, inklusibo eta iraunkorra lortzeko, oparotasun partekatua izateko eta guztiontzako lan duina izateko, kontuan hartuta garapen-maila nazional eta gaitasun fisiko desberdinak”. (2030 Agenda)
- **Kohesio soziala.** “Agendako alderdi guztietan nahi duguna lortzen badugu, nabarmen hobetuko dira pertsona guztien bizi-baldintzak, eta gure mundua leku hobea bihurtuko da”. (2030 Agenda)
- **Konpromiso partekatua.** “Denok eginen dugu lan Agenda gure herrialdeen barruan eta eskualde eta mundu mailan ezartzeko, herrialde bakoitzaren errealitate, gaitasun eta garapen maila desberdinak kontuan hartuta eta herrialde bakoitzaren politika eta lehentasun nazionalak errespetatuz”. (2030 Agenda)

Arlo estrategikoez Garapen Jasangarriarako Helburuak lerrokatzeko aukera ematen dute, ekimen publikoen arduradunek duten gaitasunaren arabera. Jasangarritasunean izanen dituen ondorioak ebaluatzeari begira, Foru Komunitatearen garapen jasangarriak ezaugarri guztietan izanen dituen ondorioak hartu behar dira kontuan.



## KLIMA ALDAKETA

- Klima ikuspegia
- Ingurumen kalitatea
- Zerbitzuen kudeaketa



ONARGARRIA

## TRANSIZIO ENERGETIKOA

- Eredu energetikoa
- Irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria
- Hiri-berroneratzea eta birgaitze efizientea



BIDERAGARRIA

## KULTURA ETA ONDAREA

- Garapen jasangarriaren dimentsio erabakigarria
- Eskubide kulturalak
- Digitalizazioa garapen jasangarriaren faktore gisa
- Lurralde kultura eskualde nortasun gisa



JUSTIZIA

## EKONOMIA BERDEA

- Eredu ekonomikoa
- Dibertsifikazio adimenduna
- Sektore publikoaren trakzio-ahalmena
- Jarduera emergenteak



BIDERAGARRITASUNA

## GIZARTE KOHESIOA

- Pobrezia eta gizarte bazterketa
- Aniztasunari erantzutea
- Bizi-kalitatea eta ongizate estatua



EKITATEA

## KONPROMISO PARTEKATUA

- Tokiko Agenda 2030
- Pertsonak eta erakundeak gaitzea
- Garapenerako lankidetzeta-politika



JUSTIZIA

2. taula: Garapen Jasangarrirako Helburuak eremu estrategikoaren eta jasagarritasun-ikuspegiaren osagaiaren arabera lerrotatzea. Iturria: geuk egina





## 3.1 Klima-aldaketa







## ONARGARRIA

### ABIAPUNTUKO EGOERA

Berotze globala (*global warming*) zientifikoki frogatuta dago eta gizateriak aurrean duen arronkarik handienetako bat da. Klimaren elementuetan eta klimak planetan duen banaketan aldaketak eragiten ari da. Klima aldaketa deitzen dena ezberrik gabeko errealitatea da Nafarroan. Hainbat ikerketak egiaztatu dute klima-baldintzak aldatu egin direla espazio-eremu desberdinetan eta haien barne-ezaugarrietan. Ebidentzia hori egiaztatu da gaur egungo aldi klimatikorako (1991-2020), Munduko Meteorologia Erakundeak gomendatutako erreferentzia-aldiari dagokionez (1961-1990 edo iraganeko klima). Horretaz gainera, agerian uzten dute 8,5eko RCPak egindako proiektzioak hurbiltzen direla gehien errealitatera, gainjartze-aldirako (2006-2020) eta etorkizuneko aldirako, Nafarroan neutraltasun klimatikoa lortzeko ezarritako garapen-estrategien horizontea den heinean: Klima Aldaketaren Ibilbide Orria, Energia Plana, Nafarroako Lurralde Estrategia, S4 Espezializazio Adimenduneko Estrategia, eta abar.

NFEBHLOn aitortutako foru-eskumenak egikaritzean, Nafarroako administrazio publikoaren lehentasunen artean egon da beti ingurumen-kalitatearekiko, ekosistemen egoerarekiko eta lurraldearen erabilerekin kudeaketarekiko kezka. Ikuspegi integral batean, eskumen eskusiboek eta Estatuarekin partekatutakoek biltzen dituzte lurralde-kapitala deitzen den horretan eskuragarri dauden baliabideak (baliabideak, pertsonak, gaitasuna eta trebetasunak), eta, gainera, nahitaezkoa da etorkizuneko belaunaldiari jasangarritasunaren ikuspegiaren arabera transmititzea.

Klima-aldaketak badu eraginik iraunkortzat eta aldaezintzat genuen kapital horretan: nabaria da dagoeneko, zuzenean hauteman dezakegu. Lurraldea bera, euskarri fisiko gisa, giza ekintzaren eta dinamika naturalen eboluzioaren

mehatxupean dago: ezaugarri klimatikoak latitudean eta altitudean ari dira mugitzen. Gaur egun, gizateriak aldaketa horiek aurreikusi eta horietara egokitu behar du, kasu batzuetan atzeraezinak baitira. Nafarroan aztertu dira mehatxu horiek, inpaktu-kateko metodologian eta IPCCren gomendioen arabera, eta arronka-formatua eman zaie; hau da, epe laburrerako eta epe luzerako 2030 Agendarekin lerrotatzean izanen dituen ondorioak aurreikustea, klimaren aldetik neutroa izanen den garapen jasangarriko eredu berri baten ezartzearen bidez.

Ebidentzia horien ondorioz, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko 4/2022 Foru Legea onetsi da. Aldaketen ebidentziaren aurrean, bestelako eredu sozioekonomiko berriak planteatu behar dira, giza jarduera guztietan ikuspegi klimatikoa txertatzen dutenak. Arintze-estrategiak (berotegi-efektuko gasen emisioak murriztea, berotze globala eragiten duten heinean) eta egokitze-estrategiak (sistema naturalak eta giza sistemak egokitzeko kudeaketa) pertsona publiko eta pribatuen parte-hartze proaktiboarekin bakarrik dira posible, dela banaka, dela kolektiboki.

Nafarroan lurralde-kultura berri bat eta lurraldearen paisaia-kudeaketa ezartzen dira, Paisaiaren Europako Hitzarmenarekin bat etorritik. Hitzarmen horrek ezartzen du integratu egin behar direla kulturaren, ingurumenaren, nekazaritzaren, gizartearen eta ekonomiaren arloko politikak, bai eta paisaian eragin zuzena edo zeharkakoa izan dezaketen beste edozein politikatan ere. Izan ere, paisaia eta lurraldea faktore naturalen eta/edo gizakien ekintzaren eta interakzioaren ondorio dira, kontuan harturik betiere espezie guztiek –gizakiek barne– klima-erosotasuna bilatzen dutela eta aldaketetara egokitzen direla.



## Ahuleziak

- Errekuntza-teknologiaren mendeko eredu eta sistema ekonomikoa, Lehen Industria Iraultzaz gerotik.
- Klima-aldaketaren ondorioetan eragin negatiboa duten bizi-ohitura nagusiak (mugikortasun-ereduak, energiaren erabilera, hondakinen ekoizpena...).
- Gizartearen zati batek ez jakitea zer ondorio izanen dituen klima-aldaketak tokian-tokian, eta ez izatea neurriak hartzeko premia larriaren berri ere.



## Mehatxuak

- Berotegi efektuko gasak metatzea atmosferan.
- Klima-sistemaren elementuen eta faktoreen efektu biderkatzailea eta metatzailea, zeinek aldatu egiten baitute klima-sistemaren faktoreen eta elementuen funtzionamendua.
- Ondorioak eta alterazioak areagotzea: desertifikazioa areagotzea; lurzoruen higadura eta emankortasuna galtzea; eskura dauden baliabide hidrikoak murriztea; biodibertsitatea galtzea; sute-arrisku handiagoak; espezieak migratzea eta balizko iraungitzeak; baso-gaixotasun eta -izurriteen inpaktu handiagoa; ureztatzeko beharrak eta nekazaritza-produktibitatearen gaineko ondorioak ugaritzea; bero-boladek, alergiek, elikagai-infekzio eta -toxikotasunak, kutsadura atmosferikoak eta abarrek osasunerako dakartzaten arriskuak.

## AMIA MATRIZEA



## Indarrak

- Nazioartean, nazioan, eskualdean eta tokian-tokian hartutako konpromisoak.
- Eskala anitzeko gobernantza.
- Nafarroan hustubideak areagotzeko eta kudeatzeko gaitasun handia.
- Aniztasun biologiko handia (erresilientzia), aldaketei aurre egiteko.
- Klima-aldaketari lotutako informazio eta ezagutza zientifiko ugari Nafarroan.
- Eraikitako parkean energia-efizientziaren arloan egiten diren jarduketaren aldeko apustua.



## Aukerak

- Jarduera eta enplegua sortzeko potentzialtasuna klima-aldaketa arintzeko estrategiekin eta egokitze neurriekin lotutako sektoreetan.
- Erresilientzia areagotzea garapen jasangarriaren faktore gisa.
- Klima-aldaketarekin lotutako politikek beste esparru batzuetan izan dezaketen hobekuntza.
- Nazioarteko aliantza klimatikoa.

## POLITIKA ERALDATZAILEAK ETA EKIMEN ERAGILEAK

Klima-aldaketa, fenomeno globala den heinean, eskualde-garapenean eragina duten politika eraldatzaile hauetan txertatzen ahal da Nafarroan:

### 1 KLIMA-ALDAKETAREN AURKA BORROKATZEA, HARTUTAKO KONPROMISOAK BETETZEA ETA IKUSPEGI KLIMATIKOA TXERTATZEA.

Klima-aldaketak lurralde-ebidentzia du Nafarroan, bai eta ondorioak ere eskualde-garapenean. Politika eraldatzaile horretan, eduki hauekin lotutako ekimenak bilduko dira: Kalteberatasuna eta inpaktu potentzialak Nafarroan, ekintza espazialak desertizazioaren aurrean, eta lurzorua babesa.

### 2 ESKUALDE OSORAKO INGURUMEN-KALITATEA BERMATZEA.

Airearen kalitatea, ur-baliabidearen kudeaketa eta uraren kalitatea, hondakinen kudeaketa, ekosistemen kalitatea, prebentzioaren eta kontserbazioaren printzipioak. Berotze globala arintzea, klima-aldaketaren ondorioetara egokitzea.

### 3 EREDUA ALDATZEN LAGUNTZEA, ESPAZIOAK KONTSERBATZEKO EREDUARI LAGUNTZEA ZERBITZUAK KUDEATZEKO BESTE EREDU BATEKIN (LURRALDE-KAPITALA), ETA LURRALDEAREN PAISAIA-KUDEAKETA.

Biodibertsitatea eta espazio geografikoaren etengabeko babesa, uraren kudeaketa, lurzorua erabilerak eta gizartearen parte-hartzea (onargarritasuna).

Naturan oinarritutako soluzioak garatzeko eta klima-egokitzapena eta -erresilientzia indartzeko, Nafarroako Gobernuak ekimen eragile hauek garatu ditu, plan, programa, estrategia edo ekimen formatuan, besteak beste. Ekimen horiek mailakatze desberdina dute jasangarritasunean dituzten ondorioei dagokienez, politika eragileen barruan eta eremu estrategiko honek garatutako GJH nagusiei dagokienez.





# 3.1 Klima-aldaketa



GJH	EKIMEN ERAGILEA	JASANGARRITASUNAREN GAINEKO ERAGINA	LURRALDEAREN GAINEKO ERAGINA	POLITIKA ERALDATZAILEA
	Klima Aldaketaren Nafarroako Bide Orria - KLINA 2017-2030-2050	●	●	Ikuspegi klimatikoa
	Life-IP NAdapta-CC proiektua	●	●	Ikuspegi klimatikoa
	Hiri Erabilerarako Uraren Ziklo Osoaren Plan Zuzentzailea (2019-2030)	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Landa Garapenerako Programa (2021-2027)	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Nafarroako Hondakinen Plana (2017-2027)	●	●	Ingurumen-kalitatea
	Nafarroako Estrategia Aniztasun Biologikoa Babesteko eta Modu Jasangarrirako Erabiltzeko (1999)	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Ibaiak lehengoratzeko planak	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Arrantza antolatzeke planak	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	KBEEen kudeaketa planak	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Nafarroako Basoetarako Agenda (2019-2023)	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Ehizarako Eskualde Planak	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Oihan antolamendurako planak eta proiektuak	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Uholde arriskuari aurre egiteko Larrialdietarako Plan Berezia (2018)	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Nafarroako Lurralde Estrategia - NLE (2005)	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Lurralde antolamenduko planak - LAP (2011)	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Nafarroako Energia Plana 2030 - NEP2030	●	●	Ingurumen-kalitatea
	Nafarroa Suspertu Plana (2020-2023)	●	●	Ingurumen-kalitatea
	Ekoi-zerbitzuen Ekologikoa Sustatzeko Plana (2018-2020)	●	●	Ikuspegi klimatikoa
	Larrialdietarako plan bereziak	●	●	Ikuspegi klimatikoa
	Basoetarako Plana (1999)	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Salmonidoen uretako Plan Zuzentzailea	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Ehiza antolatzeke planak (EAP)	●	●	Zerbitzuen kudeaketa
	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoa (2022-2027)	●	●	Zerbitzuen kudeaketa

3. taula: Gobernuak harturiko ekimen eragileen zerrenda, klima-aldaketaren arlo estrategikoarekin loturik, ENS 2030 NEJ onetsi zenean. Iturria: geuk egina

### Jasangarritasunean dituen ondorioak:

- **Oso handia** / Politika sektorialak eragin zuzena du jasangarritasunean. Haren emaitzek erantzuten diete arlo tematikoaren erronkei.
- **Ertaina** / Erronketan duen eragina, ekintzen diseinuaren arabera.
- **Txikia** / Arlo tematikoarekin zerikusia duen politika sektoriala, baina haren emaitzek ez dute eragin zuzenik erronketan.

### Eraginak lurraldean:

- **Oso handia** / Ekimen publikoak eragina du lurralde-fenomenoen banaketan, bai eta lurralde-antolamenduko eskumenetan ere.
- **Ertaina** / Lurralde Garapenerako Ereduan aintzat hartutako xedapenei eragiten die.
- **Txikia** / Ekimen publiko oso zehatza da, eta lurralde-eskala zehatza du.

*Ekimen publikoen zerrenda eguneratuta dago estrategia hau idatzi den egunean. Aldian-aldian eguneratzea aztertu beharko litzateke, bai eta ekimen bakoitzaren lerrokatadura berrikustea ere, ebaluazio-prozesuak egin ahala.*



## 3.2 Trantsizio energetikoa







7 ENERGIA IRISGARRIA  
ETA EZ KUTSAGARRIA



5 GENERO  
BERDINTASUNA



6 UR GARBIA ETA  
SANEAMENDUA



11 HIRI ETA KOMUNITATE  
JASANGARRIAK



12 EKOIZPEN ETA  
KONTSUMO  
ARDURATSUAK



13 KLIMAREN  
ALDEKO EKINTZA



# BIDERAGARRIA

## ABIAPUNTUKO EGOERA

**Nazioarteko konpromisoek** berotegi-efektuko gasen emisioak kontrolatzea eskatzen dute. Parisko Akordioan ezarritako konpromisoei jarraikiz, estatu osoan % 10 murriztu behar dira 1990ean erregistratu ziren emisioak. Nazioarteko akordio horietan, ez dago Nafarroari egotz dakiokkeen kuotarik, baina KliNa Klima Aldaketaren Nafarroako Bide Orriak eta Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legeak % 10eko murrizketa ezartzen du 2030erako, eta **neutraltasun klimatikoa** 2050erako. Murrizketa hori gure eskualdean fisikoki sortzen diren emisioei, gure kontsumoari dagozkienei eta Nafarroak bere ardurapean hartu beharko lituzkeen beste batzuei aplikatu behar zaie. Ildo horretan, emisioen merkataritzan parte hartzeko beharrezko erregulazioak ezartzea gomendatzen da, berotegi-efektuko gasen murrizketa pizgarritzat har dadin.

Baina, finantza-pizgarri horretaz gainera, beharrezkoa da **trantsizio teknologiko** bat egitea, energiaren eta uraren erabileraren eta kudeaketaren esparruei eragiten diena; izan ere, egungo teknologiekin ezin dira lortu ezarritako denbora-horizonteetarako murrizketa-helburu horiek.

Nafarroako Energia Planaren (NEP 2030) arabera, eredu energetikoa ezin da bereizi ingurumen-baldintzetatik, baina eredu hori energia-iturriek, sorkuntza-sistemek, banaketa-sistemek, kontsumoaren antolaketak, sektore kontsumitzaileek, energiaren efizientziak, segurtasunak eta ikerketak ere baldintzatzen dute. NEP 2030ek banaketa deszentralizatura eta autokontsumora bideratzen du eredu, iturrien erabilerara eta sorkuntza berriztargarrira, eta efizientzia lortu nahi du sektore kontsumitzaileetan (garraioa, bizilekuak eta zerbitzuak, industria eta nekazaritza).

Eredu energetikoak eragin sakona du jasangarritasunaren hiru dimentsioetan, baina ezin da ahaztu energiarako sarbide unibertsala (ekitatea) ber-

matu behar dela. Hori horrela, **bideragarritasuna** da garapen jasangarriari lotutako nolakotasuna, eta baliabideen transferigarritasuna bermatzen du (justizia). Energia-ereduak izaera integrala du jarduera sozial eta ekonomiko publiko eta pribatu guztiei dagokienez, eta bideragarritasunaren, onargarritasunaren, ekitatearen eta justiziaren irizpideei erantzun behar die.

Espainiako esparru juridikoan, etxebizitza eskuratzea eskubidetzat hartzen ahal da; izan ere, Konstituzioaren 47. artikulua ezartzen du botere publikoek beharrezko baldintzak sustatu behar dituztela pertsona guztiek "etxebizitza duina eta egokia" lor dezaten. Botere publiko horiek berek ezartzen dute energia eskuratzea ezinbesteko baldintza dela hiri-lurzoria eta etxebizitzaren bizigarritasuna bermatzeko.

Energia-pobreziak berekin dakar pertsona eta etxe batzuek energia-horniduraren oinarriko beharrak asetzeko gaitasunik ez izatea. Egoera hori ez dago zuzenean loturik energia-ereduarekin, baina bai gizarte-desberdintasunak eragiten dituen garapen ekonomiko ereduarekin, behar adinako diru-sarrerarik ez eskuratzearen ondorioz. Eta, kasu batzuetan, egoera hori are larriago bihurtzen da, kolektibo horien etxebizitza ez delako eraginkorra energiaren ikuspegitik.

[KliNa Klima Aldaketaren Nafarroako Bide Orriaren jarraipenerako eskurgarri dauden datuen arabera](#), berotegi-efektuko gasen emisioek atalase oso altuetan jarraitzen dute (2020an 5.013 kt CO<sub>2</sub> baliokide), eta jaisten hasi ezean, 2030erako helburua ere ez da lortuko (2020an 3.354 kt CO<sub>2</sub> baliokide), eta, beraz, ezta tenperatura globalaren igoera kontrolatzeko bilakaera ere. Horrek baldintzatu egiten du, halaber, zero emisio termikoko energia-eredu bateranzko trantsizioa, material fosilen errekuntzarekin lotuta ez dagoena, [Nafarroako Energia Plangintzak](#) aldarrikatzen duen bezala.



### Ahuleziak

- Kanpoko erregai fosilen iturriekiko mendekotasun handia, batez ere garraio-sektorean. 2010. urteaz gerotik, garraioa izan da azken energiaren kontsumitzaile nagusia, industriaren gainera; 2013. urtea izan zen salbuespena, azken sektore horrek gainditu egin baitzuen garraioa. Hala ere, COVID-19aren ondorioz, garraioak % 20 baino gehiago murriztu zuen kontsumoa.
- Eredu energetiko jasangaitza, ingurumen-kutsadura sortzen duena.
- Pobreziaren eta energia-pobreziaren feminizazioa. Emakumeek sektorean duten parte-hartzearen arrakala.



### Mehatxuak

- Lurzoru-kontsumo handia energia berriztagarriak ezartzeko azpiegiturak instalatzeko -eta lurzorua baliabide mugatua da-.
- Zailtasunak garapen ekonomiko eta energia-kontsumoa bereizteko.

## AMIA MATRIZEA



### Indarrak

- NEP 2030 edukitzea, hau da, energia-eredu berri bat arautzen duen plangintza-esparru propioa.
- Nafarroak badu Trantsizio Energetikoa sustatzen duen lege-esparru berritzaile bat (4/2022 Foru Legea).
- Klima-aldaketari lotutako informazio zientifiko ugari Nafarroako Foru Komunitatean.



### Aukerak

- Petrolioaren merkatuko prezioen aldaketen ondorioz energia eta erregai alternatiboak ekoizteko iturri berriak bultzatzea.
- Eraikuntza-sektoreak gero eta interes handiagoa du energia-birgaituntzarako (birgaitzeko laguntzak), eta, ondorioz, gero eta enplegu gehiago dago sektore horietan.
- Gizartea kezkatuta dago elektrizitatearen eta erregaien gastuengatik, diru-sarrerak murrizten ari diren inguruabarrotan, eta horrek sentsibilizazio energetiko handiagoa sortzen du.



### POLITIKA ERALDATZAILEAK ETA EKIMEN ERAGILEAK

Trantsizio energetikoa jasangarritasunaren dimentsioen fenomeno global transbertsal gisa hartzen ahal da Nafarroan, eskualde-garapenean eragina duten politika eraldatzaile hauetan:

**1 EREDU ENERGETIKO BAT FORMULATZEA ETA EZARTZEA.** Trantsizio teknologikoa eta energetikoa. Subiranotasuna eta mendekotasuna.

**2 IRISGARRITASUNERANTZ ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIRANTZ JOATEA.** Garraioaren deskarbonizazioa eta mugikortasun jasangarria, askotariko ereduak kontuan hartuta.

**3 HIRI-BERRONERATZEA ETA BIRGAITZE EFIZIENTEA SUSTATZEA.** Eraikuntza-aren industrializazioa, kontsumo ia nua eta energia-efizientzia. Lurralde-antolamenduko eta -hirigintzako tresnak.

Nafarroan trantsizio energetikoa garatzeko, Nafarroako Gobernuak ekimen eragile hauek garatu ditu -plan, programa, estrategia edo ekimenen formatuan-, zeinek mailakatzeko desberdina baitute jasangarritasunean dituzten ondorioei dagokienez, betiere politika eraldatzaileen barruan eta eremu estrategiko honek garatutako Garapen Jasangarrirako Helburu nagusiei dagokienez.



## 3.2 Trantsizio energetikoa



GJH	EKIMEN ERAGILEA	JASANGARRITASUNAREN GAINEKO ERAGINA	LURRALDEAREN GAINEKO ERAGINA	POLITIKA ERALDATZAILEA
	Nafarroako Energia Plana 2030 - NEP2030	●	●	Birgaitze efizientea
	Industria Plana 2020	●	●	Eredu energetikoa
	Biziberri Plana (2021-2023)	●	●	Hiri-berroneratzea eta birgaitze efizientea
	S4 Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (2021-2027).	●	●	Eredu energetikoa
	Nafarroako Foru Komunitateko Errepideen IV. Plan Zuzentzailea (2029 artekoa)	●	●	Irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria
	Nafarroako Lurralde Estrategia - NLE (2005)	●	●	Hiri-berroneratzea eta birgaitze efizientea
	Errepide-sareko mantentze-lanak, bideak eta segurtasuna	●	●	Irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria
	Mugikortasun Jasangarrirako Plan Zuzentzailea (2018-2030)	●	●	Irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria
	Nafarroa Suspertu Plana (2020-2023)	●	●	Eredu energetikoa
	Etxebizitza Plana (2018-2028)	●	●	Hiri-berroneratzea eta birgaitze efizientea
	Klima Aldaketaren Nafarroako Bide Orria - KLINA 2017-2030-2050	●	●	Irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria
	Nafarroako Mugikortasun Aktiboaren Plan Zuzentzailea (2022-2030)	●	●	Irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria
	Hiriarteko garraio publikorako plana	●	●	Irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria
	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoa (2022-2027)	●	●	Irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria

4. taula: Gobernuak harturiko ekimen eragileen zerrenda, trantsizio energetikoaren arlo estrategikoarekin loturik, ENS 2030 NEJ onetsi zenean. Iturria: geuk egina

### Jasangarritasunean dituen ondorioak:

- **Oso handia** / Politika sektorialak eragin zuzena du jasangarritasunean. Haren emaitzek erantzuten diete arlo tematikoaren erronkei.
- **Ertaina** / Erronketan duen eragina, ekintzen diseinuaren arabera.
- **Txikia** / Arlo tematikoarekin zerikusia duen politika sektoriala, baina haren emaitzek ez dute eragin zuzenik erronketan.

### Eraginak lurraldean:

- **Oso handia** / Ekimen publikoak eragina du lurralde-fenomenoen banaketan, bai eta lurralde-antolamenduko eskumenetan ere.
- **Ertaina** / Lurralde Garapeneko Ereduan aintzat hartutako xedapenei eragiten die.
- **Txikia** / Ekimen publiko oso zehatza da, eta lurralde-eskala zehatza du.

*Ekimen publikoen zerrenda eguneratuta dago estrategia hau idatzi den egunean. Aldian-aldian eguneratzea aztertu beharko litzateke, bai eta ekimen bakoitzaren lerrokadura berrikustea ere, ebaluazio-prozesuak egin ahala.*





## 3.3 Kultura eta ondarea





4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK



5 GENERO BERDINTASUNA



9 INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIGIGURA



15 LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA



16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK



17 HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA



# JUSTIZIA

## ABIAPUNTUKO EGOERA

2030 Agenda egiteko, Nazio Batuen Erakundeak aurrekaririk gabeko kontsulta-prozesu bat ezarri zuen. Parte-hartzea aurrerapauso handia da, orobat, garapen jasangarriko kultura-alderdiak txertatzeko: “Kulturak funtsezko garrantzia du Agenda 2030erako. Garapen mota bakar bat ere ez da jasangarria kultura kontuan hartu ezean” (NBE 2018, Agenda 2030erako Kultura). “Nahi dugun etorkizuna” hausnarketa- eta kontsulta-ildo ugarien artean eginiko kanpainetako bat izan zen, eta ehun herrialde baino gehiagotako erakundeak, gizarte zibila eta adituak elkartu zituen, elkarrekin eta orpoz orpo lan egiteko. Hala, lan, dokumentu eta proposamen ugari sortu zituzten guztien artean, 2030 Agendan kultura txertatzeko.

Hala ere, 2030 Agendak ez du zehazten garapen jasangarriaren dimentsio kulturala berariaz lantzen duen helburu espezifikorik (GJH). Hala eta guztiz ere, 2030 Agendak hainbat kultura-alderdiri buruzko jomugak eta erreferentzia esplizituak biltzen ditu.

Gaur egungo fenomenoetako aurre egiteko -hala nola trantsizio digitala, globalizazioa, gero eta ugariagoa den gizarte-aniztasuna, lan-inguruneen eraldaketa, sormena, kultura-ekoizpena, gizarte-animazioko jarduerak eta kultura-kudeaketa-, erakundeek indartu egin behar dute kultura ulertzeko modua, garapen pertsonalerako eta sozialerako faktore gisa. Europako Batzordeak 2018ko maiatzean aurkeztutako Europako Kultura Agenda

Berriaren helburu estrategikoetako bat da nazioarteko kultura-harremanak indartzea, eta, ildo horretan, ahalik eta gehien aprobetxatzea kulturak garapen jasangarria eta bakea bultzatzeko duen ahalmena.

Bestalde, 2022ko irailaren 28tik 30era Mexikon egin zen UNESCOren MONDIACULT 2022 Kultura Politikei eta Garapen Jasangarriari buruzko Munduko Konferentziaren aurretik, espezialistek txosten berri bat argitaratu zuten, *Garai zailak. Natura eta gizakiak: kemenaren kultura aldaketa lortzeko* izenekoa, zeinaren ardatza baita nabarmentzea kulturak garrantzi handia duela Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko motor gisa.

Testuinguru horretan, “Agenda 2030en egongelan bista-bistan dagoen *elefantetzat*”<sup>2</sup> ikusten da kultura. Hogeitazko urteko lanaren ondoren, gaur egun, modu orokorrean aitortzen da bata bestearekin loturik daudela kultura- eta sormen-sektoreak, gizarteratzea, kohesioa eta gizartearen eraldaketa, garapen jasangarria bermatzeko. Txosten hartan, hamaika ekintza-mezu aurkezten dira Europa xede eta jatorri gisa hartuta, kulturaren bidez garapen jasangarriaren helburuak lortzeko aldaketa-bide gisa. Kulturaren sektorea aldaketarako eragile gisa aldarrikatzen da, eta gobernuak gero eta gehiago onartzen dute kulturaren dimentsioa aprobetxatzea garapen jasangarriko.

<sup>2</sup> Europako Batzordea (2022). *Stormy Times. Nature and humans: Cultural courage for change*. Ingelesez bakarrik dago eskuragarri. (<https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/0380f31c-37c9-11ed-9c68-01aa75ed71a1/language-en>)





Bestalde, kulturak eta ondareak berezko lotura dute lurralde antolamenduarekin, diziplina teknikoa, politikoa eta administrazio-prozedurako diziplina den heinean. Tradizionalki, lurzuaren erabileren plangintza baino ez zen hartzen Lurralde Antolamenduaren egitekotzat. "Natura- eta kultura-ondarearen kudeaketa adimenduna" printzipio gisa txertatu zenetik (Europako Lurralde Estrategia, 1999), lurraldeko kultura berriak lurralde-kapitala kudeatzearen aldeko apustua egiten du. Lurralde baten kultura ezinbesteko elementua da kanpoan proiektatzeko eta nortasun-zeinuak aurkezteko.

2021eko martxoaren 24an, "Kulturatik abiatuta Garapen Jasangarriaren Estrategian Laguntzeko Aktore anitzeko Tailerra" egin zen. Topaketa hartan, Agenda 2030en barruko kulturaren arloko ia ehun aditu elkartu ziren, eta kulturak Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko duen zereginari buruzko hausnarketak partekatu zituzten. Taldeak nabarmendu zuen kultura garrantzitsua dela lurraldeari lotutako gizarte-kohesiorako elementu gisa, eta gai dela, orobat, desberdintasunak murrizten laguntzeko. Era berean, nabarmendu zuten beharrezkoa dela kultura-ondarearen gaitzaintza sustatzea, lurralde-kapitala baita, zeinak Garapen Jasangarrirako Helburuak berrikusi eta txertatu behar baititu, giza garapenerako lorpenetan laguntzeko.

"Lurralde-kapitala" multzo konplexua da, espazio- eta denbora-dimentsio batean sartua. Lurraldea entitate bizia da, dinamikoa; alderdi asko dauzka, eta denboraren poderioz eboluzionatzen du. Lurralde bakoitza iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko loturaren emaitza da. Iraganak ezinbestean baldintzatuta egon beharrean, bilakaera historikoak eskaintzen dion ikuspegian oinarritzen da; egungo egoera beste leku batzuetan gertatzen denarekin alderatzen du, arrakastak eta porrotak aztertzen ditu, eta lurralde-eragileen analisi eta borondate partekatuarekin bat datorren etorkizuneko proiektzioa egiten du. Hori horrela, eremu espazial batean dauden elementu material eta ez-materialen multzo horrek lurraldearen aberastasuna osatzen du (pertsonek, jarduerak, paisaiak, ondarea, ezagutza teknikoak, eta abar), baina ez kontabilitate fisikoaren inbentarioaren ikuspegitik, baizik eta eskualde-garapenerako modu estrategikoan nabarmendu, antolatu eta planifikatzen ahal diren berezitasunak bilatzearen ikuspegitik.

Horrenbestez, "lurralde-kapitala" kudeatzea da kontua, hainbat osagaien ondorioz: kultura, nortasuna eta kultura-ondare materiala eta ez-materiala, eta ezagutza teknikoak eta kompetentziak (inplizituak eta esplizituak, teknologien kontrol-maila, ikerketa- eta garapen-gaitasunak, abar). Hala, Nafarroako ondarearen parte bihurtzen da lurralde-kapitala, eta baldintza onenetan aldatu behar da etorkizuneko belaunaldietara. Kultura –eta, beraz, ondarea– lagungarria da lurralderako, eta, horretaz gainera, klima-aldaketaren arlo estrategikoan aipatutako lurralde-kultura berri hori erakitzen esku hartzen du. Lurralde-kapitalarekin lerrokatutako jarduera sortzeko potentziala ekonomia berdearen arlo estrategikoan sortzen ari diren jarduerekin lotzen da. Aukera horiek aktibatzeak, funtsezkoa da kultura-sektoreko kultura-kudeaketako, jakintzako eta gaitasun publikoko jarduerak aktibatzea. Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoak zuhaitz batekin parekatzen du egungo egoera, "Nafarroako kulturaren zuhaitzarekin", alegia. Zuhaitz horrek irmo eusten dio hazkundeari, ENS 2030 NEJrekin partekatzen dituen balioetan oinarri hartuta: ondarea, ezagutza, prebentzioa, aniztasuna, identitatea eta sormena. Haren jarduerak ematen dute fruiturik prestakuntzan, ekoizpenean, proiektu kulturaletan, sentsibilizazioan eta abarretan. (<https://www.kulturplananavarra.eus/>).





### Ahuleziak

- Nafarroako gizarteak ez ditu hartzen jasangarritasun-faktoretzat nortasuna eta kultura-ondasunak eta -zerbitzuak.
- Aldendurik dago ondare-kontzeptutik, belaunaldien arteko konpromisoaren mende dagoen lurralde-kapital gisa, eta babestuta dagoen natura- eta kultura-ondaretik.
- Genero- eta kultura-arrakala eta eten digitala. Eskuratzeko bidea desberdina da bizilekuaren, generoaren, adinaren, prestakuntzaren eta abarren arabera.



### Mehatxuak

- Kultura sektore eta ekintza klima-neutraltasunetik bereiztea.
- Ezagutza (lurralde-kapitalaren kudeaketa adimenduna) eta kultura-jarduera ekintza politikotik bereiztea.

## AMIA MATRIZEA



### Indarrak

- Ondare kultural aberatsa, materiala eta ez-materiala.
- Ekimen publikoak kultura-jarduerak eta sormena sustatzeko; plangintza eta estrategiak
- Lurraldeko kultura-eskaintzako programak, alderdi hauek kontuan hartuta: liburua eta irakurketa (liburutegiak); zinemaren eta ikus-entzunezkoen sektorea; arte eszenikoak eta musika; arte plastikoak, ikusizkoak eta museoak; artxiboak; eta kultura-ondarea zaharberritzea eta balioestea. Kultura Mezenasgoari buruzko Foru Legea, lurraldean proiektu eta jarduera kulturalekin erantzunkidetasuna izateko.
- Aniztasuna lurralde-kapitala osatzen duten elementuetan.
- Gaitasun eraldatzaileak dituzten kultura-eragileen aniztasuna. Nafarroan, kultura-sektorea aldaketa-eragilea izaten ahal da.



### Aukerak

- Lurralde-kapitalaren kudeaketa estrategikoa, elementu askotan kualitatiboa den heinean.
- Kultura-ondasun eta -zerbitzuen erabilera sustatzea garapen jasangarria bultzatzeko bermea da.
- Erronka globalak aprobetxatzea (klima-aldaketa, erronka demografikoa, trantsizio energetikoa, aniztasunari erantzutea, globalizazio berria, eta abar) kultura pentsatzeko eta bizitzeko moduak egokitzeko.
- Ekonomia zirkularraren urrezko hiru arauak zabaltzea (murriztea, berreskuratzea eta birziklatzea), baita kultura-ondarearekin lotutako beste batzuk ere: birpentsatzea, ezagutzea, erreakzionatzea, leheneratzea, birsortzea eta birgaitzea.
  - Kultura-sektorea gaitzea 2030 Agendan.

### POLITIKA ERALDATZAILEAK ETA EKIMEN ERAGILEAK

**1 KULTURA GARAPEN JASANGARRIAREN FUNTSEZKO DIMENTSION GISA INTEGRATZEA.** Kultura-ekintza formalizatzea, giza eskubideen arloko ekintza txertatzea, ekonomia berdea (neutraltasun klimatikoa baino zerbait gehiago) eta Nafarroako nortasuna eta ondarea (lurralde-kapitala).

**2 ESKUBIDE KULTURALAK BERMATZEA GIZARTE INKLUSIBOEN GARAPENEAN.** Kulturarako sarbidean dagoen arrakala desagerrarazten laguntzea, lurralde-errealitate ezberdinetara egokituz. Kulturak herritartasun kulturala eraikitzen laguntzen du, eta gizarte-kohesiorako ezinbesteko faktorea da. Aukera-berdintasuna, lurralde-oreka, gizarte-aniztasuna, etab.

**3 DIGITALIZAZIOA GARAPEN JASANGARRIRAKO FAKTORE GISA ERABILTZEA,** sormena handitzeko, bizitza sozialean eta ekonomian eragina duen berrikuntza-iturri gisa eta krisien aurreko erresilientzia-mekanismo gisa. Kultura-ekintza, hezkuntza-motorra, arreta pertsonalizatua, sormena eta abar dira.

**4 LURRALDE-KULTURA BERRIA ESKUALDE-NORTASUN GISA SUSTATZEA:** Beste testuinguru batzuetako biztanleak erakartzeko ahalmena dute. Aniztasuna, hiri-eremuko harremana, elikadura- eta energia-subirantotasuna, landa-garapena, bizitza osoko prestakuntza, gizarte-sustraitzea eta abar sustatzen ditu.



# 3.3 Kultura eta ondarea



GJH	EKIMEN ERAGILEA	JASANGARRITASUNAREN GAINEKO ERAGINA	LURRALDEAREN GAINEKO ERAGINA	POLITIKA ERALDATZAILEA
	Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa (2017-2023)	●	●	Garapen jasangarriaren dimentsio erabakigarria
	Kirola eta Emakumea Ekintza Plana	●	●	Garapen jasangarriaren dimentsio erabakigarria
	Nafarroako Kirolaren Plan Estrategikoa (2011)	●	●	Garapen jasangarriaren dimentsio erabakigarria
	Hizkuntza-plana (2020-2022)	●	●	Garapen jasangarriaren dimentsio erabakigarria
	Kulturen arteko Bizikidetzarako Nafarroako Estrategia (2021-2026)	●	●	Eskubide kulturalak
	Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027)	●	●	Lurralde-kultura eskualde-nortasun gisa:
	Nafarroa Suspertu Plana (2020-2023)	●	●	Digitalizazioa garapen jasangarriaren faktore gisa
	Nafarroako Enplegu Plana (2021-2024)	●	●	Lurralde-kultura eskualde-nortasun gisa:
	Nafarroako Lurralde Estrategia - NLE (2005)	●	●	Garapen jasangarriaren dimentsio erabakigarria
	Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistema - SITNaren Plan Estrategikoa (2020-2023)	●	●	Digitalizazioa garapen jasangarriaren faktore gisa
	Nafarroako Estrategia Digitala 2030.	●	●	Digitalizazioa garapen jasangarriaren faktore gisa
	Lurralde antolamenduko planak - LAP (2011)	●	●	Lurralde-kultura eskualde-nortasun gisa:
	Hezkuntza-sistema, IKTak, aniztasunari erantzutea	●	●	Digitalizazioa garapen jasangarriaren faktore gisa
	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoa (2022-2027)	●	●	Eskubide kulturalak

5. taula: Gobernuak harturiko ekimen eragileen zerrenda, kultura eta ondarearen arlo estrategikoarekin loturik, ENS 2030 NEJ onetsi zenean. Iturria: geuk egina

### Jasangarritasunean dituen ondorioak:

- **Oso handia /** Politika sektorialak eragin zuzena du jasangarritasunean. Haren emaitzek erantzuten diete arlo tematikoaren erronkei.
- **Ertaina /** Erronketan duen eragina, ekintzen diseinuaren arabera.
- **Txikia /** Arlo tematikoarekin zerikusia duen politika sektoriala, baina haren emaitzek ez dute eragin zuzenik erronketan.

### Eraginak lurraldean:

- **Oso handia /** Ekimen publikoak eragina du lurralde-fenomenoen banaketan, bai eta lurralde-antolamenduko eskumenetan ere.
- **Ertaina /** Lurralde Garapeneko Ereduan aintzat hartutako xedapenei eragiten die.
- **Txikia /** Ekimen publiko oso zehatza da, eta lurralde-eskala zehatza du.

Ekimen publikoen zerrenda eguneratuta dago estrategia hau idatzi den egunean. Aldian-aldean eguneratzea aztertu beharko litzateke, bai eta ekimen bakoitzaren lerrokadura berrikustea ere, ebaluazio-prozesuak egin ahala.





## 3.4 Ekonomia berdea





# BIDERAGARRITASUNA

## ABIAPUNTUKO EGOERA

2030 Agendarako, dimentsio ekonomikoa Garapen Jasangarrirako 8. Helburuarekin definitzen ahal da: Hazkunde ekonomiko iraunkorra, inklusiboa eta jasangarria sustatzea, eta enplegu osoa eta produktiboa eta bidezko lana guztientzat. Definizio horrek, jasagarritasunaren izaera integralaren espirituan, barnean hartzen ditu alderdi hauek: *“Ingurumena babestea eta pobrezia eta gosea desagerraraztea; teknologien garapenak eta aplikazioak klima eta biodibertsitatea errespetatzea eta erresilienteak izatea munduan; gizateria natura-rekin harmonian bizitzea munduan, eta basa-flora eta -fauna eta izaki bizidunen beste espezie batzuk babestea”*. Ildo horretan, haren ezaugarriak dira bideragarritasuna (ingurumen-dimentsioarekin lotzen denean) eta ekitatea (gizarte-dimentsioarekin lotzen denean).

**Oparotasun partekatuko planeta bat** egitea da kontua.

Europar Batasunak, 2050erako erreferentzia-dokumentazioan, karbonoaren aldetik neutroa den ekonomiaren, ekonomia zirkularraren, bidezko trantsizioaren, ezagutzaren ekonomiaren eta teknologia berrien alorreko orientabideetan parte hartzen du, bai eta tresnen eta prozesu politiko-administratiboaren arteko loturan ere (barnean harturik egiturazko funtsen eta demokraziaren arteko harremana). Horretaz gainera, lurralde-ikuspegia txertatzen du: tokiko eta eskualdeko ikuspegia, garapen polizentrikoa eta landaren eta hiriaren arteko harremana, desberdintasunak, oreka eta eremu kalteberetako premiak. Fenomeno horiek ekonomia berderanzko trantsizio-faktoreak dira.

Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, orientabide guztiak ekarzen ahal dira gure antolamendura eta Foru Araubidearen aukera guztiak baliatzen ahal dira, ekonomia dinamikoa, jasangarria, berritzailea eta pertsonengan zentratua eraikitzeko.

4/2022 Foru Legeak dagoeneko nahikoa orientabide txertatu ditu klima-neutraltasunaren arloan 2050erako. Bestalde, Nafarroako Ekonomia Zirkularraren Agendari erants lekizkioke aipatutako gainerako urrezko arauak, kultura eta ondarea eta trantsizio energetikoaren esparru estrategikoetan. Foru Komunitatean, gaur egun, egin da esku hartze txikirik enplegu berdearen arloan. Basogintza-sektorearekin eta ingurumen-gaiekin soilik lotutakoa da, baina hor barnean sartuko liriteke jasagarritasunaren ikuspegitik lurralde-kapitalaren kudeaketa adimendunari (ezagutzaren ekonomia) lotutako enpleguak ere.

Ekonomia berdeak, kontzeptu gisa, barnean hartzen ditu ekonomiaren eta ekonomia zirkularraren deskarbonizazioari lotutako prozedura guztiak, baina, era berean, arautu egin nahi dira, esaterako, kontabilitate berdeko prozedurak, ekoizpen-unitateek eskura dauzkatenak, haien bidez kontrol eta kudeaketa finantzarioko tresnak sartu ahal izateko, zenbait ondasunek, zerbitzuek eta jarduerak sortutako ingurumen-betekizun guztiak barneratze aldera.

Sektore publikoaren trakzio-gaitasuna erosketa berdeko prozesuetatik haratago joaten ahal da, baita kolektibo kalteberetik aurrekontu-konpromisoekiko erantzukizunetik harago ere. Epe luzerako helburu



## 3.4 Ekonomia berdea



desiragarri bat zera litzateke ildo horretan, ekonomia berdearekin zeharrikusua duten prozedura guztiak formalizatzea. Hau da, zerga- eta aurrekontu-prozedurak, kontabilitate berdearen erregulazioa, eta are enpleguarekin eta ezagutzaren ekonomiarekin loturiko politikak. Kontabilitate berdeak diru-balioak esleitu behar dizkie enpresen jarduerarekin lotutako kostu eta diru-sarrerei: materialak eta baliabideak, ingurumen-inbertsioak, gizarte-ongizatea, eta abar. Korporazioen kontabilitate-prozesuetan jasagarritasuna monetarizatzea da kontua.

Zerga-politika berdea diseinatzeak zerga-eskema ekitatibo bat du helburu, eta ingurumen-arloan hartutako konpromisoak betetzeko aukera ematen ahal du; izan ere, eragile eta pertsona bakoitzak modu progresiboan parte hartzen du, zeinek bere baldintza sozioekonomikoen arabera. Horretaz gainera, jokabide kaltegarriari pizgarriak kentzea, mugikortasun jasagarria eta prozesu zirkularrak sustatzea, eta jarduera askotan ikuspegi klimatikoa txertatzea ahalbidetuko du.





### Ahuleziak

- Mendekotasun energetikoa.
- Automobilaren mekanika-sektorearekiko mendekotasuna.
- Eredu energetiko jasangaitza, ingurumen-kutsadura sortzen duena.
- Langabezia handia eta jarduera-tasa txikia.
- Eskualdearen tamaina, zaildu egiten baitu behar adinako "masa kritikoak" formalizatzea, bai eta kanpoan eragiteko gaitasuna ere.
- Sektore publikoaren trakziorik eza ekonomia berdearen aldeko ekimenetan.
- Finantzaketarako sarbide nekezagoa eta neurri txikiagoa emakume-enpresetan.



### Mehatxuak

- Kanpoko-faktoreekiko sentikortasuna.
- Garapen ekonomikoa eta energia-kontsumoa bereizteko zailtasuna.
- Digitalizazioaren alde ez egitea, eta lehiakortasunik ez duten faktore tradizionaletara loturik geratzea.
- Masa-merkatuko espezialitateko produktu-merkatuak (merkataritza-nitxoak).
- Salgaiak garraiatzeko eta banatzeko sareetatik kanpo geratzea.

## AMIA MATRIZEA



### Indarrak

- Balio instituzionalak.
- Produktibitatea eta lehen sektorea.
- Lehiakortasun orokorra eta pertsonen prestakuntza.
- Gaitasun teknologikoa.
- Enpresa-tamaina erresilientea.
- Esportatzeko gaitasuna.
- Herritarren kontzientzia-maila nabarmena urrezko hiru araei eta ekonomia zirkularrari dagokienez.
- Ekonomia soziala.



### Aukerak

- Foru-araubidea.
- Ezagutzaren ekonomia. I+G+Ba, sormena eta patenteen garapena.
- "Gainerako baliabideak": kultura, ondarea, ondare berdea, berriztagarria, agian kanpoko bultzada bat behar dutenak (identitatea indartzea).
- Mikrozentraltasunak. Lurralde-eskalekiko eta haien merkatuarekiko transbertsalak diren espezialitateak.





### POLITIKA ERALDATZAILEAK ETA EKIMEN ERAGILEAK

Ekonomia berdea ere eraldaketa sozioekonomikoko helburu bat da, beste trantsizio bat: baliabideak kontrolik gabe erabiliz ondasunak eta zerbitzuak ekoiztean oinarritutako eredu batetik abiatu, eta beharrak asetzeko prozesuen efizientzian oinarritutako beste eredu baterantz egiten du, premia kolektiboak indibidualen gainetik lehenetsiz. Ekonomia berdera igarotzeko, funtsezkoa da botere publikoen parte-hartzea, hala bakarrik bermatuko baitira guztion ongia, norberaren ongizatea eta bizi-kalitatea, eta ongizate-estatua. Ekonomia berdeak eskatzen du Foru Komunitatean behar bezala ezartzea politika eraldatzaile batzuk, eragina izanen dutenak eskualdeen garapenean:

#### 1 EREDU EKONOMIKO BERRI BAT EZARTZEA.

Lehiakortasunean oinarritua, Nafarroako produktuak merkatuetan sartzeko jarduera eta enplegua sortzeko gaitasun gisa, ahal dela gertukoa eta emisio-maila ahalik eta txikiena duena.

#### 2 DIBERTSIFIKAZIO ADIMENDUNAREN BIDEZ ERRESILIENTZIA SORTZEA. (S4).

Fenomeno batzuek krisiak sortzen dituzte, eta batez ere sektore espezializatuari eragiten diete.

#### 3 SEKTORE PUBLIKOAREN TRAKTATZIO-GAITASUNA INDARTZEA. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA ETA ELKARLAN-SAREAREN FUNTZIONAMENDUA SUSTATZEA. LAGUNTZA PUBLIKOAK,

ogasuna, fiskalitatea eta aurrekontu jasangarriak sartzea. Karbono gutxiko ekonomia zirkularra sustatzea, eta abar.

#### 4 SEKTORE ETA JARDUERA EMERGENTEAK APROBETXATZEA.

Enplegua modu jasangarri eta bidezkoan sortzea, sortzen ari diren enplegu berdeak aprobetxatuz. Turismoa, ikerketa, digitalizazioa, baliabideak eta aniztasunarekiko arreta.



Nafarroan trantsizio energetikoa garatzeko, Nafarroako Gobernuak ekimen eragile hauek garatu ditu -plan, programa, estrategia edo ekimenen formatuan-, zeinek mailakatze desberdina baitute jasangarritasunean dituzten ondorioei dagokienez, betiere politika eraldatzaileen barruan eta eremu estrategiko honek garatutako Garapen Jasangarrirako Helburu nagusiei dagokienez.

# 3.4 Ekonomia berdea



GJH	EKIMEN ERAGILEA	JASANGARRITASUNAREN GAINEKO ERAGINA	LURRALDEAREN GAINEKO ERAGINA	POLITIKA ERALDATZAILEA
	Nafarroako 2021-2024 Enplegu Plana (haren parte da Enplegu Politika Aktiboan Plana)	●	●	Sektore publikoaren trakzio-ahalmena.
	S4 Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (2021-2027).	●	●	Dibertsifikazio adimenduna
	Ekintzaitetzako III. Plana (2021-2024)	●	●	Jarduera emergenteak
	Nafarroako Nazioarteko Plana, PIN 4 (2021-2022)	●	●	Jarduera emergenteak
	Nafarroako Lan Autonomoaren II. Plana (2022-2025)	●	●	Jarduera emergenteak
	Turismo Plana (2018-2025)	●	●	Jarduera emergenteak / Sektore publikoaren trakzio-gaitasuna.
	Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Plana (Nafarroa)	●	●	Sektore publikoaren trakzio-ahalmena.
	Nafarroako Txikizkako Merkataritza Bultzatzeko Plana (2022-2025)	●	●	Dibertsifikazio adimenduna
	Nafarroako Energia Plana 2030 - NEP2030	●	●	Eredu ekonomikoa
	Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (2021-2025)	●	●	Dibertsifikazio adimenduna
	Nafarroako Industria Plana (2021-2025)	●	●	Eredu ekonomikoa
	Landa Garapeneko Programa (2021-2027)	●	●	Sektore publikoaren trakzio-ahalmena.
	Eskualde Garapeneko Europako Funtsa-EGEF Nafarroa (2021-2027)	●	●	Sektore publikoaren trakzio-ahalmena.
	Nafarroako Lurralde Estrategia - NLE (2005)	●	●	Eredu ekonomikoa
	Ekonomia Sozialaren II. Plan Integrala (2021-2024)	●	●	Jarduera emergenteak

6. taula: Gobernuak harturiko ekimen eragileen zerrenda, ekonomia berdearen arlo estrategikoarekin loturik, ENS 2030 NEJ onetsi zenean. Iturria: geuk egina

### Jasangarritasunean dituen ondorioak:

- **Oso handia** / Politika sektorialak eragin zuzena du jasangarritasunean. Haren emaitzek erantzuten diete arlo tematikoaren erronkei.
- **Ertaina** / Erronketan duen eragina, ekintzen diseinuaren arabera.
- **Txikia** / Arlo tematikoarekin zerikusia duen politika sektoriala, baina haren emaitzek ez dute eragin zuzenik erronketan.

### Eraginak lurraldean:

- **Oso handia** / Ekimen publikoak eragina du lurralde-fenomenoen banaketan, bai eta lurralde-antolamenduko eskumenetan ere.
- **Ertaina** / Lurralde Garapeneko Ereduan aintzat hartutako xedapenei eragiten die.
- **Txikia** / Ekimen publiko oso zehatza da, eta lurralde-eskala zehatza du.

## 3.4 Ekonomia berdea



GJH	EKIMEN ERAGILEA	JASANGARRITASUNAREN GAINEKO ERAGINA	LURRALDEAREN GAINEKO ERAGINA	POLITIKA ERALDATZAILEA
	Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kooperatibak integratzeko Esparru Estrategikoa (2018-2022)			Jarduera emergenteak
	Lanbide Heziketaren Plan Estrategikoa (2017-2020)			Jarduera emergenteak
	Medikuntza Pertsonalizatuaren Nafarroako Estrategia Orohartzailea (2021-2030)			Dibertsifikazio adimenduna
	Nafarroa Susperitu Plana (2020-2023)			Eredu ekonomikoa
	Garraioak Ikuskatzeko Nafarroako XIV. Plana (2018)			Sektore publikoaren trakzio-ahalmena.
	Nafarroako Banda Zabalaren Plan Zuzentzailea (2021)			Dibertsifikazio adimenduna
	Nafarroan Ekonomia Zirkularra garatzeko agenda (2030)			Sektore publikoaren trakzio-ahalmena.
	ekoizpen Ekologikoa Sustatzeko Plana (2018-2020)			Jarduera emergenteak
	Toki Inbertsioetako Programa (2017-2019) - Luzapena			Sektore publikoaren trakzio-ahalmena.
	Finantzaketa Jasangarrirako Esparrua			Sektore publikoaren trakzio-ahalmena.
	Nafarroako tributu- eta aurrekontu-sistema			Sektore publikoaren trakzio-ahalmena.
	Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plan Estrategikoa (2022-2027)			Jarduera emergenteak

Ekimen publikoen zerrenda eguneratuta dago estrategia hau idatzi den egunean. Aldian-aldean eguneratzea aztertu beharko litzateke, bai eta ekimen bakoitzaren lerrokadura berrikustea ere, ebaluazio-prozesuak egin ahala.





## 3.5 Kohesio soziala







10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA



1 POBREZIA DESAGERRARAZTEA



3 OSASUNA ETA ONGIZATEA



4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



5 GENERO BERDINTASUNA



8 LANDUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA



11 HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK



16 BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK



## EKITATEA

## ABIAPUNTUKO EGOERA

Justizia, berdintasuna, elkartasuna eta giza eskubideak hartu behar dira balio unibertsal gisa, eta haiek gaitu eta orientatu behar dituzte gizarteak erronka global handiei aurre egiteko. Erantzunak pertsonak jarri behar ditu lehenbiziko tokian, edozein izanik ere haien jatorria eta egoera. Era berean, errespetatu egin behar du gure planeta, bai eta etorkizuneko belaunaldiak hura erabiltzeko eta hartaz gozatzeko duten eskubidea ere. Ildo beretik, aurrerapen partekatatu, seguru eta jasangarria sortu behar du; bakea eta justizia eraiki behar ditu; eta guztiona izan behar du, aliantzan (Agenda 2030 inplementatzeko Ekintza Plana).

Garapen jasangarriaren oinarrian dauden balioak -berdintasuna eta justizia soziala- nekez lortuko dira gizarte kohesionaturik izan ezean. Gizarte kohesionatuak pertsona guztiek integratuak dira, norberaren ongizatea bermatzen dute, eta aukera-berdintasuna eskaintzen dute inor atzean ez uzteko. Halaxe jasotzen dute Nazio Batuek 2030 Agendan. Inguruabar horietan, funtsezko eginkizuna du lurralde-egituraketak. Eskualdeko espazioa aukera-berdintasunaren bidez egituratzearen poderioz, pertsona bakoitza haren parte sentituko da, edozein dela ere haren bizilekua. Hartara, beste ezaugarri bat gehitzen zaio bizi-kalitatearen kontzeptuari, eta, ahal den neurrian, ongizate-estatuari.

Garapen jasangarriko gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzeak, besteak beste, alderdi hauek biltzen ditu: herritar guztiei justiziarako sarbidea erraztea; justizia eta justizia horren gailurra lortzea, hau da, bakea; be-

hartsuenei justizia eskuratzeko oinarrizko eskubidea erraztea; narkotrafikoaren, ustelkeriaren eta nazioz gairako delinkuentzia antolatuen aurkako borroka indartzea; eta teknologia berriak aplikatzea justizia-administrazioari, azkarragoa, arinagoa eta eraginkorragoa izan dadin, eta, beraz, zorrotz bete dezan bere eginkizuna -batetik, errudunak zigortzea eta, bestetik, eragindako kaltea atzerapenik gabe konpontzen laguntzea-. Desberdintasunaren aurkako borrokaren eremu orokorrean kokatu behar da justizia eskuratzeko berdintasunaren sustapena, gizarte-kohesioko beste elementu bat baita, gizarte demokratiko oren oinarria; izan ere, ekonomiaren, gizartearen edo hezkuntzaren arloko kalteberatasuna ezin da izan inoiz oztopo, estatuak herritarrei ematen dien babes juridikoa lortzeko.

Europar Batasunaren helburuetako bat da geografikoki hobeki banaturiko hazkundera bermatzea. Europako Lurralde Estrategiak (1999) honela definitu zuen garapen polizentrikoa edo polizentrismoa: eremu periferikoetarako ikuspegi berriak eskaintzen dituen lurralde-garapenerako modu bat, oinarri gisa hartzen dituen, batetik, landaguneeen eta hiriguneeen arteko erlazio berri bat lortzea, bigarrenik, zerbitzu eta azpiegituretarako sarbidea erraztea pertsona guztiei, eta, hirugarrenik, garapen endogenoa, aniztasuna eta lurraldearen erabileren eraginkortasuna sustatzea. Emaitza gisa, eskualde kohesionatu, erresiliente eta jasangarri bat lortzen da. Erresilientzia handiagoa izateak jardura ekonomikoen dibertsifikazio



handiagoa esan nahi du, funtzionaltasun eta lurralde-kapitala kudeatzeko gaitasun handiagoa, eta, beraz, egokitzeko eta erantzuteko gaitasun hobea, pertsonen zein eskualdeek dituzten edozein zailtasunen aurrean. Foru Komunitatean, Nafarroako Lurralde Estrategian jasotzen dira printzipio horiek.

Azken hamarkadetan, hazkunde ekonomikoarekin lotutako dinamika sozialek Nafarroako hiriburuan kontzentratzeko joera izan dute, eta, horrenbestez, kokagune-sistemaren polizentrikotasuna ahultzekoa. Hori horrela, hiru joera hauteman dira: jarduerak eta biztanleria Iruñea eta Iruñerri inguruan kontzentratzea, bitarteko guneen pisu ekonomiko eta demografikoa galtzea, eta, azkenik, landa-eremu batzuek duten despulazio-arriskua. Gai horiek eta beste zenbaitek –hala nola zahartzea, immigrazioa, integrazioa, jaiotza-tasa txikia eta abar– osatzen dute demografia-erronka deritzoguna.

Dinamismo demografikoa galtzeko dinamika horrek ahulezia ekonomiko eta sozial handiagoa eragin du eskualde behartsuenetan. Baldintza horiek ahuldu egiten dute etorkizunean garatzeko duten ahalmena, eta areagotu egiten dituzte lurralde-desorekak. Era berean, landa-eremuak despulatzeak eta abandonatzeak inpaktu negatiboak sortzen ditu ingurumenean, kultura-ondarean eta paisaian. Ezinbestekoa da lurraldeen arteko desorekak murriztuko dituzten mekanismoak bilatzea, despulazio- eta zahartze-arriskuak arintzeko, desberdintasun sozioekonomikoei aurre egiteko eta, batez ere, aniztasunarekiko errespetua bultzatzeko.

Bestalde, gizarte-kohesioak lotura estua du pertsonen trebakuntzarekin, jarduerekin, enplegua lortzearekin eta bidezko soldatekin. Desberdintasunak murriztu egiten dira pertsonen beren premiak asetzeko bermea dutenean. Botere publikoek ordainsari-justizia bermatu behar dute, eta,

horretarako, esku hartu behar dute lan-merkatuan eta jardueren sorreran. Europar Batasuneko egitura-funtsek Europa adimenduna, jasangarria eta kohesionatua lortzeko inbertsioak finantzatzen dituzte, eta horiei Next Generation funtsak gehitu zaizkie. Nafarroako Gobernuak zenbait ildo estrategiko ezarri ditu Foru Komunitatearen lurralde- eta gizarte-kohesiorako, eta, zehazki, arlo hauetako proiektuak biltzen dituzte: digitalizazioaren ikuspegi integrala (Nafarroa Digitala), Nafarroako gizarte-zerbitzuak indartzea eta gizarteratzea, iraupen luzeko zainketen berrikuntza, Nafarroako Bizikidetzarako Plan Estrategikoa, Lehen Mailako Arreta Sarearen lurralde-estaldura handitzea, osasun-ekipamendua, berroneratzea, berrikuntza eta arreta pertsonalizatua, hezkuntza-ekipamenduak eta -zerbitzuak, indarkeria matxistarik gabeko bizitza, zerbitzu eta ekipamenduetarako eskuragarritasuna landa-eremuetan, eta abar.

Zalantzarik gabe, positiboa da eskualdeen arteko konparazioa –izan autonomia-erkidegoena, izan Europako eskualdeen artekoa–. Nafarroa tokirik onenetan ageri da pobrezia- eta desberdintasunaren adierazle jakin batzuetan Espainian, eta, igoera txikia izan den arren, AROPE tasa txikiena duen EBko hamargarren eskualdea izaten jarraitzen du.

Nafarroak egoera oso nabarmena du, askoz txikiagoak baitira pobrezia eta desberdintasuna eskualdeen artean edo Europako beste herrialde batzuekin alderatuta. Hori hala izanik ere, oraindik ageri dira zenbait puntu kritiko: Foru Komunitatearen barruko desadostasun argia, bai biztanle-talde jakin batzuetan, bai iparraldetik hegoaldera alde nabarmenak ageri diren heinean; haur-pobrezia-eragina; pobrezia-eraginaren feminizazioa; nazionalitatea, pobrezia ekonomiko izateko pisuzko elementu gisa; eta, azken buruan, pobrezia larriak ongizaterako eta gizarte-kohesiorako kezagarria den pertsona-portzentaje bati eragiten jarraitzen dio. (Nafarroako pobrezia- eta gizarte-desberdintasunari buruzko IV. Txostena).





### Ahuleziak

- Zatiketa administratiboa, gizarte-prestazio baliokideak bermatzea zailtzen duena.
- Langabezia eta jarduera-tasa.
- Lurralde-desorekak. Errenta-mailak, pobrezia, integrazioa, erronka demografikoa, etab.
- Berdintasunezko presio fiskal pertsonala eta lurralde-konpentsaziorako mekanismorik eza.
- Genero-arrakala enpleguan, kontratu motaren eta lanaldiaren arabera, zainketen kulturalen, eta abar.
- Pobreziaren feminizazioa.
- Pentsioen arteko arrakala, baliabideak eta baliabideak eskuratzeko aukera desberdin banaturik emakumeen eta gizonen artean, indarkeria matxista.



### Mehatxuak

- Krisi globalen aurrean maniobra-gaitasun txikia.
- Zainketen kultura generoari loturiko auzizat mantentzea.

## AMIA MATRIZEA



### Indarrak

- Zerbitzu eta azpiegituretarako irisgarritasun orokorra.
- Prestakuntza-maila handia.
- Asoziazionismoa eta hirugarren mailako egiturak.
- Bitartekaritza-kultura errotua.



### Aukerak

- Europar Batasuneko egitura funtsen eta Next Generation funtsen erabilera efizientea.
- Foru-araubidea
- Jarduera eta enplegua sortzen duten "bestelako baliabideak" aktibatzea: zainketa-kultura, ekonomia berdea, tokiko garapena, etab.
- Jarduera espezializatuak (mikrozentraltasunak) formalizatzeko sormena.




### POLITIKA ERALDATZAILEAK ETA EKIMEN ERAGILEAK

**1 POBREZIAREN ETA GIZARTE-BAZTERKERIAREN AURKAKO BORROKA.** Pobrezia-arriskuan dauden pertsonentzako arreta. Desberdintasunei aurre egitea, landa-eremua eta erronka demografikoa barne, mekanismoak ezartzea, errenta bermatua.

**2 ANIZTASUNARI ERANTZUTEA. BEHIN BETIKO GENERO-BERDINTASUNA GIZA ERRONKA NAGUSIETAKO BAT IZATEA.** Aukera-berdintasuna pertsona eta kolektibo guztientzat. Kolektibo ahulenak gizarteratzea.

**3 BIZI-KALITATEA ETA ONGIZATE-ESTATUA SUSTATZEA.** Ongizatea eta bizitza osasuntsua sustatzea adin guztietan, ekintza soziala eta sektoreartekoa sustatzea, inbertsio publikoa, osasun- eta justizia-politika publikoak, etab.





# 3.5 Kohesio soziala



GJH	EKIMEN ERAGILEA	JASANGARRITASUNAREN GAINEKO ERAGINA	LURRALDEAREN GAINEKO ERAGINA	POLITIKA ERALDATZAILEA
	Nafarroako Gizarteratze Plan Estrategikoa (2018-2021)			Aniztasunari erantzutea
	Nafarroako Enplegu Plana (2021-2024)			Aniztasunari erantzutea
	Nafarroako Ijitoen Garapenerako Estrategia (2019-2022)			Aniztasunari erantzutea
	Familiak, Haurrak eta Nerabeak Laguntzeko Plan Integrala (2017-2023)			Aniztasunari erantzutea
	Desgaitasunak dituzten Pertsonak Artatzeko Plan Integrala (2019-2025)			Aniztasunari erantzutea
	Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa (2019-2023)			Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	S4 Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (2021-2027).			Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa (2017-2021)			Aniztasunari erantzutea
	Pertsona Migratzaileei Harrera Egiteko Nafarroako Plana (2021-2026)			Pobrezia eta gizarte-bazterketa
	Arazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Borrokarako Nafarroako Plana (2021-2026)			Pobrezia eta gizarte-bazterketa
	Nafarroako Bizikidetzaren I. Plan Estrategikoa (2021-2024)			Aniztasunari erantzutea
	Nafarroako Osasun Plana (2014-2020)			Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Osasun Mentalaren III. Plana (2019-2023)			Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Arreta Komunitarioaren Nafarroako Estrategia (2019-2022)			Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Osasun Publikoaren Plana (2016-2020)			Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Nafarroako Zahartze Aktiboaren eta Osasungarriaren Estrategia (2017-2022)			Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Nafarroako Lan Osasuneko Ekintza Plana (2017-2020)			Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua

7. taula: Gobernuak harturiko ekimen eragileen zerrenda, gizarte-kohesioaren arlo estrategikoarekin loturik, ENS 2030 NEJ onetsi zenean. Iturria: geuk egina

**Jasangarritasunean dituen ondorioak:**

- Oso handia** / Politika sektorialak eragin zuzena du jasangarritasunean. Haren emaitzek erantzuten diete arlo tematikoaren eronkei.
- Ertaina** / Erroketan duen eragina, ekintzen diseinuaren arabera.
- Txikia** / Arlo tematikoarekin zerikusia duen politika sektoriala, baina haren emaitzek ez dute eragin zuzenik erroketan.

**Eraginak lurraldean:**

- Oso handia** / Ekimen publikoak eragina du lurralde-fenomenoen banaketan, bai eta lurralde-antolamenduko eskumenetan ere.
- Ertaina** / Lurralde Garapeneko Ereduan aintzat hartutako xedapenei eragiten die.
- Txikia** / Ekimen publiko oso zehatza da, eta lurralde-eskala zehatza du.

# 3.5 Kohesio soziala



GJH	EKIMEN ERAGILEA	JASANGARRITASUNAREN GAINEKO ERAGINA	LURRALDEAREN GAINEKO ERAGINA	POLITIKA ERALDATZAILEA
	Osasunbidea-NOZen Plan Estrategikoa (2015-2020)	●	●	Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	III. Prebentzio-plana: Drogak eta Adikzioak (2018-2023)	●	●	Pobrezia eta gizarte-bazterketa
	Nafarroa Suspertu Plana (2020-2023)	●	●	Aniztasunari erantzutea
	Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Operatiboa (2022)	●	●	Aniztasunari erantzutea
	Nafarroako Suhiltzaileen Plan Estrategikoa (2020-2023)	●	●	Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Foruzaingoaren Plan Estrategikoa (2020-2023)	●	●	Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Jokoaren eta ikuskizunen alorrerako I. Ikuskapen eta Kontrol Plana (2017-2020)	●	●	Pobrezia eta gizarte-bazterketa
	Gazteriaren III. Foru Plana (2021-2023)	●	●	Aniztasunari erantzutea
	Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako Plan Estrategikoa (2022-2027)	●	●	Aniztasunari erantzutea
	Ekintza plana. Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea garatzeko.	●	●	Aniztasunari erantzutea
	Emakumeen parte hartze sozial eta politikorako Estrategia (2017-2019)	●	●	Aniztasunari erantzutea
	Sexu esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatxekin koordinatzeko eta jarduteko protokoloa	●	●	Aniztasunari erantzutea
	Nafarroako Lurralde Estrategia - NLE (2005)	●	●	Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Etxebizitza Plana (2018-2028)	●	●	Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Lurralde antolamenduko planak - LAP (2011)	●	●	Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Bakerako eta Bizikidetzarako Programak	●	●	Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Justizia errestituzioaren eta zigor-betearazpenaren Nafarroako Eredua	●	●	Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua
	Udalerrietan justizia-bulegoak ezartzea	●	●	Bizi-kalitatea eta ongizate-estatua

### Jasangarritasunean dituen ondorioak:

- **Oso handia** / Politika sektorialak eragin zuzena du jasangarritasunean. Haren emaitzek erantzuten diete arlo tematikoaren erronkei.
- **Ertaina** / Erronketan duen eragina, ekintzen diseinuaren arabera.
- **Txikia** / Arlo tematikoarekin zerikusia duen politika sektoriala, baina haren emaitzek ez dute eragin zuzenik erronketan.

### Eraginak lurraldean:

- **Oso handia** / Ekimen publikoak eragina du lurralde-fenomenoen banaketan, bai eta lurralde-antolamenduko eskumenetan ere.
- **Ertaina** / Lurralde Garapeneko Ereduan aintzat hartutako xedapenei eragiten die.
- **Txikia** / Ekimen publiko oso zehatza da, eta lurralde-eskala zehatza du.

*Ekimen publikoen zerrenda eguneratuta dago estrategia hau idatzi den egunean. Aldian-aldean eguneratzea aztertu beharko litzateke, bai eta ekimen bakoitzaren lerrokadura berrikustea ere, ebaluazio-prozesuak egin ahala.*





### 3.6 Konpromiso partekatua





1 POBREZIA  
DESAGERRARAZTEA



5 GENERO  
BERDINTASUNA



10 DESBERDINTASUNAK  
MURRIZTEA



11 HIRI ETA KOMUNITATE  
JASANGARRIAK



16 BAKEA, JUSTIZIA  
ETA INSTITUZIO  
SENDOAK



# JUSTIZIA

## ABIAPUNTUKO EGOERA

2030 Agendak pertsonen, kulturen eta zibilizazioen arteko dibertsitate naturala aitortzen du, ulermena eta tolerantzia sustatzeko existitzen diren moduen artean. Erantzukizunak gauzatzean, pertsonak zein erakundeek balio unibertsalak eta elkarrekiko errespetua hartu behar dituzte ardatz gisa. Badira beste erronka orokor batzuk ere, hala nola pobrezia eta gosea amaitzea mundu zabalean, herrialdeen barruko desberdintasunei aurre egitea eta, elkarren artean, gizarte baketsuak, bidezkoak eta inklusiboak eraikitzea, giza eskubideak babestea eta oparotasuna lortzea lan duinaren eta trebakuntza pertsonalaren bidez, eta ingurumenaren kalitateari eta planetaren baliabideei eustea etorkizuneko belaunaldientzat. **Fenomeno multzo hori** lankidetzaren-estrategiekin (aliantzak) eta beharrezko kultural-aldaketarekin lotutako **konpromiso partekatua** da. Herritarren trebakuntza gizarte-kohesioaren erronkan txertatuta dago, baina, pertsona guztien oparotasuna lortzeko, beharrezkoa da funtzioen antolaketa (governantza) eta Giza Eskubideak planeta osoan ezartzeko interesa izatea. Konpromiso partekatua da, eta eskala guztiak zeharkatzen ditu, hasi konpromiso pertsonaletik eta 2030 Agendaren helburuak lortzeko konpromiso globalera.

Tradizionalki, governantzak aztertzen zuen zer-nola antolatzen diren eskubide eta betebeharrak zuzenbide-estatu batean, eta aztertzen zuen,

orobat, nola antolatzen diren hiru botereak (legegilea, betearazlea eta judiziala) dagozkien administrazio- eta lurralde-eskaletan. Europar Batasunak<sup>3</sup> honela definitzen du **governantza**: herritarrek gobernu-erakunde publikoei ematen dizkieten botereak erabiltzeko modua. Hau da, erakundeek beren premiei ematen dieten erantzunari buruz pertsonak duten pertzepzioa jasotzen du. Hori dela eta, governantzak printzipio hauek ditu bereizgarri: irekitasuna, parte-hartzea, erantzukizuna, eragin-kortasuna, koherentzia, proportzionaltasuna eta subsidiarotasuna.

Ingurumen-hauskortasuna, gizarte-aniztasuna, sistema ekonomikoaren konplexutasuna eta eskualdeko eta tokiko berezitasunak ez ezik, **malgutasuna** ere aintzat hartu behar da, garapen jasangarriaren ezaugarriekin batera baitoa nahitaez. Eskala eta berezitasun horietara egokitutako arau-esparruak aplikatzea malguta izaten ahal da. Hala ere, politika publikoen ebaluazio-prozesuek ezarriko dituzte haien doikuntza eta kalitatea ezarritako helburuarekiko. Ebaluazio-prozesuek politika publikoak ezartzen lagundu behar dute. ENS 2030 NEJk **jasangarritasunari buruzko politika publikoak ebaluatzeko tresna bihurtu behar du**, eta erraztu egin behar du tokikotasunaren eta globaltasunaren arteko eskala-joko hori.

Aniztasuna ere konpromiso bat da, hainbat eskalatan partekatua, baina baita eskubide bat ere. Horregatik, tokiko eta eskualdeko agintariek ba-

<sup>3</sup> COMISIÓN EUROPEA (2022): "Stormy Times. Nature and humans: Cultural courage for change". Disponible sólo en inglés. (<https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/0380f31c-37c9-11ed-9c68-01aa75ed71a1/language-en>).



## 3.6 Konpromiso partekatua



dute pertsona, talde eta eremu kalteberez arreta berezia emateko ardura ere. Kalteberatasuna hainbat politikak adierazle kuantitatiboekin lotuta dago, zeinak aurreko arlo estrategikoetan deskribatu baitira. Aniztasuna konpromisotzat hartzen bada, aniztasuna, berez, kaltebera da.

**Herritarren ikuspegia** eta pertsonen pertzepzioak txertatzeak, erantzukizuna gauzatzeari dagokionez, arauak malgutasunez aplikatzea esan nahi du, gizarte- eta lurralde-aniztasunak hala eskatzen baitu koherentziarako eta eraginkortasunerako. Herritarren parte-hartzeak eta pertzepzioak konfiantza bermatzen du gobernu-erakundeen erabaki politikoeikiko eta heldutasunarekiko.

Politika publikoen diseinuan eta ezarpenean pertsonengana hurbiltzeak, partaidetza- eta subsidiarotasun-printzipioak aplikatzeko bermeaz gainera, badu zerikusia belaunaldien arteko justiziarekin eta sarbide balioki-

dearekin ere. Hori horrela, 2030 Agenda eta jasangarritasunaren ikuspegia bereganatzea eta teknikariak eta eragileak ez ezik gizartea oro har ere gaitzea politika eraldatzaile bihurtzen da. Nafarroan, jabetzeaz gainera, badira beste bi politika zuzenean atxikiak deskribatutako fenomeno horiei:

- 2030 Tokiko Agenda, Tokiko Agenda 21 en ordezt hartua eta Garapen Jasangarrirako Helburuak eta hiri-agendak kokatzeko tresna gisa.
- Garapenerako lankidetzak-politika (elkartasuna eta erantzukizuna) (alianzazak).

Konpromiso partekatuak lotura zuzena du jasangarritasunaren belaunaldien arteko konpromisoarekin. Baina belaunaldien arteko konpromiso horrek ikuspegi indibiduala du, eta baliteke bat ez etortzea ikuspegi globalarekin.





### Ahuleziak

- Erakunde bakoitzaren gaitasunak, erantzukizunak eta funtzioak.
- Muturreko joeretarantz egiteko nolabaiteko joera. Beharbada, askatasun-estatuaren esanahiari buruzko prestakuntza eskasagatik.
- % 0,7ra iristeko ezintasuna (barne-eskaerak azkarrago hazten dira elkartasuna baino).
- Zailtasuna Nafarroako Aurrekontu Orokorren % 1 berdintasun-politika publikoetara bideratzeko.



### Mehatxuak

- Kanpo-eragina adierazleak neurtzean: berotegi-efektuko gasak, adibidez.

## AMIA MATRIZEA



### Indarrak

- Foru-araubidea, ainguraketa historiko sendoa duena.
- Aitzindariak Tokiko Agenda 21 eta bildutako jardunbide egokien bilduma aplikatzen.
- Aitzindariak nazioarteko lankidetzako politiketan.
- Berdintasunaren arloko foru-legeria, estrategiak eta foru-planak.



### Aukerak

- Kanpora begirako gaitasunak.
- Politika publikoen ezarpena diseinatzen eta ebaluatzen laguntzen duten sareetan parte hartzea.



### POLITIKA ERALDATZAILEAK ETA EKIMEN ERAGILEAK

Gobernantza hobea lortzeko aldaketa kulturala pertsonen, taldeen, erakundeen, tokiko eta eskualdeko agintarien, estatuaren eta gizarte zibilaren konpromisoa da. 2030 Agenda ere tresna egokia da horretarako. Horregatik gauzatzen da tokiko eskalan eta garapenerako lankidetzan.

**1** GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK TOKIKOTZEN LAGUNTZEA, esate baterako, Tokiko 2030 Agendak DISEINATUZ ETA EZARRIZ.

**2** Agenda 2030 eskuratzea zabaltzen laguntzea, eta **PERTSONAK ETA ERAKUNDEAK JASANGARRITASUNAREN IKUSPEGIAREN BIDEZ GAITZEA GOBERNU-JARDUNEAN**, lankidetzaz-politikarekin edo proiektu berritzaileak finantzatzeko ebaluazioaren kasuan egiten den bezala.

**3** Nafarroako NAZIOARTEKO HARREMANAK indartzea.

Konpromiso partekatu hori aktibatzeke eta gauzatzeko, Nafarroako Gobernuak ekimen eragile hauek garatu ditu, plan, programa, estrategia edo ekimenen formatuan, zeinek mailakatze desberdina baitute jasangarritasunean, politika eragileen barruan eta arlo estrategiko honek garatutako Garapen Jasangarrirako Helburu nagusiei dagokienez.



# 3.6 Konpromiso partekatua



GJH	EKIMEN ERAGILEA	JASANGARRITASUNAREN GAINEKO ERAGINA	LURRALDEAREN GAINEKO ERAGINA	POLITIKA ERALDATZAILEA
	Nafarroa Ezagutu Sarea	●	●	Tokiko Agenda 2030
	Hezkuntza-sistema, IKTak, aniztasunari erantzutea	●	●	Pertsonak eta erakundeak trebatzea
	Nafarroako Lankidetzaren III. Plan Zuzentzailea (2021-2024)	●	●	Nazioarteko Harremanak
	S4 Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia (2021-2027).	●	●	Tokiko Agenda 2030
	Nafarroako Nazioarteko Plana, PIN 4 (2021-2022)	●	●	Nazioarteko Harremanak
	Nafarroako Kanpo Ekintzako Plana (2021-2024)	●	●	Nazioarteko Harremanak
	Nafarroa Suspertu Plana (2020-2023)	●	●	Pertsonak eta erakundeak gaitzea
	Gobernu Irekiaren I. Plana (2021-2023)	●	●	Pertsonak eta erakundeak gaitzea
	Nafarroako Lurralde Estrategia - NLE (2005)	●	●	Tokiko Agenda 2030
	Pirinioetako Ekintza Plana	●	●	Tokiko Agenda 2030
	Tokiko Agenda 21 eta Hiri Agenda berria, 2030erako Tokiko Agendarantz	●	●	Tokiko Agenda 2030
	Toki Inbertsioetako Programa (2017-2019) - Luzapena	●	●	Tokiko Agenda 2030
	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan Estrategikoa (2022-2027)	●	●	Pertsonak eta erakundeak gaitzea

8. taula: Gobernuak harturiko ekimen eragileen zerrenda, konpromiso partekatuaeren arlo estrategikoarekin loturik, ENS 2030 NEJ onetsi zenean. Iturria: geuk egina

**Jasangarritasunean dituen ondorioak:**

- **Oso handia /** Politika sektorialak eragin zuzena du jasangarritasunean. Haren emaitzek erantzuten diete arlo tematikoaren erronkei.
- **Ertaina /** Erronketan duen eragina, ekintzen diseinuaren arabera.
- **Txikia /** Arlo tematikoarekin zerikusia duen politika sektoriala, baina haren emaitzek ez dute eragin zuzenik erronketan.

**Eraginak lurraldean:**

- **Oso handia /** Ekimen publikoak eragina du lurralde-fenomenoen banaketan, bai eta lurralde-antolamenduko eskumenetan ere.
- **Ertaina /** Lurralde Garapeneko Ereduan aintzat hartutako xedapenei eragiten die.
- **Txikia /** Ekimen publiko oso zehatza da, eta lurralde-eskala zehatza du.

*Ekimen publikoen zerrenda eguneratuta dago estrategia hau idatzi den egunean. Aldian-aldian eguneratzea aztertu beharko litzateke, bai eta ekimen bakoitzaren lerrokadura berrikustea ere, ebaluazio-prozesuak egin ahala.*





# 4

## ENS·2030· NEJ-ren governantza- sistema



## 4. ENS-2030-NEJ-REN GOBERNANTZA-SISTEMA

ENS 2030 NEJen gobernantzak haren aplikazioa bermatzea eta administrazio publikoen prozesu guztietan jasangarritasunaren ikuspegia txertatzea esan nahi du.

### 4.1. ADMINISTRAZIOKO GOBERNANTZARI BURUZKO ORIENTABIDE OROKOR BATZUK

Batzar Nagusiaren 70/1 Ebazpenak (**Gure mundua eraldatzea: Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda**) ez du ezartzen gobernantza-sistemarik Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko, baina adierazten du gobernantza eta zuzenbide-estatu funtsezko elementuak direla garapen jasangarria lortzeko. 2030 Agenda, berez, garapen jasangarriaren gobernantza-prozesu batean aplikatzen ahal den tresna bat da. Halaxe irizten dio Nafarroako Gobernuak, **eskualde-garapenaren plangintza estrategikorako tresna gisa baitauka ezarririk**. Nazio Batuen ebazpena irakurrita, zenbait ezaugarri hautematen ahal dira gobernantza-sistemetarako:

- Erakunde garden eta eraginkorrak ezarri behar dira.
- Hartutako nazioarteko konpromisoekin zerikusia duten arauak ezarri behar dira.
- Jarraipen- eta azterketa-tresnak ezarri behar dira, “kalitate-adierazle fisiko eskuragarriak, egokiak eta fidagarriak dituztenak, aurrerapenak neurtzen laguntzeko eta inor atzean geratzen ez dela ziurtatzeko”.
- Kontuan hartu behar dira talde eta eremu kalteberak.
- Subsidiarotasun-printzipioa aplikatu behar da, ezartzen baitu administrazio-maila bakoitzak ezarriko dituela bere helburuak, jarraipena eta lortutako aurrerapenen azterketa, Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeari dagokionez.
- Politika publikoen eta plangintza-prozesuen garrantzia ezartzen du.
- Mundu-aliantza bat ezartzen da, Agenda bera (Garapen Jasangarrirako 17. Helburua) eta gobernantzarako orientabideak (Garapen Jasangarrirako 16. Helburua) inplementatzeko.

Gobernantzaren barruan biltzen dira **administrazioetan botereak eta eskumenak gauzatzeko moduari buruzko arau, prozedura eta praktika guztiak**. Gaur egun, partaidetza-tresnen bidez herritarrekin partekatutako eskumen-erabileraren arteko beharrezko harremanei ere egiten die erreferentzia gobernantzak. Hori horrela, politika publiko eraginkoragoak eta koherenteagoak formulatzea eta aplikatzea lortzen da, gizarte zibileko erakunde eta erakunde publikoen arteko loturak ezarri ahal izateko, bai eta legeriaren kalitatea hobetzeko eta demokrazia indartzeko eta erakundeak legitimatzeko ere.

2001ean, Europako Batzordeak La Gobernanza Europea. Un libro Blanco argitaratu zuen (Europako Gobernantza. Liburu zuri bat, 2001/10/12an argitaratua Europako Erkidegoen Egunkari Ofizialean). Liburu zuriak printzipio horiek deskribatzen ditu, zeinak demokraziaren eta zuzenbide-estatuaren oinarri baitira, eta gobernu maila guztietan aplikatu behar dira: nazioartean, Europan, herrialdean, eskualdean eta tokian-tokian. Hauexek dira aipaturiko printzipio horiek: irekitasuna, parte-hartzea, erantzukizuna, eraginkortasuna, koherentzia, proportzionaltasuna eta subsidiarotasuna.

Gobernantza-sistemek kontuan hartu behar dituzte printzipio horiek ekimen publikoak diseinatzerakoan, helburuen sorreratik eta planteamendutik abiatuta; hala lortuko dute modu eraginkorrean antolatzea tresnak eta zer mailatan jardun behar den, lortu nahi diren helburuen proportzioan.

Gobernantza-irizpide horiek erakunde eta entitateei aplika dakizkieke, kontuan izanik prozedurak eta arauak behar dituztela antolatzeko eta funtzionatzeko, eta, hartara, gobernagarritasuna bermatzeko. Gobernagarritasuna zera da, erakunde baten gobernantza edo gobernu-gaitasuna gauzatzeko gaitasuna. Hori dela eta, beti da gomendagarria, partaidetzaren eta demokraziaren balioei jarraituz, gobernantza-sistemak ezartzea, eta gomendagarria da, orobat, horiek aplikatzeko gaitasuna duten eragileek eta erakunde horietan inplikaturik dauden pertsonak (kasu honetan, publikoek eta pribatuek) ongi ezagutzea.



lido horretan, ekimen bat abiarazi aurretik, funtsezkoa da alderdi hauei buruz gogoeta egitea:

- Jardun publikoa beharrezkoa ote den. Kasu honetan, argi dago, Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko hartutako konpromisoak baitira eta 2030 Agenda eskualde-garapenerako tresna estrategikotzat hartzen baita.
- Administrazio-maila egokia. Nafarroako Gobernuak hartu ditu 2030 Agendarekiko konpromisoak, eta, beraz, bere gain hartzen du haren xedeak lortzeko, haren jarraipena egiteko eta Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030en helburuak lortzeko prozedura egokiak diseinatzeko ardura -hau da, 2030 Agendarekin lerrokatutako politika publikoen onargarritasuna, bideragarritasuna, ekitatea eta justizia bermatzeko ardura-.
- Aurreikusitako neurriak helburuekiko proportzionalak ote diren hausnartzea. Orain-oraingoz nahikotzat jo dira, baina Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030 onestean, konpromiso osagarri batzuk hartzen dira, administrazioen arteko koordinazioa, proposamenen jasangarritasuna eta gobernu-organoen erantzukizuna bermatu behar dutenak.
- Prozedura jakin batzuk ezartzea, ziurtatu ahal izateko hainbat erantzukizun-maila dituzten pertsonak, herritarrek barne, ezagutzen dituztela ENS 2030 NEJ ezartzeko eta jarraitzeko administrazio-ibilbideak.

- ENS 2030 NEJ ezartzeak eskualde-garapen jasangarria lortzeko eredu bat sendotuko du, 2030etik aurrera aldi baterako beste aukera batzuk lortuko dituen.

#### 4.2 GOBERNANTZA-ORGANOAK

Egungo egoera abiapuntu hartuta, ordezkari- eta jarraipen-organo hauek ezartzen dira, eginkizun hauekin:

- Nafarroako Gobernuako lehendakaria.
- Gizarte Babeseko eta Garapen Lankidetzarako zuzendari nagusia edo batzordeetako idazkaria.
- Batzorde Betearazlea.
- Departamentuarterko Batzordea.
- Batzorde espezifikoak edo gaikakoak.

Estrategian hartutako genero-ikuspegiaren eta ikuspegi intersektionalari jarraikiz, agiri honek proposatzen du kontuan hartu behar dela ordezkari-orekatuaren printzipioa, zeinak ordezkari- parekidea eskatzen baitu emakumeek eta gizonek gobernantza-egituretan duten presentziari eta ordezkariari dagokionez. (17/2019 Foru Legea, 4.F artikulua).









Gobernantzaren erronka nagusietako bat eskala-aniztasuna eta sektorear-tekotasuna dira. Gobernuaren eta Administrazio Publikoaren ikuspegitik, horrek eskatzen du lanak gainditu egin behar duela departamentu itxi eta bereizien ikuspegia eta elkarlanerako formula berriak topatu behar direla, sinergiak baliatuz eta gutxieneko koordinazio eta koherentzia horizontala bermatuz.

Jarraian, zehatz-mehatz jasotzen dira estrategiak proposatutako ordezkapen- eta jarraipen-organoak, baita horien funtzio eta emaitza nagusiak ere.

## KOORDINATZEA NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKARIA

“Nafarroa jasangarri eta erresilientearen” ordezkaria (4/2022 Foru Legea), beraz, errotik ezagutu behar ditu eskualde-garapenaren dimentsioak, ENS 2030 NEJ bera eta haren irismena.

### Kideak

Gobernuko lehendakaria.

### Eginkizunak

- ENS 2030 NEJko gobernantza-sistemaren eta -organoen buru izatea.
- ENS 2030 NEJeko Jarduera Programa eta Urteko Memoria ezagutzea.
- Bere botoarekin berdinketak erabakitzea, berak zuzentzen dituen batzordeetan (batzorde betearazlea, departamentuarteko batzordea eta idazkaritzari eskuordetzen ez zaizkion beste batzuk) erabakiak hartzeko.
- ENS 2030 NEJ zabaltzea eta foru-administrazioak hartutako konpromisoak babestea.

### Txostenak

Ez dagokio.



Nafarroan 2030 Agendaren aurrerabidearen alorreko eskumena duen Zuzendaritza Nagusiak izendatutako pertsona. Nafarroa Estrategia Jasangarriaren eta Nafarroako 2030 Agendarekin lotutako jardueren ordezkari da.

**Kideak**

Arlo horretan eskumenak dituen zuzendari nagusia.

**Eginkizunak**

- Bileren deialdiak koordinatzea eta bidaltzea.
- Beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak egiteko agintzea.
- Batzorde espezifikoetako eginkizun teknikoak koordinatzea.
- Urteko jardueren programa proposatzea.

**Txostenak****BORONDATEZKO ESKUALDE-TXOSTENA - BI URTEAN BEHIN**

Bi urtean behin egiten den txosten bat da, eta Nazio Batuetan erregistratzera bidaliko da, borondatezko eskualde-txosten gisa. 2030 Agendaren ezarpena ebaluatzea da xedea, beraz, ekimen publikoek jomugei eta Garapen Jasangarrirako Helburuei dagokienez duten irismenari loturik dago.

**ENS 2030 NEJ JARRAIPEN-MEMORIA - BI URTEAN BEHIN**

Bi urtez behingo txosten bat da, ekimen publikoek (Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrotatuta) jasangarritasunaren printzipioetan eta balioetan dituzten ondorioak ebaluatzeko. Horretarako berariaz eginiko aginte-taulako adierazleen egoera baliatuko da (datuen eskuragarritasunari buruzko urteko jarraipena). Ekimen publikoetako arduradunek txosten bat bidaliko dute ENS 2030 NEJ txostenean deskribatutako ebaluazio-prozedurarekin, idazkaritzak memoria hau egin dezan.

**GARAPEN JASANGARRIKO ERRONKEI ETA AUKEREI BURUZKO LEGEGINTZALDIKO TXOSTENA - LAU URTEAN BEHIN**

Fitxen bidez egindako jarraipenean oinarrituta, gobernu berria eratu aurreko hilabeteetan, Nafarroako Gobernuaren esparru juridiko, administratibo edo zientifikoan jasangarritasunaren arloko eskumenak gauzatzeari eragin diezaioketen dokumentazio, araudi, orientabide eta erronken laburpena egiten da. Departamentuarteko batzordeak emanen ditu orientabide sektorialak, eta Batzorde Teknikoak idatziko du gobernu berriari emanen zaion txostena. Azken horrek oso-osorik bere egiten ahal du, bai eta berri bat egin ere.

*Idazkaritza teknikoak egindako txosten guztiak Departamentuarteko Batzordeari bidaliko zaizkio, onets ditzan. Legegintzaldiko txostena izanen da salbuespena. Batzorde Betearazleak ikuskatuko ditu hiru txostenak.*

**GAINBEGIRATZEA** **BATZORDE BETEARAZLEA**

Haren eginkizuna da koordinazio-lanak egitea, Nafarroako Gobernuak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda inplementatzen duela zaintzeko.

**Kideak**

Kargu hauetan aritzen diren pertsonak:

- Lurraldearen Antolamenduko eskumenak dituen zuzendari nagusia;
- Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren alorreko eskumenak dituen zuzendari nagusia;
- NASTAT - Nafarroako Estatistika Institutuko zuzendaria;
- Ekonomia, Enpresa eta Lan Politikan eskumenak dituen zuzendari nagusia;
- Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren alorreko eskumenak dituen zuzendari nagusia;
- Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren alorreko eskumenak dituen zuzendari nagusia;
- Ingurumenaren arloan eskumenak dituen zuzendari nagusia;
- Kulturaren arloan eskumenak dituen zuzendari nagusia.

Egokitzat jotzen dituzten zerbitzu zuzendariek eskuordetzen ahalko dituzte, bai eta haien laguntza jaso ere.

**Eginkizunak**

- ENS 2030 NEJren Antolaketa eta Gobernantza Erregelamendua onestea eta aldatzea.
- ENS 2030 NEJren Jarduera Programa eta Urteko Memoria onestea.
- 2030 Agendaren Jarraipen Txostenak eta Borondatezko Eskualde Txostenak onestea.
- Nafarroako Foru Komunitatearen garapen jasangarriaren arloko politiken garapena arautuko duten ildoak proposatzea, bai eta legealdi bakoitzerako jasangarritasun-erronkei eta -aukerei aurre egiteko lehentasunak mahai gainean paratzea ere.
- Nafarroako Gobernuari, toki-entitateei eta beste eragile batzuei proposamenak egitea Nafarroako Foru Komunitatearen garapen jasangarriarekin lotutako auzietan.
- Berariazko batzordeak sortzea, ezartzen den esparru juridikoan xedatutakoaren arabera.
- Egoki iritzitako azterlan eta txosten espezifikoak egiteko ardura ematea.
- Esleitzen edo agintzen zaion beste edozein eginkizun, indarra duen antolamendu juridikoarekin bat.

**Txostenak****URTEKO LAN-PROGRAMA - URTEKOA**

Urteko txosten bat da, urterako aurreikusitako jarduerak eta proposamen espezifikoak deskribatzen dituen.

*Gainerako batzordeek eta/edo idazkaritza teknikoak egindako txosten guztiak gainbegiratzen ditu.*

**ONESTEA****DEPARTAMENTUARTEKO BATZORDEA**

Haren helburu funtzionala da Gobernuko departamentuen jarduerak koordinatzea Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda ezartzeko prozesuan.

**Kideak**

Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzeko zuzendari nagusiak.

**Eginkizunak**

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen jarduerak ezagutzea, koordinatzea eta haietaz txostena egitea, garapen jasangarriaren alorrean eragina duten gaiei dagokienez.
- Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030en (ENS 2030 NEJ) jarraipena egitea, bai eta Nafarroako Gobernuak garapen jasangarriaren arloan martxan jartzen dituen jarduketara planena ere.
- Garapen jasangarriari loturiko aferetan Nafarroako Gobernuak eskatzen dizkion gaiei buruzko iritzia ematea.
- Kideen proposamenak onetsi ala ez ebaluatzea, baita Batzorde Betearazleari eskaturiko kontsultak eta azterketak ere.
- Aurreko puntuari dagokionez, batzorde espezifikoen osaera, helburuak eta ekintza-plana proposatzea.
- Nafarroako Gobernuko arlo guztiak sentsibilizatzea helburuekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzeko eta aurrera egiteko beharraz.
- 2030 Agendarekin eta Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030ekin lotutako gaiak sustatzeko, hedatzeko eta prestatzeko jarduera espezifikoa proposatzea.
- Txostenen atalean ezarritako txostenen onespina proposatzea.
- ENS 2030 NEJren jarraipen-adierazleen aginte-taulak ontzat ematea.
- Eskualdeko eta tokiko eskalan ENS 2030 NEJ aplikatzea erraztea eta horretarako prozedura ezartzea.
- Idazkariari ematea egokitzat jotzen dituen azterlan eta txosten guztiak egiteko ardura.
- Esleitzen edo agintzen zaion beste edozein eginkizun, indarra duen antolamendu juridikoarekin bat.
- Batzordeetan parte har dezaketen adituak proposatzea.
- Gainera, Batzorde honetako kide den zuzendari nagusi bakoitzak (Na)stat – Nafarroako Estatistika Institutuari proposatuko dizkio 2030 Agendaren eta ENS 2030 NEJren jarraipena egiteko datuak biltzeko beharrezko estatistika-eragiketak, onesten diren aginte-taulen bidez.

**Txostenak**

Ez dagokio.

*Egindako txosten guztiak onesten ditu.*





## EGITEA

## BATZORDE ESPEZIFIKOA EDO TEMATIKOA

Helburua politika bati edo haren tresnetako bati buruzko azterketa bat egitea da, sektorearteko ikuspegiarekin.

**Kideak**

Adituen taldea.

**Eginkizunak**

- Aditu-lantalde bat sortzea, gai jakin bat aztertzeko, baita jasangarritasunean duen eragina eta 2030 Agendarekin eta ENS 2030 NEJekin duen lotura ere. Batzorde Betearazleak onetsiko ditu batzordearen sorrera, iraupena, kideak, ekintza-plana eta abar.
- Orientazio nagusiki teknikoa badu ere, premiazko aholkularitza-erabakiak hartzen ahalko ditu Nafarroako Gobernuko idazkaritzarentzat eta lehendakaritzarentzat.
- Batzorde Betearazleak edo Departamentuarteko Batzordeak sortzen ahal diren batzorde espezifikoen lanak bideratzeko eta zuzentzeko esleitzen ahal dizkion eginkizunak.
- Gai tekniko jakin bat ebazteko kronograma espezifikoak ezartzea.
- Gizarteak (biztanleria eta erakundeak) gai espezifiko horri buruz duen eragina eta pertzepzioa bermatuko duen prozesuren bat izan beharko du.
- Emaitzak eta ondorioak txosten espezifiko batean jasoko dira.

**Txostenak****TXOSTEN ESPEZIFIKOAK EDO TEMATIKOAK - BEHARRAREN ARABERA**

Gai zehatzei eta gainerako ekimen publiko nagusietan duten eraginari buruzko berriazko txostenak.

*Batzorde hori ez da iraunkorra, eta berriaz eratzten da Batzorde Betearazleak hala eskatuta, beharra detektatzen denean. Batzorde Betearazleak gainbegiratu beharko ditu batzorde horrek egindako txostenak, azkenik Departamentuarteko Batzordeak onetsi ditzan.*



# 5

## Ebaluazio eta jarraipen prozesuak



# 5. EBALUAZIO ETA JARRAIPEN PROZESUAK

## 5.1. JASANGARRITASUNEAN DITUEN ONDORIOAK EBALUATZEKO PROZESU OROKORRA

Epigrafe honen bidez, orientabideak eman nahi zaizkie politika publikoetako arduradunei ebaluazio integraleko prozesuetan, tresna eta prozesu espezifikoak diseinatu. Epigrafe hau osatzeko jasotzen da, hain justu, ENS 2030 NEJ aplikazio-gida, sektore-politiken arduradunei zuzendua eta plangintza estrategikorako tresnetara bideratua. (II. eranskina, aplikazio-gida).

Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030 ez da ezarriko ekimen publikoek garapen jasangarrian duten eragina aztertzekeo prozedura egokirik gabe. Oro har, Foru Gobernuarenak izaten dira, baina baita beste administrazio batzuenak ere, 2030 Tokiko Agendak eta halako tresnak baliatuz. Arlo horietako prozedurak diseinatzeko, beharrezkoa da ongi uztartzea gobernantzaren printzipioak jasangarritasunaren hiru dimentsioekin, bost esparru nagusiekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuen jomugetan dituen ondorioekin.

Gobernantza-sisteman aurreikusitako **prozeduren** emaitzak Nafarroako testuinguru ekonomiko, ingurumeneko eta sozioekonomikoen azterketa sakona izan behar du, baina aztertu behar du, orobat, planek eta estrategiek zer eragin izanen duten testuinguru horietan, hau da, zein izanen diren adierazle horien bilakaeraren ondorio zenbatesgarriak. Beraz, bi kasuistika agertzen ahal dira, eta ENS 2030 NEJek erronka bikoitz horri erantzun behar dio **ebaluazio integrala** lortzeko. Alde batetik, agintetaren **ex post** jarraipena egitea, dagokion ekintza, plana eta arau egokia gauzatu ondoren, eta emaitzen ebaluazioa egitea, jasangarritasunaren arloan aplikatuz eratorritako ondorioen adierazleen bidez. Eta, bestetik, ekimen publiko jakin bat edo haren ekintza-plana garatzerakoan, **ex ante** aurrerapen bat egitea ahalbidetzea, eta efektuari buruzko aurreikuspen batzuk ezaugarritzea, jasangarritasunaren ezaugarrien edo ENS 2030 NEJ


arautzen duten **balioen bitartez**. Ezaugarri horiek, 2030 Agendarekin le-rrokatzea errazteaz gainera, ondorioen bilakaeraren aurreikuspena errazten dute (jasangarritasuneko orientabide gisa edo prospektiba estrategiko gisa). **Diseinuaren ebaluazioak** erraztu egiten du, orobat, ekimen publikoen ebaluazioa profesionalizatzeko eta instituzionalizatzeko prozesua.





# EBALUAZIOAREN PROZEDURA

7. irudia: ebaluazio integraleko prozeduraren diagrama (ex ante eta ex post). Iturria: Geuk egina.








Beraz, ENS 2030 NEJek tresna lagungarriak eskaintzen ditu ekimen publikoak jasangarritasunaren ikuspegitik ebaluatzeko jardueretan laguntzeko, jasangarritasuna garapen jasangarri gisa ulertuta, bai eta ebaluazioa instituzionalizatzen eta plangintzatik herri-administrazioaren kudeaketan integratzen laguntzeko ere. Horregatik, ebaluazio integrala egiten laguntzeko (4. irudia), lehen aipatu dugun bezala, bi ikuspegi desberdin aintzakotzat harturik lan egiten da: politika publikoaren diseinuaren ebaluazioa eta politika horren emaitzaren ebaluazioa (eragina/inpaktua). Jarraian, ekintza publikoaren zikloaren diagrama bat agertzen da, zeina lagungarria baita ebaluazio-prozesua kokatzen:

**8. irudia: Ekintza publikoaren zikloa eta ebaluazio integrala.**  
**Iturria: Politika publikoen emaitzak ebaluatzeko gida, Espainiako Gobernuaren Politika Publikoak Ebaluatzeko Institutuarena.**





Ikuspuntu horri esker, ebaluazioak ez du kontuan hartuko “zer” lortu den bakarrik; aitzitik, ebaluazioa “nola” eta “zergatik” bideratu den ere aztertzen ahalko da, ebaluazioak erabilgarritasun faktikoa izan dezan eta ekintzak orientatzeko eta indartzeko aukera eman dezan, ekintzek jasangarritasunean duten eragina handitzeko. Emaitza horiek eragin dituzten faktoreak edo elementuak aztertzea da kontua.

Politika publiko guztiek eta haien planek, diseinu-prozesuan, galdera hauei erantzun behar diete hausnarketarako lehen urrats gisa:






- **Lerrokatu**rik dihardut 2030 Agendarekin?
- **Badut politikaren edo strategiaren jasangarritasun orokorra ebaluatzeko sistematik?**

- **Badut adierazlerik aurreikusitako ekintzen gauzatze-maila eta ondorioak ebaluatzeko?**
- **Lerrokatu**rik daude adierazle horiek Garapen Jasangarrirako Helburuen adierazleekin?

Ekimen publiko berri orok egin behar du lerrokatze-azterketa bat.

Jarraian, ezaugarri edo balioen taula bat agertzen da, zeina gida gisa baliatuko baita ENS 2030 NEJ arautzen duten eta ekimen publikoen diseinua eta emaitza ebaluatzen lagunduko duten galderak sortzeko. Estrategia honetan, modu sintetikoan daude definituta, eta zabalago garatzen dira aplikazio-gidan, Garapen Jasangarrirako Helburuekin duten lotura zehaztuta.

### Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030en jasangarritasun-ezaugarriak

 <b>ARLO ESTRATEGIKOAK</b>	 <b>PERTSONAK</b>	 <b>PLANETA</b>	 <b>OPAROTASUNA</b>	 <b>BAKEA ETA ALIANTZAK</b>
Klima-aldaketa	Kalteberatasuna	Prebentzioa	Aukerak	Arauak
Trantsizio energetikoa	Trukea	Isuriak	Subiranotasuna	Erresilientzia
Kultura eta ondarea	Bizi-kalitatea	Egokitzapena	Digitalizazioa	Identitatea
Ekonomia berdea	Ekintzailtza	Ondarea	Lehiakortasuna	Ezagutza
Gizarte-kohesioa	Egituratzea	Oreka	Egokitzapen-baldintzak	Gaitasuna
Konpromiso partekatua	Aniztasuna	Ardura	Gardentasuna	Lankidetzak
<b>Jasangarritasunaren ikuspegia</b>	<b>Ekitatea</b>	<b>Onargarritasuna</b>	<b>Bideragarritasuna</b>	<b>Justizia</b>

**9. taula:** ENS 2030 NEJek proposatutako orientazio-tresna, ekimen publikoen jasangarritasunera bideratua.  
Iturria: geuk egina

Agenda 2030 aplikatuz jasangarritasunaren nolakotasuna garapen jasangarriaren kontzeptuarekin identifikatzen ahal da, eta nolakotasunen taula honek aukera ematen du ekimen publikoen ondorio desiragarriak ordenatzeko, Foru Komunitatearen garapen jasangarrian dituen ondorioak ebaluatze aldera.

Haren bidez, ekimen publikoak jasangarritasunaren ikuspegiari dagokionez nola antolatzen diren erakutsiko da hurrengo epigrafeetan, sei arlo estrategikoren eta 2030 Agendako bost esparru nagusien bidez. Ekimen publikoak sektore publikoak bultzaturiko eragileak dira, trantsizioak politika eraldatzaileen bidez errazteko.

Garatutako egiturari esker:

- Gizartearentzat oro har desiragarriak diren ereduak identifikatzen ahal dira, erronkei eta politikei lotutako printzipioak eta balioak zehaztearen bidez.

- 2030 Agenda ezartzeko politika erabilgarriak identifikatzen ahal dira.
- Jomugen araberako ekintza zehatzak txertatzen ahal dira, bai eta horien emaitzen araberako adierazleak ere.
- Beste eremu espazial eta politiko batzuetara transferitzea erraztuko duten baliozko esperientziak ateratzen ahal dira.
- Eragileen eta erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak errazten ahal da, eskualde-ikuspegi batekin betiere, gure kasuan foru-ikuspegiarekin.
- Esperientzia-arloak eta jardunbide egokiak identifikatzen ahal dira, eskualdeen arteko lankidetzak-ildoak eta garapenerako lankidetzak-politika elikatzeke.
- Hurrengo jarraipen-prozesuaren eta ebaluatu beharreko politiken diseinua bideratuko duten ondorioak ateratzen ahal dira. ENS 2030 NEJen jarraipen-memoria eta borondatezko eskualde-txostena.

**10. taula: Jasangarritasun-ezaugarriak deskribatzea ENS 2030 NEJek proposatutako ekimen publikoetan. Iturria: geuk egina.**

IZENA	DESKRIBAPENA
<b>Egokitzapen-baldintzak</b>	Nahi den zerbitzua lortzeko erraztasuna.
<b>Egokitzapena</b>	Klimaren ikuspegitik, klima-aldaketaren ondorioei lotutako arriskuak minimizatzeko neurriak.
<b>Bizi-kalitatea</b>	Talde edo gizarte baten ongizatea neurtzeko parametroak.
<b>Gaitasuna</b>	Pertsonak eta erakundeak (ingelesez, agency) beren eskumeneko lurraldeari esleitutako funtzio batzuk betetzeko duten gaitasuna eta talentua.
<b>Lehiakortasuna</b>	Lurralde batek merkatuetan aberastasun handiagoa sortzeko duen gaitasuna, biztanleriaren errentak gora egiten duen bitartean.
<b>Ezagutza</b>	Lurralde-kapitalaren eta identitatearen kudeaketa adimenduna eta efizientea.
<b>Lankidetzak</b>	Lurralde-kapitalaren kudeaketan sareak, trukea eta eraginkortasuna bultzatzeko gaitasuna.
<b>Digitalizazioa</b>	Gizartearen, ekonomiaren, enpresen, lurraldearen eta administrazioen eraldaketa digitala, teknologia digitalak barneratzearen bidez.





IZENA	DESKRIBAPENA
<b>Aniztasuna</b>	Pertsonen, kulturen eta lekuen ezaugarri eta nolakotasunen multzoa-aniztasuna. Ezinbestekoa da hori aitortzea, pertsonen arteko benetako berdintasunera iristeko.
<b>Isuriak</b>	Berotegi-efektuko gasen isurien multzoa.
<b>Ekintzailtza</b>	Aukerak modu berritzaile eta berdinzalean aktibatze gaitasuna.
<b>Oreka</b>	Herritar guztientzat lurralde-eremu jakin batean irisgarritasun baliokidea bermatzeko modua.
<b>Identitatea</b>	Gizarte bat bere ondarearekin eta lurralde-kapitalarekin identifikatzea.
<b>Trukea</b>	Ondasunak, zerbitzuak eta pertsonak eskaintzeko eta jasotzeko gaitasuna.
<b>Aukerak</b>	Lurralde batek garapen jasagarria sustatzeko dituen inguruabarrak.
<b>Ondarea</b>	Hurrengo belaunaldiei transferitu beharreko elementuen eta gaitasunen multzoa (jasagarritasunaren belaunaldien arteko konpromisoa).
<b>Arauk</b>	Hartutako konpromisoak.
<b>Prebentzioa</b>	Arrisku edo gertaera kaltegarri bat aldeztatik minimizatzea edo saihestera bideratutako jardura.
<b>Erresilientzia</b>	Muturreko gertakarien eta krisien aurrean egokitze eta gaintzeko gaitasuna (ez klimaren aldetik soilik).
<b>Ardura</b>	Pertsonen eta/edo taldeen duten gaitasuna betebeharrak, konpromisoak eta egintzen ondorioak betetzeko.
<b>Subiranotasuna</b>	Nafarroako Foru Komunitateko lurralde-kapitalaren administrazioan NFEBHLOren ondoriozko eskumenak baliatzea.
<b>Gardentasuna</b>	Prozeduren eta herritarrentzako informazioaren eskuragarritasuna.
<b>Egituratzea</b>	Barne-egitura eta sendotasuna ematea, bai eta antolamendua eta kohesioa ere gizarte- eta/edo lurralde-sistemetak elementu guztiei, genero-berdintasuna bermatuz.
<b>Kalteberatasuna</b>	Arlo edo talde baterako kalifikazioa, ezaugarri sozialetatik eratorria; giza kalteak eta kalte materialak eragiten ahal dituzten inguruabar jakin batzuetara "egokitze" edo moldatzeko gaitasun txikia adierazten duena.

II. eranskinean, ezaugarriak eta beste kontzeptu batzuk deskribatzen dira, eta 2030 Agendarekin lerrotzen ditu.





## 5.2. EX ANTE PROZESUA: EKIMEN PUBLIKOEN DISEINUAREN EBALUAZIOA

**Ex-ante** prozesuak ekimen publiko jakin baten edo haren ekintza-planaren garapenari heltzen dio, jasangarritasunaren ikuspegitik. Helburua da ekimen publiko hori eragile izatea, sektore publikotik bultzatuta Nafarroan garapen jasangarria errazteko. Horretarako, ENS 2030 NEJn identifikatutako zenbait ezaugarri erabiliko dira (1. taula), efektuari buruzko aurreikuspenak nolakotzeko eta tresna berria jasangarritasunerantz bideratzeko. Nolakotasun horiek ekintza, plan edo programa bakoitzaren **diseinua ebaluatzeko irizpideak** ezartzea erraztuko diete politiken arduradunei. Ebaluazio-irizpideak definitu ondoren, horiek txertatzea eta ebaluazio-tresnak erabiltzea proposatzen da, hala nola **kasu-matrize** bat, Aplikazio Gidan luze-zabal azaltzen den bezala.

Izan ere, ebaluazioa estu loturik dago berez gobernantzarekin, bai eta gizartean gobernuaren ekintzaren oinarri diren printzipioak lortzearekin ere. Zernahi ekimen publikoren garapenak jasangarritasunean nahi diren ondorioak izan ditzan, kontsiderazio hori oso kontuan hartu behar da edozein esku-hartze diseinatzean. Diseinuaren esparru estrategikoari dagokio, eta esplizituki agertu behar du formulazioan, nahiz eta politika horren diseinuan inplizitua dela dirudien. Izan ere, esku-hartzeak jasangarritasunean espero diren ondorioak lortzeko fase guztietan beharrezko aldaketak nola sortuko dituen aipatzen du.

Horregatik, ekimen orok (plana, programa, ekintza, politika, eta abar), goian aipatutako taulan **jasotako ebaluazio-irizpideak jaso beharko ditu diseinuaren ebaluazioan**. Irizpideak balioespen-baldintzak edo -ideiak dira, eta jasangarritasunari buruz aztergai den politika baloratzeko irizpen bat ematea ahalbidetuko dute. Beraz, beste irizpide batzuk gaineratu nahi dira, gobernantza ebaluatzerakoan baliatu ohi direnez gainera (adibidez, koherentzia, eraginkortasuna, efizientzia, eta abar). Baita gutxiago erabiltzen diren beste batzuk ere, estu lotuta daudenak garapen jasangarriaren ezaugarriekin, hala nola ekitatea, onargarritasuna, bideragarritasuna edo justizia. Gida-balioak hautatzeko taulan sartzeko modua ekimen eragilearen eremu strategikoaren eta 2030 Agendaren bost esferen bidez izanen da.

**Nolakotasun horiek** ebaluazio- eta definizio-irizpide bihurtzen dira (ikusi aplikazio-gida); izan ere, ekimen publikoak garatzeko arduradunei aukera ematen die horietako bakoitzari buruzko **galdera-sorta global** bat egiteko, eta, horri esker, ekintzaren, programaren, arauaren edo planaren diseinua ebaluatzen ahalko dute, **jasangarritasunean dituen ondorioak bermatzeko eta maximizatze**ko.

3. kapituluan, politika eraldatzaileak deskribatzen dira, eta horietan sailkatzen dira ekimen publiko eragileek dituzten gaitasunak eta edukiak. Indarrean dauden planak eta programak zehaztu dira, baina sailkapen horri esker etorkizuneko planetarako aurreikusitako jarduketara ere kokatzen ahalko da.

Analisiari laguntzeko tresna osagarri gisa, kasuen irudikapen grafikorako hainbat aukera **erabiltzea proposatzen da**, hala nola behean zehazten


### 9. irudia: Aldaketaren teoriaren kasuak eta baldintzatzaileak aztertzeko matrize-eredua.

**Iturria: Politika publikoen diseinua ebaluatzeko gida.**

Narrativa vertical Jerarquía de Objetivos	SUPUESTOS / HIPÓTESIS		CONDICIONANTES / FACTORES			
	DEFINICIÓN	PROBABILIDAD DE OCURRENCIA %	IDENTIFICACIÓN	PROBABILIDAD MATERIALIZACIÓN %	INFLUENCIA	NIVEL DE RIESGO
					Baja-Media Alta-muy Alta	Nulo-Bajo- Medio-Alto
FIN / OBJETIVO GENERAL						
OBJETIVOS ESPECÍFICOS OBJ 1 OBJ 2...						
RESULTADOS R1 R2...						
COMPONENTES / PRODUCTOS C1 C2...						
ACTIVIDADES A1 A2...						

den **kasu-matrizea**, zeina Espainiako Gobernuaren Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Politika Publikoak Ebaluatzeko Institutuaren Politika publikoak diseinatzeko ebaluazio-gidak proposatua baita. Matrizea hainbat fasetan erabiltzen diren ebaluazio-tresnen multzo

bat da, eta ekintzak diseinatzeko edo berrorientatzeko lagundu nahi dute, jasangarritasunean duten eragina maximizatzeko. Estrategia hau ex ante ebaluatzeko tresna guztiak ENS 2030 NEJren politika publikoen ardura-dunentzako aplikazio-gidan diseinatzeko eta zehazten dira.





### 5.3. EX POST PROZESUA: EKIMEN PUBLIKOEN EMAITZAK EBALUATZEA

**Ex-Post** ebaluazioak jarraipena eta ebaluazioa erraztu nahi ditu, dagokion ekintza, plana eta araua gauzatu ondotik. Horretarako, ebaluazio-matrize bat erabiliko da, emaitza-adierazleak jasotzen dituen aginte-taularekin, galdera gidariekin eta ebaluaziorako irizpideekin, jasangarritasunaren arloan aplikatuz eratorritako ondorioen balorazioa errazteko.

Adierazle horiek, bestelako dokumentazio osagarriarekin batera, modu zabalagoan garatzen dira ENS 2030 NEJen bosgarren kapituluan, arlo estrategikoen eta politika eraldatzaileen arabera multzokatuta.

**Emaitza** terminoa da emaitzak ebaluatzeko metodologia definitzen duen funtsezko kontzeptua; kasu honetan, produktuak, ekintzak, proiektuak eta horiek jasangarritasunean duten eragina. Hedatuen dagoen definizioetako bat ELGAk<sup>4</sup> emanikoa da, zeinaren arabera emaitzek bi izendapen desberdin baitituzte, denboran duten iraupenaren arabera. Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak **ondorio zuzen** gisa hartzen ditu **“epe labur eta ertaineko** emaitzak, esku-hartze baten produktuek izan ditzaketenak edo lortu dituztenak”; horrekin kontrajarriki ageri dira **inpaktuak, epe ertain eta luzekoak**. Beraz, estrategia honen bidez ebaluatu nahi dira politikek jasangarritasunean dituzten ondorioak eta eraginak.

Bestalde, **ebaluazio-galderak** baliagarriak dira ebaluazio-lana jasangarritasunaren dimentsioekin lotutako funtsezko puntuetan biltzeko, helburu gisa harturik ebaluazio-irizpideei buruzko hausnarketa erraztea, eta, hala,

informazio mugatuagoa lortzea azterketa sakoneko txosten erabilgarri bat lortzeko. Galderen zerrenda osatzeko, kontuan izan behar da ebaluazioaren arduradunak gai izan behar duela haren bidez politikaren ondorioei buruzko iritzirik orokorra emateko. Hori bereziki garrantzitsua da esku-hartzeak dimentsio ugari dituenean, jasangarritasunaren kasuan gertatzen den bezala.

**Ebaluazio-irizpideak**, ex ante prozesurako bezala, 1. taula aplikatuz eratorriko dira, arlo estrategiko bakoitzerako eta Agenda 2030eko bost esparru nagusietan multzokatuta.

Azkenik, arlo estrategiko bakoitzerako proposatutako **adierazle**en bidez lortuko da informazio garrantzitsua eta ebaluazio-galderekin bat datozena. Adierazle horiek aztertzen ari garen arloko estrategikoak direlako hautatzen dira, eta arlo horretako ekimen publiko nagusietarako egindako azterketaren emaitza dira. (Ikusi 5. kapitulua).

Hiru elementu horiek modu logikoan integratuz, **ebaluazio-matrizea** eratuko da, eta, horri esker, txosten batean jasotzen ahalko dira politika horrek eta haren ezarpenak jasangarritasunean izan dituzten ondorioak eta inpaktuak. Hurrengo irudian, Politika Publikoak eta Zerbitzuen Kalitatea Ebaluatzeko Estatuko Agentziaren (AEVAL) ebaluazio-matrize estandarizatuaren adibide bat agertzen da, ekimen publikoen ebaluazioak diseinatzeko eta egiteko gida praktikotik ateratakoa. AEVALen ikuspegia.

<sup>4</sup>ELGA, Ebaluazio hobea egiteko irizpide hobeak - Ebaluazio-irizpideen definizio berrikusiak eta horiek erabiltzeko printzipioak (OECD DAC Network on Development Evaluation, 2020). Jatorrizko dokumentua ingelesez: *Better Criteria for Better Evaluation* (OECD DAC Network on Development Evaluation, December 2019); <https://www.oecd.org/development/evaluation/Criterios-evaluacion-ES.pdf>. Ikusi, orobat: *“Guía de evaluación de resultados de políticas públicas”*. (Politika publikoen emaitzak ebaluatzeko gida). Politika Publikoak Ebaluatzeko Institutua, Lurralde Politikako Ministerioa eta Funtzio Publikoa. Madril, 2020. 13. orrialdea eta hurrengoak. (2023ko urtarrilaren 11n kontsultatuta).

**10. irudia: AEVALen galdera-matrize estandarizatuaren adibidea. Iturria: Politika publikoen ebaluazioak diseinatzeko eta egiteko gida praktikoa. AEVALen ikuspegia.**

**Cuadro 18: Extracto de matriz de preguntas de evaluación. Evaluación de medidas de racionalización y mejora de la gestión de incapacidad temporal por contingencias comunes (Incapacidad temporal por contingencias comunes.)**

PREGUNTAS DE EVALUACIÓN	SUBPREGUNTAS	CRITERIOS	INDICADORES/ METODOLOGÍA	FUENTES DE VERIFICACIÓN
1. ¿En qué grado el conjunto de medidas que componen la intervención están orientadas a resolver los principales problemas detectados en la gestión de la incapacidad temporal por contingencias comunes y los casos críticos que originan el gasto por dicho concepto?	1.1. ¿Qué parte de la evaluación del gasto no se explica por población trabajadora, base reguladora y desempleados?	PERTINENCIA	- Evolución de las principales macrovariables que explican el gasto en incapacidad temporal por contingencias comunes. - Comparativas de tasas de crecimiento de variables implicadas en el gasto de incapacidad temporal por contingencias comunes.	- Indicadores de variables fundamentales. - Estudios realizados. - Informes del Instituto Nacional de Seguridad Social relativos a incapacidad temporal por contingencias comunes. - Bibliografía.
	1.2. ¿Cuál es la incidencia, duración media y coste de los episodios de incapacidad temporal por contingencias comunes, según las ramas de actividad, profesiones, categorías profesionales, regiones y/u otros factores personales o profesionales?	PERTINENCIA	- Indicadores de incidencia, duración media y coste de incapacidad temporal por contingencias comunes obtenidos del análisis estadístico de microdatos. - Evolución de los principales indicadores de la incapacidad temporal por contingencias comunes periodo 2000-2008. Macrovariables. - Estudios relativos a incapacidad temporal en función de categorías personales y socioprofesionales.	- Análisis estadístico de microdatos proporcionados por el Instituto Nacional de Seguridad Social. - Informes estadísticos anuales del Instituto Nacional de Seguridad Social. - Indicadores del Instituto Nacional de Seguridad Social. - Bibliografía.
2. ¿Son coherentes las medidas adoptadas?	2.1. ¿En qué grado han resultado coherentes los objetivos de la intervención con las medidas implementadas?	COHERENCIA INTERNA	- Coherencia entre los distintos instrumentos. - Coherencia de cada uno de los instrumentos con los objetivos perseguidos.	- Análisis de coherencia de las medidas y los objetivos.
	2.2. ¿Ha existido coordinación de la intervención entre los distintos entes responsables de la gestión de la incapacidad temporal por contingencias comunes y cuál ha sido la eficacia de dicha coordinación?	COHERENCIA EXTERNA	- Análisis de los instrumentos o acciones acometidas en materia de coordinación y complementariedad por parte de los agentes intervinientes. - Análisis de la coordinación en el seno de la Administración General del Estado. - Reputación de los servicios públicos de salud a las propuestas de alta (alta médica condicional) y altas médicas a los exclusivos efectos económicos).	- Documentos de gestión. - Bibliografía.
3. ¿Se han implementado algunos elementos clave?	3.1. ¿En qué grado han resultado coherentes los instrumentos organizativos y de personal previstos para la asunción de las nuevas competencias en la gestión de la incapacidad temporal por contingencias comunes en los episodios de duración superior a los 12 meses?	IMPLEMENTACIÓN	- Dotaciones de recursos humanos del Instituto Nacional de Seguridad Social en los años en que se implementa la prórroga de los episodios de incapacidad temporal por contingencias comunes de más de 12 meses. - Análisis de la implementación de la sujeción de la competencia en los episodios de más de 12 meses en las distintas direcciones provinciales.	- Incremento de recursos humanos en el Instituto Nacional de Seguridad Social. - Cambios organizativos experimentados.
	3.2. ¿Ha sido el modelo de gestión de los episodios de duración superior a los 12 meses, un modelo de gestión de los episodios de duración superior a los 12 meses, un modelo de gestión de los episodios de duración superior a los 12 meses, un modelo de gestión de los episodios de duración superior a los 12 meses?	EFICACIA	- Análisis de los convenios del "modelo programa ahorro en materia de incapacidad temporal por contingencias comunes 2005-2008". Implementación e indicadores de cumplimiento de objetivos. Evaluación de los indicadores fundamentales (incidencia, duración, transmisión de información, desarrollo de actividades, etc.) Valoración del grado de cumplimiento. - Ídem convenios de los programas piloto para estudio del comportamiento de los procesos de incapacidad temporal por contingencias comunes. - Ídem convenio del Instituto Nacional de Seguridad Social en procesos de incapacidad temporal (sin duración superior a 12 meses). Indicadores fundamentales de incidencia, prevalencia, duración entre otros, después de la sujeción de competencias por las direcciones provinciales del Instituto Nacional de Seguridad Social.	- Convenios "modelo programa ahorro en materia de incapacidad temporal por contingencias comunes 2005-2008" y grados de implementación. - Memorias anuales de cumplimiento de objetivos. - Convenios programas piloto de comportamiento de incapacidad temporal por contingencias comunes para ciertos patológicos e indicadores de cumplimiento. - Entrevistas. - Análisis de microdatos. - Documentos internos de gestión. - Evaluación de indicadores.
4. ¿Cuál ha sido la eficacia de las medidas introducidas? (Medidas control Instituto Nacional de Seguridad Social 12 meses, convenio programa ahorro en materia de incapacidad temporal, convenios específicos)	4.1. ¿Los instrumentos utilizados han tenido los resultados (outputs) que se planteaban como objetivo?	EFICACIA	- Análisis de las dificultades sanitarias en la gestión de casos de incapacidad temporal por contingencias comunes. - Análisis de las medidas y programas sanitarios en materia de formación de incapacidad temporal por contingencias comunes. - Análisis de los medios y programas sanitarios en materia de medidas de mejora de procedimientos sanitarios que repercuten en una mejor gestión de la incapacidad temporal por contingencias comunes.	- Bibliografía. - Entrevistas. - Documentos de gestión. - Indicadores de cumplimiento de los convenios específicos.
	4.2. ¿Son compatibles las medidas adoptadas desde el ámbito sanitario (no gestión económica de la prestación) han contribuido a una mejora de la gestión de la incapacidad temporal por contingencias comunes?	COMPLEMENTARIEDAD	- Análisis de las dificultades sanitarias en la gestión de casos de incapacidad temporal por contingencias comunes. - Análisis de las medidas y programas sanitarios en materia de formación de incapacidad temporal por contingencias comunes. - Análisis de los medios y programas sanitarios en materia de medidas de mejora de procedimientos sanitarios que repercuten en una mejor gestión de la incapacidad temporal por contingencias comunes.	- Análisis de las dificultades sanitarias en la gestión de casos de incapacidad temporal por contingencias comunes. - Análisis de las medidas y programas sanitarios en materia de formación de incapacidad temporal por contingencias comunes. - Análisis de los medios y programas sanitarios en materia de medidas de mejora de procedimientos sanitarios que repercuten en una mejor gestión de la incapacidad temporal por contingencias comunes.

Evaluazio-prozesu xehatua egiteko, **ENS 2030 NEJek garatutako sei arlo estrategikoen fitxak zehazten ditu**, 3. kapituluan jasota dagoen bezala. Fitxa horiek **politika eraldatzaileak** biltzen dituzte. Politika horiek **ekimen publikoetan** banatzen dira, eta arduradunei arlo bakoitzaren barruan kokatzeko aukera ematen diete. Horretaz gainera, arduradunek jasangarritasunaren dimentsioei eta lantzen den gai bakoitzaren abiapuntuko egoerari buruzko **ikuspegi zehatza** eta luze-zabala izaten ahalko dute, eta, horretaz gainera, **sektoreen arteko koordinazioa** erraztuko dute.

**Politiken arduradunei ebaluazio-prozesuaren hasiera errazteko**, eragileek adierazleak, ezaugarrien eta Garapen Jasangarrirako Helburuen arteko erlazio-taulak aurkituko dituzte aplikazio-gidan, handik atera ahal

izateko ebaluazio-orientabideak eta ondorioak. Definitutako sei arlo estrategikoak, politika eraldatzaileak eta ekimen publikoak erlazionatzen dira haietan.

Laburbilduz, ebaluazio-prozesua hasteko, ekintzen emaitzak aztertuko dira, behar beste datu eskuratzeko. Jarraian, ekintzen ondorioek emaniko datuekin, jasangarritasunaren dimentsioak ebaluatu beharko dira, goian deskribatutako prozeduraren arabera.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek sustatzen edo onesten dituzten xedapen orokorrak egiteko prozeduretan eta plangintza-jardueran, jasangarritasunaren ikuspegia txertatu beharko da, Nafarroako Estrategia Jasangarria 2030ean (ENS 2030 NEJ) ezarritako orientabide, helburu eta jomugen arabera. Laburbilduz, hauexek dira:

- **Lerrotatze-prozesua.** Foru-politikagintzan ezarritako arauak, planak, ekintzak eta neurriak 2030 Agendaren helburu eta jomugekin intrintsekoki lotuta daudela bermatzea.
- **Jarraipen- eta ebaluazio-prozesua.** Esku-hartze publikoek planen, ekintzen eta neurrien bideragarritasunean, onargarritasunean eta justizian eragin positiboak ebaluatzeko prozedurak badituztela bermatzea.
- **Jasangarritasunaren ikuspegia aurrekontuetan:** Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrotatzea.

Etorkizun hurbilean, estrategia hau eta dagokion gida aplikatuz, Foru Administrazioeko organoek gai izan beharko dute, edozein arau- edo plangintza-ekimen izapidetzeko unean, 2030 Agendarekin bat etortzeari buruzko ebaluazio bat txertatzeko, bai eta Nafarroako Foru Komunitatearen jasangarritasun orokorrean duen inpaktuari buruzko ebaluazio bat egiteko ere.





### 5.4. ADIERAZLE-SISTEMA

Esan bezala, ebaluazioa funtsezko prozesua da proiektuaren zikloa ixteko. Ebaluazio egokia egiteko, ezinbestekoa da adierazle-taula bat izatea, *ex ante* eta *ex post* prozesuak laburbiltzeko. Adierazle-sistema ezartzeko, berriz, ondoren zehaztu bezala jokatu dugu.

1. Estrategia hau idazteko unean onetsita eta indarrean dauden ekimen publikoak aztertu dira, eta, ondoren, garrantzitsuentzat jo diren estrategia eta ekimen publikoetako adierazleak atera dira.
2. Hautaturiko adierazleak arlo estrategiko bakoitzarekin, jasangarritasunaren ikuspegiarekin (onargarritasuna, ekitatea, bideragarritasuna eta

justizia), ENS 2030 NEJen ezaugarriekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotu dira.

Adierazleak hautatzerakoan, kontuan hartu da datuen eskuragarritasuna ere. Hau da, berehala gauzatu ahal izatea, egungo egoeraren diagnostikoa egiteko. Era berean, estrategia honetan txertatutako genero-ikuspegiaren arabera eta 17/2019 Foru Legean definitutako genero-transbertsaltasuna kontuan hartuta, datuak sexuaren arabera bereiziko dira, datuak eskuratzeari dagokionez bereizketa hori egiten ahal den guztietan.

Estrategiaren adierazleei dagokienez, garrantzitsua da kontuan hartzea, arlo bakoitzarekin eta jasangarritasun-ikuspegiaren nolakotasun bakoitzarekin lotzen diren arren, osotasun zatiez gisa hartu behar direla, Foru Komunitateko jasangarritasunaren jarraipen eta ebaluazio egokia egiteko. Beraz, arlo bakoitzak kontuan hartu behar ditu ENS 2030 NEJeko gainerako adierazleak, ikuspegi orokor eta oso bati eusteko. Horretaz gainera, arlo espezifiko bat aztertzean, ebaluazioa osatzeko behar adina adierazle espezifiko erabiltzen ahal dira eta erabili behar dira.

11. taula: ENS 2030 NEJren jarraipen-adierazleak. Iturria: geuk egina.

GJH ETA JOMUGA KOPURUA	ADIERAZLEA	ARLO ESTRATEGIKOA	JASANGARRITASUNAREN IKUSPEGIA	ITURRIA
<b>GJH 1</b> POBREZIA DESAGERRARAZTEA Xedeak: 7	Pobrezia erlatiboko arriskuan daudenen proportzioa, pobrezia-atalase autonomikoa kontuan hartuta	GIZARTE-KOHESIOA	JUSTIZIA	Bizi baldintzen gaineko inkesta (INE)
<b>GJH 2</b> GOSEA ZERO Xedeak: 8	Nekazaritzako azaleraren zein proportzio erabiltzen den nekazaritza produktibo eta jasangarrirako	KLIMA-ALDAKETA	ONARGARRIA	Ekoizpen Ekologikoaren Estatistika Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa (NAEM) Laboreen azalerari eta etekinei buruzko inkesta (NAEM)
<b>GJH 3</b> OSASUNA ETA ONGIZATEA Xedeak: 13	Bizi-itxaropena jaiotzean	GIZARTE-KOHESIOA	EKITATEA	Heriotzen estatistika (INE)





<b>GJH ETA JOMUGA KOPURUA</b>	<b>ADIERAZLEA</b>	<b>ARLO ESTRATEGIKOA</b>	<b>JASANGARRITASUNAREN IKUSPEGIA</b>	<b>ITURRIA</b>
<b>GJH 4</b> KALITATEZKO HEZKUNTZA Xedeak: 10	Administrazio publiko autonomikoen gastuaren zein proportzio erabiltzen den enplegua sustatzeko	KULTURA ETA ONDAREA	EKITATEA	Nafarroako Aurrekontu Orokorren likidazioa (Nafarroako Gobernua) Biztanleria Aktiboaren Inkesta (INE)
<b>GJH 5</b> GENERO-BERDINTASUNA Xedeak: 9	Enplegu-arrakala. Zer alde dagoen jarduera-tasan gizonen eta emakumeen artean	KULTURA ETA ONDAREA	EKITATEA	Biztanleria Aktiboaren Inkesta (INE)
<b>GJH 6</b> UR GARBIA ETA SANEAMENDUA Xedeak: 8	Bainurako uren kalitatea	KLIMA-ALDAKETA	ONARGARRIA	Bainurako uren kalitatea (Osasun Ministerioa)
<b>GJH 7</b> ENERGIA ESKURAGARRIA ETA EZ-KUTSATZAILEA Xedeak: 5	Energia berriztagarrien ekoizpena, energia primarioaren kontsumoarekin alderatuta	TRANSIZIO ENERGETIKOA	ONARGARRIA	Garapen Ekonomikorako Departamentua (Nafarroako Gobernua)
<b>GJH 8</b> TAXUZKO LANA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA Xedeak: 12	Batez besteko diru-sarrera lanorduko	EKONOMIA BERDEA	EKITATEA	Soldaten egituraren gaineko urteko inkesta (INE)
	Biztanleko BPGa erosahalmenaren parekotasunean	GIZARTE-KOHESIOA	BIDERAGARRITASUNA	Urteko kontu ekonomikoak (Nastat)
<b>GJH 9</b> INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURAK Xedeak: 8	Manufaktura-sektoreko enplegatuen proportzioa	EKONOMIA BERDEA	BIDERAGARRITASUNA	Biztanleria Aktiboaren Inkesta (INE)
	Ikerketa eta garapeneko gastua, BPGarekiko proportzioan	KONPROMISO PARTEKATUA	JUSTIZIA	I+Gko jardueri buruzko estatistika (INE) Urteko kontu ekonomikoak (Nastat)





<b>GJH ETA JOMUGA KOPURUA</b>	<b>ADIERAZLEA</b>	<b>ARLO ESTRATEGIKOA</b>	<b>JASANGARRITASUNAREN IKUSPEGIA</b>	<b>ITURRIA</b>
<b>GJH 10</b> DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA Xedeak: 10	Diru-sarrereren medianaren % 50aren azpitik bizi direnen proportzioa, estatuko batezbestekoa kontuan hartuta	GIZARTE-KOHESIOA	EKITATEA	Bizi baldintzen gaineko inkesta (INE)
<b>GJH 11</b> HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK Xedeak: 10	Etxebizitza birgaituen kopurua ehun biztanleko  Udal-mugarteko hiri-kontsumoa. (bizitegitarako hiri-lurzoruaren azaleraren ehunekoa / udal azalera guztira)	TRANSIZIO ENERGETIKOA  KULTURA ETA ONDAREA	BIDERAGARRITASUNA  BIDERAGARRITASUNA	Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioa
<b>GJH 12</b> EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUA Xedeak: 11	Birziklatutako udal-hondakinen proportzioa, sortu eta trataturiko udal hondakinen guztizkoarekin alderatuta	EKONOMIA BERDEA	BIDERAGARRITASUNA	Hondakinak sortzearen eta kudeatzearen urteko memoria. Udal- eskumeneko hondakinak. (Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioa)
<b>GJH 13</b> KLIMAREN ALDE EKITEA Xedeak: 5	Unitate egoiliarren berotegi-efektuko gasen guztizko isurketak biztanleko	KLIMA-ALDAKETA	ONARGARRIA	Atmosferarako emisioen laginketa (INE) Biztanleriaren datuak (INE)
<b>GJH 14</b> ITSAS AZPIKO BIZIA	Ez zaio adierazle zehatzik esleitu, Nafarroa itsasertzik gabeko erkidegoa delako, baina beste adierazle batzuetan islatzen da, ur gorari dagokion erantzukizuna dakarrelako, hala nola hondakinen ekoizpena eta kudeaketa edo uraren kalitatea			





GJH ETA JOMUGA KOPURUA	ADIERAZLEA	ARLO ESTRATEGIKOA	JASANGARRITASUNAREN IKUSPEGIA	ITURRIA
<b>GJH 15</b> LEHORREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA Xedeak: 12	-Babestutako azalera (Nafarroako Naturagune Babestuen Sarea) *Zerbitzu ekosistemikoen adierazleekin ordeztuko	KLIMA-ALDAKETA	JUSTIZIA	
<b>GJH 16</b> BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK Xedeak: 12	Zigorrik jaso ez duten atxilotuen proportzioa, presoan guztizkoarekin alderatuta ----- Sektore publikoan dauden emakumeen proportzioaren ratioa, 16 eta 64 urte arteko biztanlerian dauden emakumeen proportzioarekin alderatuta	KONPROMISO PARTEKATUA	JUSTIZIA	Presoen estatistika orokorra (Barne Ministerioa)
<b>GJH 17</b> HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZAK Xedeak: 19	Nafarroako Aurrekontu Orokorraren zer ehuneko bideratzen den garapenerako lankidetzara (% 0,7) ----- Tokiko jasangarritasuneko ekintzen kopurua edo ehunekoa.	KONPROMISO	JUSTIZIA	Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen estatistika-buletina (Lurralde Politikako Ministerioa) Biztanleriaren datuak (INE)
Xedeak: 19	Tokiko jasangarritasuneko ekintzen kopurua edo ehunekoa.	PARTEKATUA	JUSTIZIA	





**12. taula:** Eremu estrategikoaren eta Garapen Jasangarrirako Helburuen arabera egindako adierazleen laburpena. Iturria: geuk egina

<b>ARLO ESTRATEGIKOA</b>		<b>GJH</b>
KLIMA-ALDAKETA	21%	GJH 2, GJH 6, GJH 13, GJH 15
TRANTSIZIO ENERGETIKOA	10%	GJH 7; GJH 11
KULTURA ETA ONDAREA	17%	GJH 4; GJH 5; GJH 11
EKONOMIA BERDEA	17%	GJH 9; GJH 12
GIZARTE-KOHESIOA	15%	GJH 1; GJH 3; GJH 8; GJH 10
KONPROMISO PARTEKATUA	20%	GJH 11; GJH 16; GJH 17
<b>ARLO ESTRATEGIKOA</b>	<b>100%</b>	

Azken emaitzan, aurreko taulan ikusten den bezala, modu orekatuan banatzen da adierazleen banaketa arlo estrategikoaren arabera, eta arlo bakoitzak nahikoa ordezkari du aginte-taulan.

Era berean, hurrengo taularen azken emaitzak bermatzen du jasangarritasunaren ikuspegiaren lau osagaiak pisu orekatua izanzen dutela banaketan (% 25 inguru). Aukeratutako adierazleekin, hurrengo taulan ezartzen da ba-

naketa. Era berean, esan behar da edozein ekintza edo ekimen publikok jasangarria izan behar duela, eta, hipotesiz behinik behin, koherentea izan behar duela GJH guztiekin. IKUSPEGIA

**13. taula:** Adierazleen laburpena, jasangarritasun-ikuspegiaren osagaien arabera. Iturria: geuk egina

JASANGARRITASUNAREN IKUSPEGIA		GJH
JUSTIZIA	30%	GJH 1, GJH 9, GJH 15, GJH 16, GJH 17
ONARGARRITASUNA	26%	GJH 2, GJH 6, GJH 7, GJH 13, GJH 14
EKITATEA	25%	GJH 3, GJH 4, GJH 5, GJH 8, GJH 10
BIDERAGARRITASUNA	17%	GJH 8, GJH 9, GJH 11, GJH 12
<b>100%</b>		

Harrigarria izaten ahal da banaketa hori, baina beharrezkoa da kontzeptuei loturiko funtsezko alderdi batzuk aipatzea. Lehenik eta behin, “justizia” osagaiak 2030 Agendaren bi eremu biltzen ditu: Bakea eta Aliantzak, eta harreman teorikoak dituzte Garapen Jasangarrirako 15. eta 16. Helburuekin. Baina haren irismenak –bai helburuenak, bai garapen jasangarriaren ezaugarrienak– barne-harreman gehiago biltzen ditu jasangarritasun-ikuspegiaren dimentsioetan dituen ondorioen eta Garapen Jasangarrirako Helburuekiko harremanen artean. Jar ditzagun bi adibide: Garapen Jasangarrirako 16. Helburuak harreman gutxi izaten ahal ditu bideragarritasunean edo onargarritasunean; hala ere, behar-beharrezkoa da gobernantza (gaitasuna) arautzeko eta hartutako konpromisoak (agindua)

ezartzeko. Beste adibidea, ikuspegi kuantitatibotik, “justiziaren” pisuaren eta “onargarritasunaren” arteko erlazioarekin azaltzen ahal da, baina ikusi behar da “azalera babestuaren” adierazlea “justiziari” esleituta dagoela, ondarearen eta jasangarritasunaren belaunaldien arteko konpromisoaren muin gisa.

Gai horiek kontuan hartu beharko dira ebaluazio-prozesuetan, bai ekimen bakoitzean, bai jasangarritasunaren osagaien analisi partzialetan, eta kontuan hartu beharko dira, batez ere, Nafarroako garapen jasangarriaren diagnostiko bateratua egiten denean, bai ENS 2030 NEJren jarraipen-txostenetan, bai borondatezko eskualde-txostenetan.



# I. ERANSKINA: Jardunbide egokien analisiak

Jarraian, 2030 Agendaren eta Garapen Jasangarriko Estrategien esparruan ezarritako jardunbide onenen azterketa estrategikoa aurkezten da. Haren bidez, Nafarroako Foru Komunitatea zein puntutan dagoen hausnartu nahi da, eta hura inplementatzeko erreferentzia izaten ahal diren praktikak hautatu. Horretarako, herrialde edo eskualdeen garapen jasangarriko estrategiei buruzko informazioa bildu da, bai eta aurrekontuekiko lerrokadurari, jarraipen-txostenei eta adierazleen taulari buruzko xehetasunak ere.

Hona hemen dokumentu batzuk eta besteak balioesteko aintzakotzat hartu ditugun gaiak:


- **Lerrokadura-sistema:** Lerrokatzeak esan nahi du zer-nola erlazionatzen den politika bat Garapen Jasangarriko Helburuekin eta haien jomugekin, eta politika horrek zer-nolako eraginak dituen jasangarritasunaren eta bost esferen irismenean (pertsonek, planeta, oparotasuna, bakea eta aliantzak).
- **Gobernantza-sistema:** jarraipen-organoak, politikak eta nola tratatzen diren, Garapen Jasangarriko Helburuen edo politika eragileen araberrako sailkapena, zer txosten mota egiten diren, UNeko erregistroa eta kokapena (2030 Agenda nola eramaten duten tokiko agendetara).
- **Adierazle- eta jarraipen-sistema:** Adierazleak, iturriak eta aginte-koadroa hautatzea.

Atal horiekin lotutako alderdiak balioespenen zutabearen deskribatzen dira, eta, horrenbestez, ondorioen atalean aurkitzen ahal dira ENS 2030 NEJren gai nabarmenak edo aplikagarriak.

Duela zazpi urte onetsi zen 2030 Agenda NBEren Batzar Nagusian. Herrialde eta eskualde askok oraindik etapa goiztiarretan dituzte estrategiak, batez ere alderdi interesdunak inplikatzearekin eta helburuekin bat datozen politikak inplementatzeko modu desberdinekin loturik. 2030 Agen-

daren alderdi nagusietako bat da politika koherente eta koordinatuak definitzea, zeinen ondorio zuzen nagusia izanen baita Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) inplementatzea.


Gaur egun, Espainia nazioarteko erreferentziatzat hartzen ahal da 2030 Agenda betetzeari dagokionez, batez ere 2030 Garapen Jasangarriaren Estrategiari loturik.



**11 Irudia:** Espainiaren egoera eta aurrerabidea, Garapen Jasangarriko 17 Helburuei dagokienez.

**ITURRIA:** Eurostat.

Oro har, izan da aurrerapenik garapen jasangarriko helburu bakoitzean, nahiz eta helburuen erdiak, gutxi gorabehera, Europar Batasunaren azpi-



**12 Irudia:** Garapen Jasangarrirako Helburu bakoitzaren jarduna, autonomia-erkidegoen arabera.  
**ITURRIA:** 17 GJHen txostena x 17 AE.

Gaiak gainerako autonomia-erkidegoetan eta nazioarteko beste toki batzuetan zer egoera duen ikusteko azterketa horren ondoren, planteatzen da gobernantza-sistemak politika eragileen jarraipenera bideraturik egon beharko lukeela, kontuan izanik politika horiek gai izan behar dutela Garapen Jasangarrirako Helburuen hainbat jomugatan eragiteko. Politika horiek bizkortuko dute, hain justu, Garapen Jasangarrirako Helburuen ezarpena, bai dimentsio kuantitatiboan (jomugen adierazleak), bai jasangarritasunaren printzipioen eta balioen jarraipen kualitatiboari dagokionez.

tik edo atzetik egon. Espainiako autonomia-erkidegoen barruan, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoa dira ongien posizionatuak.

Rankings general y por grandes bloques para todas las CC.AA. (sin ODS 14, relativo a la sostenibilidad de los ecosistemas marinos, en el ranking GENERAL y en el AMBIENTAL). Clasificación general y ambiental para las comunidades costeras.

GENERAL (sin ODS 14)	AMBIENTAL (sin ODS 14)	SOCIO-ECONÓMICO	SOCIAL	PRESTACIONES SANIDAD Y EDUCACIÓN	DESIGUALDAD
16 ODS	ODS 2, 6, 7, 11, 12, 13 y 15	ODS 1, 3, 4, 5, 8, 9, 10, 16 y 17	ODS 1, 3, 4, 5, 8 y 10	ODS 3 y 4	ODS 5 y 10
País Vasco	Castilla y León	País Vasco	Navarra	Navarra	Galicia
Navarra	País Vasco	Navarra	País Vasco	Cantabria	Canarias
Aragón	Aragón	Madrid	Aragón	País Vasco	País Vasco
La Rioja	Navarra	Aragón	Cantabria	Aragón	Navarra
Asturias	Asturias	Cantabria	Galicia	La Rioja	Baleares
Madrid	Castilla-la Mancha	La Rioja	La Rioja	Asturias	Madrid
Cataluña	Extremadura	Cataluña	Madrid	Castilla y León	La Rioja
Castilla y León	La Rioja	Asturias	Cataluña	Madrid	Extremadura
Cantabria	Cataluña	Galicia	Asturias	Extremadura	Cataluña
Baleares	Comunidad Valenciana	Castilla y León	Castilla-la Mancha	Castilla-la Mancha	Aragón
Castilla-la Mancha	Baleares	Baleares	Castilla y León	Galicia	Comunidad Valenciana
Extremadura	Madrid	Extremadura	Extremadura	Cataluña	Castilla-la Mancha
Galicia	Galicia	Murcia	Baleares	Murcia	Cantabria
Comunidad Valenciana	Andalucía	Castilla-la Mancha	Comunidad Valenciana	Comunidad Valenciana	Asturias
Murcia	Murcia	Canarias	Canarias	Canarias	Castilla y León
Canarias	Cantabria	Comunidad Valenciana	Murcia	Baleares	Murcia
Andalucía	Canarias	Andalucía	Andalucía	Andalucía	Andalucía

Espainiako Gobernuak bederatzi politika eragile aurkeztu ditu 2030 Agenda ezartzeko ekintza-planean.

Aztertutako praktiken barruan, gai berritzaile bat izan da aurrekontuak Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzea. Nabarmendu behar da garrantzitsua dela aurrekontu publikoak jasangarritasunera bideratutako ekintzekin lotzea. Ekintza horri esker, gizartea (herritarrak eta erakundeak) kontzientziazten ahal da jasangarritasunerako inbertsioaren inguruan. Era berean, lagundu egiten du Garapen Jasangarrirako Helburuek politi-





kekin duten lotura ikusarazten eta herritarren eskura paratzen du GJHen errealitatea.

Ez dago praktika hori gauzatzeko metodologia estandarizaturik, eta, beraz, herrialde/eskualde bakoitzak metodologia sendo, alderagarri eta irmo bat landu nahi du. Espainiaren kasuan, esaterako, 2021eko aurrekontuetan egin zuen lehen hurbilketa, eta hurrengo urteko bertsiorako hobekuntzak eta aurrerapenak jaso zituen.

Aurrekontuak Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotzea, aurreko adibidearen arabera, Nafarroan hartu beharreko jardunbide egokia litzateke, betiere aintzat harturik Nafarroako Jasangarritasun Estrategia 2030.

Ildo horretan, Nafarroan azpimarratzekoa da [Finantzaketa Jasangarriaren Esparrua](#). Finantzaketa Jasangarriaren Esparru horrek Nafarroako Gobernuaren barruan finantzaketa jasangarriko tresnak nola ezartzen diren definitzeko balio du. Esparru horrek finantzaketa jasangarriko tresnetarako balio du, barnean harturik bonu berdeak, sozialak edo jasangarritasunari lotutakoak, baina baita maileguak eta proiektu hautagarriak esleitzen zaizkion beste edozein finantza-tresna ere.

Interesgarria da, halaber, taula sintetiko bat eginez gauzatzea azterketa. Taula horretan, bost gai nagusietako (5 P) bakoitzerako 2030 Agenda gidatu behar duten balioak azalduko dira. Ildo horretan, har dezakegu Garapen Jasangarriaren 2030erako Kanarietako Agendaren barruan egindako eredua.

Aipatutako adibideek politikak aztertzekeo sistemak indartzen laguntzen dute, Garapen Jasangarrirako Helburuen adierazleekin (OCECAk, Eurostatetik edo beste erakunde batzuek estandarizatuta) edo jasangarritasunaren balioekin eta izaerarekin duten erlazioan, eta interesgarria litzateke hori ere nolabait estandarizatzea. Nafarroa dagoeneko ari da aplikatzen beste erkidego batzuetan aztertutako dokumentu batzuetan aurkitu diren alderdi berritzaile batzuk.

PERSONAS	PLANETA	PROSPERIDAD	CULTURA	GOBERNANZA	
				PAZ	ALIANZAS
No dejar a nadie atrás	Gestión eficiente de los recursos	Calidad de vida	Identidad	Justicia	Cooperativismo y asociacionismo
Cohesión social	Mitigación y adaptación al cambio climático	Competitividad territorial sostenible	Diversidad cultural	Inclusión	Colaboración y coordinación
Felicidad		Empleo decente	Ciudadanía cultural	Participación	Interconexión e indivisibilidad
Dignidad	Reducir, reutilizar, reciclar	Emprendimiento e innovación	Conocimiento	Transparencia	Solidaridad
Igualdad	Biodiversidad y servicios ecosistémicos	Digitalización	Memoria	Rendición de cuentas	Acción exterior
Comunidad		Cohesión territorial	Creatividad	Instituciones sólidas y eficientes	
Acogida	Contaminación 0	Resiliencia	Motivación		
Integralidad (dimensiones del desarrollo sostenible)			Transversalidad (facilitadores del desarrollo sostenible)		
DERECHOS HUMANOS					

**13 Irudia:** Kanarietako Garapen Jasangarrirako estrategia-eredua. **ITURRIA:** [Kanarietako 2030 Agenda](#).



## LABURPEN-TAULA: ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA

### ERAGILEA

### ESTEKAK

### BALIOESPENA

ESPAINIA

- Gizarte Eskubideen Ministerioa eta 2030 Agenda [Webgunea](#) / [Estrategia](#) / [Jarraibideak](#) / [Aurrekontuak lerrokatzea](#)
- Adierazleak: [Dokumentua](#) / [Webgunea](#) / [España2050.Epe Luzeko Estrategia Nazionalerako oinarriak eta proposamenak](#)

Guztientzako erreferentzia

## LABURPEN-TAULA: AUTONOMIA-ERKIDEGOAK

### ERAGILEA

### ESTEKAK

### BALIOESPENA

ANDALUZIA

- Andaluziako Junta - **Jasangarritasun, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Departamentua**
- [Webgunea](#)
- [Estrategia](#)
- [Aurrekontuak lerrokatzea](#)
- [Adierazleak](#)

Dokumentuaren hainbat puntutan aurrerapen orekatua aipatzen da, garapen jasangarriaren hiru dimentsioak kontuan hartuta. Bai gobernantzan, bai jarraipen-adierazleetan.

*“Onartzen dugu garapen jasangarria are gehiago txertatu behar dela maila guztietan, haren alderdi ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak integratuz eta haien artean dauden loturak aitortuz, garapen jasangarria dimentsio guztietan lortzeko”* (dokumentuaren 1. esaldia).

Estrategia osoa, egitura ona.

Zuzeneko edo zeharkako eragina esleitzen dute kudeaketa-unitateen arabera; ez dago benetako aurrekontu-lerrokadurarik.

ARAGOI

- Aragoiko Gobernua **Herritarren eta Eskubide Sozialen Departamentua**
- [Webgunea](#)
- [Estrategia](#)
- [Aurrekontuak lerrokatzea](#)
- [Adierazleak 1](#)
- [Adierazleak 2](#)



Estrategia Garapen Jasangarrirako Helburuetan dago oinarrituta, eta han zehazten dira GJHen arabeko ekintzak eta adierazleak.

Estrategia horrek Espainiako Gobernuaren 2030 Agenda hartzen du erreferentziazat, zeinak hauxe nabarmentzen baitzuen ildo horretan: “Beharrezkoa da gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-dimentsioak integratzea barneko eta nazioarteko politiken ziklo orotan”.



**ERAGILEA****ESTEKAK****BALIOESPENA****ASTURIAS****Asturiasko Printzerriko Gobernua**[Webgunea](#)

Estrategia

Aurrekontuak lerrokatzea: [Webgunea](#) / [Dokumentua](#)[Adierazleak](#)

Oraindik ez dute estrategiarik (ASTURIASKO PRINTZERRIKO GOBERNANTZA PUBLIKOAREN ESTRATEGIAREN ZIRRIBORROA parte-hartze publikoko prozesuan egon zen 2021eko abenduan).

Alabaina, 2022ko aurrekontuak lerrokatuta dauzkate Garapen Jasangarri-rako Helburuekin. Dokumentu honetan, sekzioen eta GJHen araberrako aurrekontu-azterketa egiten da. Azaltzen dutenez, kasu honetan hautatutako metodologiak akats batzuk ditu, eta, beraz, *“kontu handiz hartu behar dira ateratzen diren zenbatekoak”*.

Baina ondorioztatzen dute Asturiasko Gobernuak GJH guztiei erantzuten diela, aurrekontu-programen transbertsalitatea nabarmendu behar dela, eta beharrezkoa dela, orobat, *“ahalegin horien koordinazioa, GJH horien gaineko inpaktuak eraginkorragoak eta efizienteagoak izan daitezen”*.

**BALEAR UHARTEAK****Presidentetza, Funtzio Publiko eta Berdintasuneko Departamentua**[Webgunea](#)

Estrategia

Aurrekontuak lerrokatzea

[Adierazleak](#)

Ez dute estrategiarik, ezta lerrokatzerik ere; 2015-2019 aldian abiarazitako lege eta plan batzuk baino ez dituzte azaltzen, eta GJHeekin lerrokatzen ditu.

Kanariar Uharteetako adierazleen taula bera.

*Eranskinean, ezaugarriak eta beste kontzeptu batzuk deskribatzen dira, eta 2030 Agendarekin lerrokatzen ditu.*





**ERAGILEA ESTEKAK**

**KANARIAK**

**Kanarietako Gobernua**

[Webgunea](#)

[Estrategia](#)

[Aurrekontuak lerrokatzea](#)

[Adierazleak](#)

[Parte hartzeko gunea](#)

**BALIOESPENA**

Estrategia ona du, Espainiakoaren oso antzekoa. Oso ongi osatua. Gobernantza-eredu ona.

Oso lerrokatuak jasagarritasun-irizpideekin eta 5 P-ekin. Taula eta infografia oso interresgarriak, zeinean definiturik ageri baitira ACDSren balioak, jarduera-lehentasunak, erronkak eta politikak, guztia ere 5 P-en ildotik. Era berean, seigarren P bat ere gaineratzen dute: kultura-ondarea. Kanarietako Agenda 2030 Eragile Anitzeko Plataforma bat dute, elkarlanerako gune gisa.



Balearretako adierazle-taula berdina.

CUADRO 1  
Valores de la Agenda Canaria de Desarrollo Sostenible 2030

Personas	Planeta	Prosperidad	Cultura	Gobernanza	
				Paz	Alianzas
No dejar a nadie atrás	Gestión eficiente de los recursos	Calidad de vida	Identidad	Justicia	Cooperativismo y asociacionismo
Cohesión social	Mitigación y adaptación al cambio climático	Competitividad territorial sostenible	Diversidad cultural	Inclusión	Colaboración y coordinación
Felicidad	Reducir, reutilizar, reciclar	Empleo decente	Ciudadanía cultural	Participación	Interconexión e indivisibilidad
Dignidad	Biodiversidad y servicios ecosistémicos	Emprendimiento e innovación	Conocimiento	Transparencia	Solidaridad
Igualdad	Contaminación 0	Digitalización	Memoria	Rendición de cuentas	Acción exterior
Comunidad		Cohesión territorial	Creatividad	Instituciones sólidas y eficientes	
Acogida		Resiliencia	Motivación		
Integralidad (dimensiones del desarrollo sostenible)			Transversalidad (facilitadores del desarrollo sostenible)		
<b>Derechos Humanos</b>					

**Personas**

**Reto Región 1: Erradicar la pobreza y reducir las desigualdades sociales**

**Política Aceleradora 1: Disponer de servicios sociales suficientes y de calidad y de una estrategia de inclusión para avanzar en la lucha contra la pobreza**

Prioridad de Actuación 1.1: Pobreza y desigualdad: unos servicios sociales adaptados a las necesidades del siglo XXI	Prioridad de Actuación 1.2: Transición hacia un nuevo modelo de cuidados y atención a la dependencia	Prioridad de Actuación 1.3: Protección a la infancia y a las familias
Prioridad de Actuación 1.4: Acceso a la vivienda	Prioridad de Actuación 1.5: Igualdad en la diversidad	Prioridad de Actuación 1.6: Enfoque comunitario

**Reto Región 2: Acabar con la brecha de género y con la violencia contra las mujeres**

**Política Aceleradora 2: Una sociedad igualitaria y libre de violencia machista**

Prioridad de Actuación 2.1: Educar para la igualdad y cerrar la brecha de género	Prioridad de Actuación 2.2: Luchar contra la violencia de género
--	--

**Reto Región 3: Afrontar las limitaciones de alcance y deficiencias en el funcionamiento de los servicios públicos en Canarias**

**Políticas Aceleradora 3: Reforzar el estado de bienestar, asegurando y mejorando la calidad de los servicios públicos**

Prioridad de Actuación 3.1: Educación	Prioridad de Actuación 3.2: Salud
---------------------------------------	-----------------------------------







**ERAGILEA**

**ESTEKAK**

**BALIOESPENA**

**KANTABRIA**

- **Lehendakariordetza Departamentua (Unibertsitateak, Berdintasuna, Kultura eta Kirola)**
- [Webgunea](#) / [Estrategia](#) / [Aurrekontuak lerrokatzea](#) / [Adierazleak](#)

- Ez dute estrategiarik, ezta aurrekontuekiko lerrokadurarik ere, baina 22/07/29an 2023rako aurrekontuak lerrokatzea onetsi zuten.

**GAZTELA-MANTXA**

- **Kantabriako Gobernuaren Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa**
- [Webgunea](#)
- [Estrategia](#)
- [Aurrekontuak lerrokatzea](#)
- [Adierazleak: GM](#)

- Gaztela-Mantxan, Espainiako Gobernuak proposatutako Ekintza Plana da Garapen Jasangarrirako Helburuak lortzeko ibilbide-orrria.
- Gobernantza-sistemaren proposamenaren barruan, organo hauek ageri dira:
  - Garapen Jasangarrirako Departamentua
  - 2030 Agenda eta Kontsumoko Zuzendaritza Nagusia
  - 2030 Agendaren Jarraipen Batzordea
  - Departamentuarteko elkarrizketa-taldea
  - Gaztela-Mantxako 2030 Sare Lokala
- Aurrekontuen azterketa luze-zabala, bai eta GJHeekin duten lerrokatze-proporzioa.
- Jarraipen-adierazleen taularik gabe, Excel bat deskargatzen da adierazleekin.

**GAZTELA ETA LEON**

- **Presidentetza Departamentua**
- [Webgunea](#)
- Estrategia: [Jarraibideak](#)
- [Aurrekontuak lerrokatzea](#)
- [Adierazleak](#)

- Ez du estrategiarik bere horretan, baina bai Agenda 2030 ezartzeko [jarraibideak](#), Nafarroako lerrokatze-txostenaren antzekoak.

**KATALUNIA**

- **Ingurumen eta Jasangarritasun Departamentua**
- [Webgunea](#)
- [Estrategia](#)
- [Aurrekontuak lerrokatzea](#)
- [Adierazleak](#)

- Politiken lerrokatze bat da.
- 2030 Agenda ezartzeko Espainiako Gobernuak proposatutako ekintza-planaren eranskin gisa aurkezten da.
- Eranskin horren barruan gobernantza-sistema bat ageri da: horretarako, departamentuarteko batzorde bat eta batzorde tekniko bat sortu behar dira.
- “Bi batzordeek Kataluniako Garapen Jasangarrirako Aholku Batzordearen laguntza dute, dagozkien eginkizunak betetzea errazteko, konpromisoen eta Garapen Jasangarrirako Helburuen arteko koherentzia zaintzeko eta egin beharreko lanak garatzen laguntzeko”.
- Dokumentu horren barruan, Kataluniako Generalitatearen aurrekontuekiko lotura jartzen da etorkizuneko helburutzat.





**ERAGILEA**

**ESTEKAK**

**BALIOESPENA**

**EXTREMADURA**

**Nekazaritza, Landa Garapen, Biztanleria eta Lurralde Departamentua**

[Webgunea](#)

Estrategia 1. Doc, 2. Doc

Aurrekontuak lerrokatzea

[Adierazleak](#)



Estrategia ona du, eta, gobernantzari dagokionez, zenbait helburu planteatzen ditu eta gobernantza-organoak zehazten ditu; era berean, gobernantza-sistemaren ezarpena eta ebaluazioa ere aurreikusten ditu.

Adierazleen taula motela da, eta geruza asko ditu informaziora iristeko. Ez da oso eroso, batere intuitiboa ez.

**GALIZIA**

**Departamentua: Lehendakariordetza eta Lehendakaritza, Herri Administrazio eta Justiziako Departamentua**

[Webgunea](#)

[Estrategia](#)

Aurrekontuak lerrokatzea

[Adierazleak](#)

Cuadro 2. Relaciones competenciales entre las consejerías y los ODS

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	
Presidencia																					
Vicepresidencia																					
Hacienda																					
Medio Ambiente y Ordenación del territorio																					
Infraestructuras y Vivienda																					
Economía, Empleo e Industria																					
Cultura, Educación y Ordenación Universitaria																					
Sanidad																					
Política social																					
Medio Rural																					
Mar																					

  Consejerías con competencias y mandato específico en temas relacionados directamente con el ODS señalado  
  Consejerías con competencias y funciones que pueden incidir en el logro del ODS señalado

Fuente: elaboración propia

Aurkeztutako dokumentua politiken lerrokatze bat da.

Helburuak, xedeak, gaia-aren egoera eta lehentasunak antolatzen ditu 5 P-en arabera. Irakurtzeko nahiko eroso ez den testu moduan ageri da.

**ERRIOXA**

[Webgunea](#)

[Estrategia](#)

Aurrekontuak lerrokatzea

[Adierazleak](#)

Jarraipen-adierazleak Excel batean ageri dira.





**ERAGILEA**

**ESTEKAK**

**BALIOESPENA**

**MADRIL**

Webgunea / Estrategia / Aurrekontuak lerrokatzea / [Adierazleak](#) Jarraipen-adierazleak Excel batean ageri dira.

**MURTZIA**

**Gardentasun, Partaidetza eta Administrazio Publikoko Departamentua**  
[Webgunea](#)  
 Estrategia: [Webgunea](#) / [Dokumentua](#)  
[2030 Agendaren lehentasunak, irizpideak eta ildoak aztertzea](#)  
 Aurrekontuak lerrokatzea  
 Adierazleak

Politikak lerrokatzeari buruzko txostena. Halaber, Murtziako Eskualderako politika eragiletzat hartu behar diren politikei buruzko atal bat eskaintzen du (9 dira).  
 Garapen Jasangarrirako Helburuak 5 P ardatzen arabera aztertzen ditu. (Xedeak, neurri erreaktiboak eta proaktiboak, aurrerapen-proposamenak).  
 Kokapenez ere hitz egiten du; hau da, “2030 Agendaren kokapen-kontzeptuan sakontzeko beharraz, 2030 Agenda lurralde bakoitzaren ezaugarrietara eta zirkunstantzietara egokitzeko prozesu gisa ulerturik, berez orokorrak eta unibertsalak izan arren. Horrek ezinbestean dakar eragileen parte-hartzea, eta bereziki, eskualdeena eta tokiko eta hirietako agintariena. Espainiaren kasuan, lurralde-antolaketa dela eta, autonomia-erkidegoen eta udalerrien eta probintzien parte-hartzeaz ari gara”.  
 “Hiru talde sortuko dira, garapenaren hiru dimentsioetan aurrera egiteko lanak koordinatzeko; hau da, esparru sozialean (pertsonei buruzko GJHak), ekonomiaren alorrean (oparotasunari buruzko GJHak) eta ingurumenean (planetari buruzko GJHak)”.

**EUSKADI**

**Lehendakaritza**  
[Webgunea](#)  
[Estrategia](#)  
 Aurrekontuak lerrokatzea  
[Adierazleak](#)

Politiken lerrokatze bat da. Gobernantzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren ekintza osorako agenda horren koordinazioa Lehendakaritzari dagokio, eta, zehazki, Lehendakaritzako eta Kanpo Harremanetarako idazkari nagusien ekintza koordinatuari.  
 Garapen Jasangarrirako Helburuak 5 P-en arabera sailkatzen ditu.  
 Urteko emaitzen txostena egiten da.  
 “Jaurlaritzako sailek 2030 Agendaren gobernantza-ereduan izan behar duten inplikazioa Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Sail arteko Batzordetik bideratuko da.  
 Euskadi Basque Country 2030 Agendaren kudeaketan Euskal Erkidegoko gainontzeko Instituzioen parte-hartzea Kanpo Harremanetarako erakundeen arteko Batzordearen baitan gauzatuko da. Batzorde horren partaideak dira Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, 3 Euskal Hiriburuak, Euskadiko Udalen Elkarte (Eudel) dira. Azkenez, Euskadiko Kanpo-Harremanetan proiektzioa duten gizarte-eragileak, Lehendakaria buru duen Kanpo Harremanetarako Aholku Batzordearen bidez.  
 Eskema hau osatuko da Euskadi Basque Country 2030 Agendaren helburu eta helmugen ardura duten gobernu-arlo bakoitzeko eragile sozial, ekonomiko eta kulturalen parte-hartzearekin”.



**ERAGILEA****ESTEKAK****BALIOESPENA****VALENTZIA**

- **Partaidetza, Gardentasun, Lankidetzeta eta Kalitate Demokratikoko Departamentua**
- [Webgunea](#)
- Estrategia
- [Aurrekontuak lerrokatzea](#)
- [Adierazleak](#)

- Ez dute estrategia propiorik, eta 2030 Agenda ezartzeko Espainiako Gobernuak proposatutako ekintza-planera bideratzen dute.
- Edonola ere, aurkeztu dute Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-programak GJHein lerrokatze txostena. Bertan, gutxi gorabeherako azterlan bat egiten da, ehunekoak adierazita. Atal batean, politika eragileekiko lerrokatze-maila aztertzen da.

**LABURPEN-TAULA: HIRI AUTONOMOAK ETA TOKI-ERAKUNDEAK****ERAGILEA****ESTEKAK****BALIOESPENA****CEUTA**

- <https://www.ceuta.es/ceuta/mrr-prtr>

- Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari egiten diote erreferentzia.

**MELILLA**

- <https://pemelilla29.es/planificar-melilla/>

- Hiri-estrategia bat da, Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorrena.
- Gai batzuk jasangarritasun-printzipioekin eta -balioekin lotzen dira.

**BADAJOZ**

- **Badajozko Diputazioa**
- [Webgunea](#)
- Estrategia
- Aurrekontuak lerrokatzea: [Webgunea](#) / [Dokumentua](#)
- Adierazleak

- 2020-2023 aldirako garapen jasangarrirako estrategia bat da. Azterketa eta diagnostiko bat egiten ditu, eta ardatz, helburu eta proiektu estrategikoak zehazten ditu. Horretaz gainera, proiektu-fitxa batzuk aurkezten dira, zeinetan, oro har, alderdi hauek zehazten baitira: "Lortu nahi den ardatza eta helburu estrategikoa, Diputazioan ekintzok garatzean inplikaturako arloak/ordezkaritzak, epea, aurrekontua, laguntzen diren Garapen Jasangarrirako Helburuak, eta estrategia lortzeko aurrerapena eta GJHei egiten zaien ekarpena neurtzeko markaturako adierazleak".







LABURPEN-TAULA: BESTE HERRIALDE BATZUK

ERAGILEA	ESTEKAK	BALIOESPENA
FINLANDIA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Webgunea</li> <li>• <a href="#">Estrategia</a></li> <li>• Aurrekontuak</li> <li>• Ierokatzea</li> <li>• <a href="#">Adierazleak</a></li> <li>• <a href="#">VNR</a></li> </ul>	<p data-bbox="616 375 1153 446"><a href="#">Commitment, Strategy and its Monitoring and Review Process</a></p> <p data-bbox="616 446 1153 1053">Finlandiak oso estrategia aurreratua dauka, bai eta jarraipen-esparru sendoa ere. Garapen jasangarriko estrategia eguneratu zuen, GJHen bat egiteko, eta, orain, 2050erako ikuspegia zehazten duen garapen jasangarriko estrategia nazional bat du: "Finlandia oparo bat, jasangarritasunaren eta naturaren karga-ahalmenaren aldeko erantzukizun globalarekin". Era berean, gobernuak badu 2030 Agenda inplementatzeko plan bat ere, 2017an onetsia eta neurri argiekin operatibo dagoena. Estrategia erabat lotuta dago aurrekontu nazionalarekin 2019tik. Ogasun Ministerioaren lidergo aktiboari esker, Garapen Jasangarriko Helburuak gastu-titulua nagusien justifikazioetan erabiltzen dira, esleipenen eta garapen jasangarriaren arteko loturak argiago nabarmentzeko.</p> <p data-bbox="616 1053 1153 1268">Hobetu beharreko arlo gisa, aipatu behar da integrazioa askoz ere aurreratuago dagoela ingurumen-ikuspegiaren arlorako esparru sozialerako baino. Izan ere, alderdi hori egingarriagoa zen politikoki, bi dimentsioak erabat integratzea baino.</p> <p data-bbox="616 1268 1153 1505">Estrategiaren jarraipen-esparruak hautatutako Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrotutako adierazle-multzo berri bat biltzen du, partaidetza-ikuspegiarekin, baita ministerio bakoitzaren aurrerapenari buruzko aldizkako txostenak eta lau urtean behingo berrikuspen independente bat ere.</p> <p data-bbox="1187 375 1668 414"><a href="#">Leadership and Horizontal Coordination</a></p> <p data-bbox="1187 414 1668 989">Lidergo nagusi argia lehen ministroaren aldetik. Lehen ministroaren aginte-bulegoa da koordinazioaren arduraduna, eta idazkaritza gisa jarduten du. Koordinazioak barnean hartzen ditu Lehen Ministroaren Bulegoko, Kanpo Harremanetarako Ministerioko eta Garapen Jasangarriari buruzko Finlandiako Batzorde Nazionalako ordezkariak. Koordinazio-lanak Ministerioarteko Sareko Idazkaritza baten laguntza ere badu. Sare hori 11 ministerio sektorialetako garapen jasangarriko puntu fokalez osatuta dago. Modu erabakigarrian erakusten da gobernu osoaren ikuspegia mekanismo horren bidez, eta horrek eskatzen du sektore guztiak izatea GJHen lorpenaren parte.</p> <p data-bbox="1187 989 1668 1505">Haren diseinu instituzionalak konpromisoa erakusten du Garapen Jasangarriko Helburuen lidergo-maila goreneko ikuspegi inklusibo eta koherentearekin. Halaber, ahaleginak egin dira hobeki lotzeko GJHen inplementazioaren barne- eta kanpo-alderdiak, Garapen Jasangarriari buruzko Finlandiako Batzorde Nazionalako idazkaritzen eta Finlandiako Garapen Politikako Batzordearen arteko lankidetzak gisa, bai eta Lehen Ministroaren Bulegoaren eta Kanpo Arazoetako ministroaren lankidetzak ere Agenda 2030en Koordinazio Idazkaritzan, Adierazleen lantaldean eta EBko Kontseiluaren Agenda 2030 Lantaldean.</p> <p data-bbox="1702 375 2016 414"><a href="#">Stakeholder Participation</a></p> <p data-bbox="1702 414 2038 622">Finlandiako gobernu-sistemak behetik gorako parte-hartze independenterako mekanismo bat du, baita erabat integraturiko kontseilu bat ere.</p> <p data-bbox="1702 622 2038 1300">Garapen Jasangarriko Batzorde Nazionalak 25 urte baino gehiago daramatza Finlandiako panoraman. Presidentea da erakunde horren buru, eta hainbat alderdi interesdun ditu (90 inguru), besteak beste: gizarte zibileko, industriako, negozioetako, lan-merkatuko eta hezkuntzako erakundeak; gobernuko, parlamentuko, ministerioetako, tokiko eta eskualdeko erakundeetako ordezkariak; Finlandiako Eliza Ebanjeliko Luteranoa; Sami herri indigena; eta sektore publikoko, pribatuko eta hirugarren sektoreko beste alderdi interesdun batzuk.</p> <p data-bbox="1702 1300 2038 1505">Kasu horretan, partaideen aniztasunak eta ekimenak hainbeste urtez indarrean jarraitzeak ederki erakusten du gobernuaren konpromiso irmoa.</p>





**ERAGILEA**

**ESTEKAK**

**BALIOESPENA**

**DANIMARKA**

- Webgunea
- Estrategia
- Aurrekontuak lerrokatzea
- Adierazleak

**Knowledge input via science-policy interface, SDG budgeting and impact assessments**

Ekintza Planaren zati gisa, gobernuak hainbat aldiz iragarri du hemendik aurrera legeria berriaren ondorioak eta Garapen Jasangarrirako Helburuen aldeko ekimen nagusiak ebaluatuko dituela, Danimarkako testuinguruan garrantzitsutzat jotzen denean eta inpaktua nabarmena denean. 2016az geroztik, Garapen Jasangarrirako Helburuak garapenerako lankidetzaren aurrekontuaren lege-proiektu nazionalen sartzen dira, eta, hala, adierazten da zer GJHri heltzen zaion aurrekontu-partida bakoitzean. GJHen ildotik, Danimarkak tinko eusten dio diru-sarrerara nazional gordinaren ehuneko 0,7 Garapenerako Laguntza Ofizialetara bideratzeko konpromisoari. Danimarkak, orobat, badu Garapen Jasangarrirako Helburuetarako funts bat merkaturatzeko asmoa, funts publikoak eta pribatuak konbinatuko dituena, kapital pribatu gehiago mobilizatzeko.

**ALEMANIA**

- Webgunea
- Estrategia
- Aurrekontuak lerrokatzea
- Adierazleak

**Commitment, Strategy and its Monitoring and Review Process**

Alemaniak txertatu ditu Garapen Jasangarrirako Helburuak garapen jasangarriaren estrategian. Nahiko osoa da estrategia hori, eta konpromiso handia erakusten du helburuak eta neurriak argiak direnean. Hala ere, estrategia ez dago aurrekontu nazionalari lotuta, eta mugatua da oraindik garapen jasangarrirako politika sektorial zehatzen norabidean duen eragina. Alemaniako strategiaren indargune argia da jarraipen- eta berrikuspen-esparru sendoa. Alemaniako estrategiak hogeita hemezortzi helburu-erlo ditu, hirurogei jomuga eta adierazle baino gehiagorekin, eta Garapen Jasangarrirako hamazazpi Helburuen inguruan egituratuta dago. Helburu gehienak zenbatetsita eta epeei lotuta daude. Unibertsaltasunaren printzipioa seriozki hartzeko moduaren adibide bikain gisa, Alemaniak zeharkako efektuen berri ere ematen du, eta neurtu egiten ditu haien inpaktu globalak.

Bi urtean behin ematen da aurrerapenaren berri, adierazleei buruzko txostenen bidez. Horretaz gainera, gobernu federalaren txosten batek aurrerapenari buruzko informazioa ematen du lau urtean behin. Alemaniak du bere estrategia parekideen bidez berrikusteko mekanismorik aurreratuena. Parekideen azken berrikuspen independentea 2018an egin zen, eta kontuan hartu zituzten Garapen Jasangarrirako Helburuak. Garapen Jasangarrirako Alemaniako Kontseiluak antolatzen du berrikuspen hori -aholkularitza-erakunde independente bat da-. Kontseilu horrek goi mailako aditu independenteen talde bat gonbidatu zuen astebetetz Alemaniara, herrialdeko estrategia berrikusteko eta aurrerapena eta erronkak eztabaidatzeko goi-mailako gobernu ordezkariekin, nazioz azpiko ordezkariekin, sektore pribatukoekin eta gizarte zibilekoekin. Emaidza gisa, baterako gomendio-txosten bat idatzi zuten. Alemaniako Gobernuak gomendio horiei emandako erantzunak jakinarazi beharko ditu. >>>>





**ERAGILEA**

**ESTEKAK**

**BALIOESPENA**

**ALEMANIA**



**Leadership and Horizontal Coordination**

Kantzilertza Federalak agendarekiko konpromiso argia erakusten du, eta Garapen Jasangarriari buruzko Estatu Idazkarien Batzordeko presidentea da. Batzorde horretan ministerio guztietako ordezkariak esku hartzen dute, sektoreen arteko koordinazioa errazteko. Koordinazio-mekanismo horrek ministerioen arteko lantalde iraunkor baten laguntza du, garapen jasangarriaren alde egiteko.

Garapen Jasangarrirako Helburuak hiru bidetatik itzultzen dira testuinguru nazionalean: Alemanian, Alemaniarekin eta Alemaniaren bidez. Azken horrek erraztu egiten du gobernuak zeharkako inpaktuei heltzea (kanpokoei/mugaz gaindikoei), eta hori txostenetan eta adierazleetan sartzen da, ahal denean. Horrek erakusten du erabateko aitortza dutela GJHen esparruko garapenaren mugaz gaindiko inpaktuek, eta mugaz gaindikoak direla, orobat, Garapen Jasangarrirako Helburuok berez. Inpaktu horiek ebaluatzeko ikuspegia garapen jasangarriaren eraginaren ebaluazio baten bidez ere aplikatzen da. Horren barruan sartzen da, hain justu, politiken garapenaren eta ezarpenaren mugaz gaindiko eraginei buruzko informazioa ematea.

Argi dago koordinazioak eta lidergo koherenteak sektoreen arteko koordinazioa ekarri dutela Alemanian, baita GJHen barneko eta kanpoko alderdien artekoa ere, goi-mailako liderretatik harago.

**Stakeholder Participation**

2017az geroztik, jasangarritasun-foro berri bat dute, eta, garai bateko Garapen Jasangarrirako Alemaniako Kontseiluarekin batera, goi-mailako adituen parte-hartzea errazten du gobernantza-prozesuan.

Elkarrizketa-talde bat ere sortu da, estatuz kanpoko eragileak zuzenean Estatu Idazkaritzako Batzordearekin konektatzeko. Era berean, zientzia- eta ikerketa-eragileak sartzeko plataforma bat ere ezarri da.

**SUITZA**

**Federal Office for Spatial Development ARE**

[Webgunea](#)

[Estrategia](#)

Aurrekontuak lerrokatzea

[Adierazleak](#)

Neurriak hartzea eta politikak maila federalean koordinatzea eskatzen duten lehentasunezko gaiak deskribatzen dira. Horietako bakoitzerako, estrategia nazionalekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatzen diren azpigiak ezartzen dira. Era berean, horiek monitorizatzeko aukeratutako adierazleak zehazten dira. Interesgarria da, estrategia hori hainbat mailatan ezartzeko lankidetzak eta elkarteak zeintzuk diren ezartzen baitu (maila federalean, 2030 Agenda Steering Committee edo Federal Council Delegates for the 2030 Agenda).



**ERAGILEA****ESTEKAK****BALIOESPENA****TXEKIAR  
ERREPUBLIKA**

Webgunea  
[Estrategia](#)  
 Aurrekontuak lerrokatzea  
 Adierazleak  
[VNR](#)

[Stakeholder Participation](#)

Oso integratuta dauka parte hartzeko mekanismoa, baina bestelako modu batean. Garapen Jasangarrirako Gobernu Kontseilua da koordinazio-mekanismo nagusia. Goi-mailako mekanismo bat da, agendaren txostenak ezartzeko, inplementatzeko eta aurkezteko, eta haren bidez parte hartzen dute interesa duten alderdiek ere (gaikako zortzi batzorderen bidez). Gainera, kontsulta publikoak egin dituzte garapen jasangarriaren esparru estrategikoari buruz. Aparteko batzorde bat dute tokiko gobernua koordinatzeko. Parte-hartzea maila gorenean gertatzen da gobernuaren barruan, baina baita behetik gora ere, onlineko plataforma baten bidez.

**LETONIA**

Webgunea  
[Estrategia \(2010\) / \(2018\)](#)  
 Aurrekontuak lerrokatzea  
 Adierazleak

[Commitment, Strategy and its Monitoring and Review Process](#)

Letonia da beste adibide interesgarri bat. 2010ean, herrialdeak Letonia 2030 epe luzerako garapen jasangarriko estrategia onetsi zuen: 60 helburu inguru aurreikusten zituen, epe eta guzti (2030erako lortu beharrekoak), helburu bakoitzeko bost-zazpi adierazlerekin eta zortzi adierazle estrategikorekin. Era berean, badu 2014tik 2020ra bitarteko Garapen Plan Nazional bat ere. Hasi berria dute Nazio Garapen berrirako prozesua, eta Letonia 2030 eztabaiden parte da. Sektorearteko Koordinazio Zentroak Letoniako garapen-helburuak lortzeko aurrerapenaren eta erronken ebaluazioa egin zuen, NDP2020n islatuta, etorkizuneko garapena planifikatzeko erreferentzia gisa. Ebaluazioaren parte gisa, inkesta bat egin zitzaion iritzi-liderrei, NDP2020ren helburuen garrantziari eta haren aurrerapenari buruzko ikuspuntuak, NDP2020 eta Letonia 2030 planen ezarpenari buruzko datu estatistiko eta sekundarioen analisisia eta gomendioak zehazteko. Beraz, bada garapen nazionalaren eta garapen jasangarriaren plangintza hobeki integratzeko aukera ematen duen leiho bat, eta Letonia horri heltzen ari da.

[Knowledge input via science-policy interface, SDG budgeting and impact assessments](#)

Politiken ebaluazioen mende jartzen ditu epe ertain eta luzerako plangintza-dokumentu guztiak. Gaur egun, ministerioek konpromisoa hartzen dute GJHen jomugen eta Letoniako politikaren adierazleen arteko aldeak berrikusteko, politika sektorialen bitarteko ebaluazioak egitean. Horretaz gainera, Letoniak inbertsioen azterketa bat egin du, ikusteko zenbat diru gastatu den aurrekontu nazionalatik, EBko funtsetatik eta tokiko gobernuen aurrekontuetatik garapen nazionalako helburuak lortzeko. 2017an, Ogasun Ministerioak politikak eta baliabideak kudeatzeko mapak sartu zituen, eta horiek aurrekontu nazionalaren urteko egoera-orri finantzarioetan jasotzen dira.







**ERAGILEA**

**ESTEKAK**

**BALIOESPENA**

**ESLOVAKIA**

- [Webgunea](#)
- Estrategia
- Aurrekontuak
- lerrokatzea
- Adierazleak
- [VNR](#)

[Commitment, Strategy and its Monitoring and Review Process](#)

Eslovakia adibide inspiratzailea da, nahiz eta elementu batzuk oraindik arribidean dauden. Herrialdeak 2005ean izan zuen garapen jasangarriko lehen plana, eta lehenbiziko estrategia nazionala, berriz, 2011n. 2017an, 2030 Agenda ezartzeko ibilbide-orri bat ezarri zuen, Eslovakian 2030 Agenda ezartzeko oinarriko esparru instituzionala, eta haren bidez zehazten dira ezarpena eta jarraipena ere. 2018an, gobernuak sei lehentasun nazional hartu zituen 2030 Agenda ezartzeko, alderdi interesdunek parte hartzeko prozesu zabal bat egin ondoren. ELGaren Measuring Distance to the SDG Targets azterketan oinarrituta eta eskura diren material analitikoetan oinarrituta, Eslovakiako Zientzia Akademiako Pronostikoen Institutuak Eslovakia 2030erako garatzeko funtsezko zenbait arlo iradoki zituen; hala, herrialdearentzako erronka eta lehentasun nagusiak identifikatu zituzten Garapen Jasangarrirako Helburuen testuinguruan. Jarraipen gisa, gaur egun Eslovakiako 2030era bitarteko Garapenerako Ikuspegi eta Estrategia Nazionala idazten ari dira, zeina sei lehentasun nazionaletan oinarrituko baita.

Sei lehentasun nazionalak modu holistikotan estaltzen dituzte GJHak, eta arreta handia paratzen dute desberdintasunak murrizteko eta ekonomia inklusiboa eta jasangarria izan dadin lortzeko. Ildo horretan, bada are garrantzitsuagoa den alderdi bat: lehentasun nazionalak Inbertsio Plan Nazionalean ere sartuko dira, zeinak garapen jasangarrirako finantzaketa bultzatu beharko bailuke. Adibide bikaina da hori erakusteko garapen jasangarria nola ateratzen den bere nitxotik, ekintza eta inbertsio zehatz bihurtzeko. Jarraipen-esparrua presatzen ari da, adierazle eta helburu kuantifikatuekin eta epe zehatzekin batera. Adierazle nazionalak NBEko adierazleen zerrenda globalean eta Eurostateko adierazleetan oinarrituta garatuko dira. Aurreikuspenen araber, 2020. urtearen erdialdean ebaluazio-plan bat egonen da martxan, eta sei hilean behin aurkeztuko dira txostenak. Aipatu behar da Eslovakiak ELGarekin lankidetzan diharduela gai horietako batzuetan.

[Knowledge input via science-policy interface, SDG budgeting and impact assessments](#)

**Eslovakia eta Espainia** nabarmendu egiten dira, asmo handiko tresnak garatzeko asmoa baitute hiru arlotan: zientziaren parte-hartzea, inpaktu-ebaluazioak (batez ere Espainian, GJHen gaineko kanpo-inpaktua eta inpaktu globala erregulazio-inpaktuaren ebaluazioetan sartzeko asmoa baitu) eta aurrekontuak.

**LUXENBURGO**

- Webgunea
- Estrategia
- Aurrekontuak
- lerrokatzea
- Adierazleak

[Stakeholder Participation](#)

Eredu bikaina du alderdi interesdunak gobernantza-prozesuan integratzeko. Garapen Jasangarrirako Departamentuarterko Batzorde berritu baten barruan, bada azpitalde bat, Garapen Jasangarrirako Estrategia Nazionala berrikusteko baterako diseinu-prozesuan lan egiten duena. Talde hori Ekonomia Ministerioko eta Garapenerako Lankidetzako Ministerioko ordezkariak osatzen dute, eta barnean hartzen ditu GKEak, Garapen Jasangarrirako Kontseilua eta sektore pribatua. Baterako diseinuko prozesuak alde interesdunen parte-hartze mekanismo tradizioaletatik harago doaz (kontsulten edo aholkularitzaren bidez), eta erabakiak hartzean parte hartzeko aukera ematen dute. Adibide horrek erakusten du alderdi interesdunak integratzen ahal direla goi-mailako postuekin, politiken koherentzian eta garapen estrategikoan ardazturik, modu ahalduntzailean eta integratzailean.





LABURPEN-TAULA: NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK

**ERAGILEA**

**ESTEKA**

**BALIOESPENA**

**NAZIO  
BATUAK**

- **Budgeting for the Sustainable Development Goals Aligning domestic budgets with the SDGs. Guidebook (2020) [link](#)**
- 
- 
- 
- 
- 
- 

- Nazio Batuen garapenerako programak egindako eskuliburu bat. Haren helburua da eztabaida erraztea eta Garapen Jasangarrirako Helburuetarako balizko irtenbideak eta aurrekontu-ereduak aurkeztea, herrialdeek aintzat har ditzaten, eta, aldi berean, gobernu nazionalen ahaleginak integratzeari eta bizkortzeari babesa ematea, Garapen Jasangarrirako Helburuen agendaren parte gisa.
- 
- 
- 
- 
- 
-